

SALMU-
TEGIA

Euskal Biblioteka Labayru



1016290


RELIGIÓN / N. 74

KEREXETA'TAR JAIME

MHIL GISTAT
Dr. Antonio de Castro
Cans. For.

DOMEKETAN

SÄLMUTEGIA

A large, stylized handwritten signature in black ink, written over the title 'SÄLMUTEGIA'. The signature is highly cursive and appears to be 'F. J. ...'.

NIHIL OBSTAT,
Dr. Antonius de Zaldúa,
Cens. Eccl.


IMPRIMATUR:

† PAULUS, Episcopus Flaviobrigensis
Bilbao, 16 Maii, 1967

LAZKAO'KO BENEDITARRAK ARGITARATUA

Depósito Legal, S. S. 528/67

IZARRA - Peña y Goñi, 13
SAN SEBASTIAN - 1967



DOMEKETAN

Goizaldeko otoitzak (MAITIÑAK)

1. Zoriontsu, Jaunaren legea ausnartzen dauan gizona!

1

- ¹ Zoriontsu, gaiztoen asmoari jarraitzen ez dautsan gizona, pekatarien bidetik sartzen ez dana, irrilarien batzarrean jesarten ez dana!
- ² Aren atsegiña, ostera, Jaunaren legea da, eta gau ta egun Aren legea ausnartzen dau.
- ³ Ur-ertzean landatutako zugatzaren antzeko izango da: aldi egokian frutua dakar, eta aren orriak ez dira zimeltzen; eta egiten dauan edozer ondo jazoten da.
- ⁴ Ez orrela gaiztoak, ez orixel; aizeak daroan lastoa lez izango dira.
- ⁵ Ez dira gaiztoak Auzian zutunduko, ezta pekatariak be zintzoen batzarrean;

⁶ Jainkoak zintzoen bidea zaindu egiten dau-ta;
gaiztoen bidea, barriz, ondatu egiten da.

2. *Otseindu egizue Jauna bildurrez, gurtu egizue ikaraz.*

2

- ¹ Zetan diardue atzerriak zaratotsez,
eta erriak alperreko surrumurrutan?*
- ² Lurreko erregeak alkartu egiten dira,
buruzagiak Jaunaren
eta Onek Igurtzitakoaren kontra jagiten dira:
- ³ «Ausi dagiguzan Aren lokarriak,
jaurti dagigun Aren buztarria!».
- ⁴ Zeruetan bizi dan Arek irri-barre egiten dau,
Jaunak arein lepotik barre egiten dau.
- ⁵ Gero, asarratuta egiten dautse berba,
sumiñez ikaratzen dauz:
- ⁶ «Neuk jarri dot nire erregea
Sion'en, nire mendi santuan».
- ⁷ Jaunaren erabagia iragarriko dot:
Berak esan daust: «Zu neure Semea zara;
Neuk sortu zaitut gaur.»
- ⁸ Eskatu egidazu:
erriak oiñordekotzat emongo dautsudaz,
eta lurreko mugak zeuretzat.
- ⁹ Burdiñazko agintza-makillaz aginduko dautsezu,
eta buztin-ontzia lez ausiko dozuz».
- ¹⁰ Eta orain, erregeok, izan zaiteze sen oneko;
lurreko ebazleok, zeuon lepotik ikasi egizue:
- ¹¹ otseindu egizue Jauna bildurrez,
¹² gurtu egizue ikaraz;*
- asarratu ez daiten eta ondamendira joan ez zaitezen,

Aren sumiña bat-batean biztuten da-ta.
Zoriontsu, Aregan batzen diranak!

3. *Jagi zaitez, Jauna; onik atara nagizu, ene Jainko!*

3

- ² Nire arerioak bai ugari dirala, Jauna!,
nire kontra amaikatxo jagi dira!
- ³ Amaikatxok ba-diñoen nitzaz:
«Orain ez dau Jainkoak zaintzen».
- ⁴ Zu, ostera, Jauna,
neure aterpe ta aintza zara,
nire burua gora jasoten dozu.
- ⁵ Deadarka egiten ba'dautsat dei Jaunari,
Arek bere mendi santutik entzun egiten daust:
- ⁶ Etzun, lo egin eta iratzartu egin naiteke:
Jaunak custen daust.
- ⁷ Ez dautsat bildurrik izango
nire inguruan dagoan erri-talde ugariari.
- ⁸ Jagi zaitez, Jauna,
onik atara nagizu, ene Jainko!
Zuk nire arerioak matraillan jo zenduzan,
gaiztoen agiñak ausi egin zenduzan.
- ⁹ Zeugandik dator, Jauna, osasuna
ta onespena zure erriaren gaiñera.
4. *Jauna, zure izena bai ikusgarria lur guztian!*

8

- ² Jauna, gure jabe,
zure izena bai ikusgarria lur guztian!
Zeruen gaiñetik jaso zenduan zure aunditasuna.

- ³ Bularra artzen dabenen agotik atara zenduan gorapena zure arerioen kontra, arerioa ta biurria zigortzeko.*
- ⁴ Zure atzamarrak egindako zerua eta egin dozuzan illargia ta izarrak ikustean,
- ⁵ zer da gizona, onetzaz Zu gomutatzeko? zer gizakia, oni al-izatea emoteko?
- ⁶ Aingeruak baiño ozta-ozta txikiagoa egin zenduan, ospez eta argitasunez emon zeutsan koroia;
- ⁷ zure eskuak egindakoen jaun egin zenduan, dana jarri zenduan aren oiñazpian:
- ⁸ ardi ta zezen, baita basabereak be,
- ⁹ eguratseko egaztiak, itxasoko arraiñak, itxasoan zear hide-zidorrak egiten dabezanak.*
- ¹⁰ Jauna, gure jabe, zure izena bai ikusgarria lur guztian!

5. *Jauna aulkian dago jesarrita, zuzenbidez ebazteko.*

9

- ² Biotz-biotzez emoten dautsudaz eskerrak, Jauna, zure miragarri guztiak iragarririk;
- ³ Zeugan poztuten eta alaitzen naz, eta zeure izenaren omenez joten dodaz eresiak, Gorengo!
- ⁴ Nire arerioak atzeraka egin eben-eta, jausi ta ondatu egin ziran zure arpegiaren aurrean.
- ⁵ Neure auziaren eta zuzenbidearen alde egon zintzazan, ebazle zuzen lez zeure aulkian jesarrita.
- ⁶ Atzerritarrak zigortu, gaiztoa ondatu, eta beti-betiko ezereztu zenduan arein izena.

- ⁷ Arerioa betiko ondamendian galdu zan, arein uriak garbitu egin zenduzan, eta arein izena galdu egin zan.
- ⁸ Jainkoa betiko dago jesarrita epaitzeko ipiñi dauan aulkian.
- ⁹ Berak ebatziko dau lurra zuzentasunez, eta Berak aginduko dau artez errietan.
- ¹⁰ Bera izango da zapalduaren aterpe, arrisku-aldietan aren gordeleku.
- ¹¹ Zure izena ezagutzen dabena Zeugan ezarriko dabe ustea, billa dabilkizuzanak ez dozuz bertan-bera izten-eta.

6. *Jagi zaitetz, Jauna, ez begi gizonak irabazi.*

9

- ¹² Jo egizue Jaunaren omenez, Sion'en bizi da-ta; iragarri erriari Aren miragarriak;
- ¹³ odolaren ordaiña eskatzen dau, gogora ekarten dauz eta ez dauz aztuten errukarrien garrasiak.
- ¹⁴ Erruki, Jauna, begira zelan samintzen nabere nire arerioak;* jaso nagizu eriotz-atetik,
- ¹⁵ Sion'go atetan zeure gogorapenak iragarri daikedazan eta zeure laguntzaz poztu al naiten.
- ¹⁶ Eurak egin eben zuloan jausi dira erriak; arein oiña, eurak ezkututako sarean artuta gelditu zan.
- ¹⁷ Jauna zuzenbidea egiteko agertu zan, eta gaiztoa bere eskuak egindakoetan naastu zan.

- ¹⁸ Biurtu beitez gaizkilleak illobira,
Jainkoa aztuten daben erriak!
¹⁹ Ez dau Arek beartsua egundo aztuten,
errukariaren itxaropena be ez da galduko.
²⁰ Jagi zaitetz, Jauna, ez begi gizonak irabazi:
ebatziak izan beitez jentillak zure aurrean!
²¹ Isuri egiezu bildurra, Jauna,
jakin begie erriak gizon baiño ez dirana.

7. Zegaitik gelditzen zara urrun, Jauna?

9 B (Eberkerazko 10^ogarrena)

- ²² (1) Zegaitik gelditzen zara urrun, Jauna,
eta larrialdian ostendu?
²³ (2) Gaiztoaren aundikeriak gaisoa estutu egiten dau
eta arek asmatu dauzan azpikerietan naasten dau.
²⁴ (3) Gaiztoa bere naikeriz arrotzen da,
aundizaleak Jauna madarikatu ta gutxitzat artzen dau.
²⁵ (4) Gaiztoak auxe diño tentelkeriz:
«Ez da niri kontuak artuko daustazan Jainkorik».
²⁶ (5) Maltzurkeriak zikintzen dau beti aren egikera,
urrundu egiten dauz bere burutik zure erabagiak,
eta nor geiagoka diardu bere kontrakoen aurrean.
²⁷ (6) Auxe diño bere botzean: «Ez dot zirkiñik egingo,
ez naz egundo zoritxarreko izango».
²⁸ (7) Biraoz, guzurrez eta azpikeriz beteta dauko agoa;
gaiztakeria ta zapalkeria estaltzen dauz aren miiñiak;
²⁹ (8) ate-ondoan jesarten da zain,
errubagea ezkutuan ilteko.
Aren begiak adi-adi txiroagan;

- ³⁰ (9) leoia bere zuloan lez ezkutuan adi-adi,
gizajoari ostuteko zain,
bere sareetara eroanik;
³¹ (10) makurtu ta batu-batu egiten da,
laguntza-bagearen gaiñera jausten da indartsu.
³² (11) «Jainkoak aztu egin dau – diño bere biotzean –,
arpegia estaldu egiten dau, ezer ez ikusteko».

8. Jagi zaitetz, Jauna, luzatu zure esku ori.

9 (10)

- ³³ (12) Jagi zaitetz, Jauna, zabaldu zure esku ori,
ez egizuz apalak aztu:
³⁴ (13) zegaitik artzen dau gutxitzat Jainkoa gaiztoak?,
«ez daust konturik artuko» berekautan diñoala?
³⁵ (14) Zuk, barriz, ikusten dozuz samiñiak eta nekeak,
begiratu ta zeure eskuetan artzen dozuz.
Beartsuak Zeugan izten dau bere ardura,
Zeu zatorkioz lagun umezurtzari.
³⁶ (15) Ausi egiozu besoa dongeari,
artu egiozuz gaiztakerien kontuak,
eta ez dagiala lorratzik itxi.
³⁷ (16) Jauna errege izango da betiko,
eta jentillak garbituak izango dira Aren lurretik.
³⁸ (17) Zeuk entzuten dozuz, Jauna, apalen gurariak,
zure belarria arekana biurtu
eta sendotu egiten dozuz;
³⁹ (18) umezurtzaren eta laguntza-bagearen alde egiten dozu:
lurraz egindako gizonak
ez dagiala barrero bildurrik erein.

9. Jauna zuzena da, eta zuzenbidea maite dau.

10 (11)

- ¹ Jaunagana batzen naz;
zelan diraustazue:
«Iges egizu mendira, txoriak lez?»
² Izan be, gaiztoak euren uztaia estutzen diardue,
euren gezia arian atontzen diardue,
gerizpean zintzoen kontra jaurtiteko.
³ Oinarrriak lur-jota ba'dagoz,
zer egin daike zintzoak?»
⁴ Baiña, Jauna bere jauretxe santuan dago,
Jaunak zeruetan dauko bere aulkia:
ikusten dabe bere begiak,
betazalaz arakutzen dauz gizakiak.
⁵ Jaunak errubagea ta erruduna arakatu egiten dauz,
eta gorroto dautso indarkeria maite dauanari.
⁶ Txingar eta arlarun-euria jaurtiko dauz gaiztoen gaiñera,
eta ekaitz-aizea izango dabe ondorentzat.
⁷ Jauna zuzena da ta zuzenbidea maite dau-ta:
eta Aren arpegiak zintzoak ikusiko dabe.*

a) Gorapen-otoitzak (LAUDES I)

1. Aleluia. Jauna de errege, aunditasunez jantzita. Aleluia, aleluia.

92 (93)

- ¹ Jauna da errege, aunditasunez jantzita,
Jauna, jantzizat eta gerrikotzat indarrez beterik:

(2) Uztai = arco.

(6) Arlarun = azufre.

- alantxe dago sendo lurbira, alboraka egin bagarik.
² Sendo dago betidanik zure aulkia,*
eta Zu beti-betikoa zara.
³ Gora doa, Jauna,
gora doa ibaien abotsa,
gora doa arein zaratotsa;
⁴ baiña, ur aundien otsa baiño,
itxasoko olatuak baiño altsuago,
altsuago da Jauna zeruan.
⁵ Zure aginduak zintzoak eta ziurrak dira;
zure etxearen edertasuna, Jauna, santutasuna da
amaibagako egunetan.

2. Goratu egizu Jauna, lur oso orrek. Aleluia.

99 (100)

- ¹ Goratu egizue Jauna, lurtar guztiok,
² otseindu egizue Jauna poz-pozik,
sartu zaitetze goraka baten Aren aurrera.
³ Jakin egizue Jauna dana Jainko:
Berak egin gaituala ta Bereak garala,
Beraren erri ta artaldeko ardi.
⁴ Sartu zaitetze Aren atcetatik eskerrak emonez,
Aren aterpeetatik ereserkiz,
Ari eskerrak emonez eta Aren izena bedeinkatuez:
⁵ «Jauna ona da,
Aren errukiak beti irauten dau,
Aren zintzotasunak gizaldien-gizaldietan».

3. Nire bizitza guztian bedeinkatuko zaitut, eta zure izenari dei egiñez jasoko dodaz eskuak. Aleluia.

62 (63)

- 2 Ene Jainko, Zeu zara nire Jainko;
zeure billa nabil arduratan,
zeure egarri da nire arima;
zeure gurariz diardu nire aragiak,
lur legorraren, agortuaren, ur bagarikoaren antzera.
- 3 Ni bai zuri begira jauretxean,
zeure indarra ta aintza ikusiez!
- 4 Zure graziak bizitzak baiño geiago balio dau,
nire ezpanak goratu egingo zaitue.
- 5 Nire bizitza guztian bedeinkatuko zaitut,
zure izenari dei egiñez jasoko dodaz eskuak.
- 6 Koipez eta guriñez lez asetuko naz,
eta nire ezpanak poz-bitsetan goratuko zaitue.
- 7 Nire ogean Zeu ekarten zaitut gogora,
Zeu ausnartzen zaitut nire gaualdietan:
- 8 Zeu izan zintzazan nire laguntza-ta;
pozik abesten dot zure egapean;
- 9 nire arima zeuri lotuta dago,
eta zeure eskumak eusten daust.
- 10 Nire ondamentia billatzen diarduenak
lurpe sakonera jatsiko dira;
ezpatari emonak izango dira,
eta janarizat azeriai jaurtiak.
- 12 Eta erregea Jainkoagan poztuko da,
Aren izenagaitik zin egiten dabenak poztu egingo dira.
guzurtien agoa itxia izan daitenean.

4. Erregearen aginduz, iru gazteak labara jaurtiak izan ziran. Su-garrai bildurrik izan bagarik, auxe iñoen: «Bedeinkatua Jainkoa». Aleluia.

Iru gazteen abestia

(Daniel, 3)

- 51 Jaunaren izaki guztiok, bedeinkatu egizue Jauna,
goratu egizue gizaldietan ereserkiz.
- 55 Jaunaren aingeruok, bedeinkatu egizue Jauna,
56 zeruok, bedeinkatu egizue Jauna.
- 60 Zerupeko urok, bedeinkatu egizue Jauna.
- 61 Jaunaren gudarozteok, bedeinkatu egizue Jauna.
- 62 Eguzki-illargiok, bedeinkatu egizue Jauna.
- 63 ortziko izarrok, bedeinkatu egizue Jauna.
- 64 Euri ta iruntzok, bedeinkatu egizue Jauna,
65 aize guztiok, bedeinkatu egizue Jauna,
66 su ta berook, bedeinkatu egizue Jauna,
67 otz eta izotzok, bedeinkatu egizue Jauna.
- 68 Iruntz eta edurrok, bedeinkatu egizue Jauna,
69 karrakaldo ta izotzok, bedeinkatu egizue Jauna.
- 70 Zurdai ta edurrok, bedeinkatu egizue Jauna,
71 gau ta egunok, bedeinkatu egizue Jauna.
- 72 Argi ta illunok, bedeinkatu egizue Jauna,
73 oiñaztari ta odeiok, bedeinkatu egizue Jauna.
- 74 Bedeinkatu begi lurak Jauna,
goratu begi ereserkiz gizaldietan.
- 75 Mendi ta tontorrok, bedeinkatu egizue Jauna,
76 lurrean erneten dan edozek, bedeinkatu begi Jauna.
- 77 Iturburuok, bedeinkatu egizue Jauna,
78 itxaso ta ibaiok, bedeinkatu egizue Jauna.
- 79 Itxas-pisti ta arraiñok, bedeinkatu egizue Jauna,

- ⁸⁰ ortziko egaztiok, bedeinkatu egizue Jauna.
⁸¹ Pisti ta abereok, bedeinkatu egizue Jauna,
goratu egizue ereserkiz gizardietan.
⁸² Gizasemeok, bedeinkatu egizue Jauna,
bedeinkatu begi Israel'ek Jauna.
⁸³ Jaunaren abadeok, bedeinkatu egizue Jauna,
Jaunaren otseñok, bedeinkatu egizue Jauna.
⁸⁴ Arima ta gogo zintzook, bedeinkatu egizue Jauna,
⁸⁵ santu ta biotz-apalok, bedeinkatu egizue Jauna.
⁸⁶ Ananias, Azarias eta Misael, bedeinkatu egizue Jauna,
goratu egizue ereserkiz gizardietan.
Bedeinkatu daiguzan Aita ta Semea Espiritu Santuagaz,
goratu dagigun ereserkiz gizardietan.
⁹⁰ Bedeinkatua Jauna zeru-sabaian,
autortua ta goratua ta ospatua gizardietan.

5. *Goratu egizue Jauna zeruan. Aleluia, aleluia.*

148

- ¹ Aleluia!
Goratu egizue Jauna zeruan,
goratu egizue Jauna goian;
² goratu egizue, Aren aingeru guztiok,
goratu egizue, Aren gudarozte guztiok;
³ goratu egizue, eguzki ta illargi,
goratu egizue, izar diztiratsuok;
⁴ goratu egizue, zeru-zabalok,
eta zeruan dingilizka zagozen urok.
⁵ Goratu begie Jaunaren izena,
Aren aginduz izan ziran egiñak-eta;
⁶ Berak ezarri dauz betiko,
eta ausiko ez dan legea emon eutsen.

- ⁷ Goratu egizue Jauna lurrean,
itxas-abere ta itxas-sakonok;
⁸ oiñaztari ta txingor, edur eta laiño,
Aren aginduak beteten dozuzan aize biur orrek;
⁹ mendi ta mendi-besanga guztiok,
igali-zugatz eta zedruok;
¹⁰ pisti ta etxe-abereok,
¹¹ narrazzi ta egaz zabizen txoriok.
¹² Lurreko errege ta erri guztiok,
lurreko nagusi ta buruzagi guztiok;
¹³ mutillok, baita neskok be,
agurok umeakaz batera.
¹⁴ Goratu begie Jaunaren izena,
Aren izena bakarrik aundia.
Aren Aunditasuna zeru-lurren gaiñetik;
¹⁵ Berak aunditzen dau bere erriaren indarra.
Bere zintzo guztien gorapena,
bere erri eukeratua dan Israel'ena.
Aleluia!

Benedictus

(Lukas, 1)

- ⁶⁸ Bedeinkatua Israel'en Jainko Jauna,
bere erria ikusi ta erosi daualako,
⁶⁹ bere otsein Dabid'en etxean
osasun-indar bat sortzen dauskula;
⁷⁰ aspaldietarik bere profeta santuen agoz
aurretiaz iragarri ebanez.
⁷¹ Gure arerio ta gorrotatzaille guztien eskutik
askatzen gaituan osasuna da;

(9) Mendi-besanga = sierra, cordillera.

- ² gure gurasoai errukia izanik,
Bere alkartasun santua gogoraturik,
³ baita gure aita Abraham'i
egin eutsan zin au be
⁴ beteko euskula: bildur bagarik,
arerioen eskutik askatuta,
⁵ otseindu dagigula santutasunez eta zuzentasunez,
bere aurean, gure egun guztietan.
⁶ Eta zuri, umetxo orri,
Gorengoaren igarle egingo dautsue dei,
Jaunaren aurretik joango zara-ta,
Aren bideak atontzen,
⁷ Aren erriari osasuna iragarten,
arein pekatuen parkamena.
⁸ Gure Jainkoaren erruki maitatsuagaitik,
goitik jaioten dan eguzkiak egingo dausku ikustaldi bat,
⁹ illunetan eta eriotz-gerizpean
bizi diranai argi egiteko,
gure oinkadak bake-bidetik zuzentzeko.

Goizeko otoitza (PRIMA)

Aleluia. Emon egiozue eskerrak Jaunari, Aren errukia betikoa da-ta. Aleluia, aleluia.

a) 117

- ¹ Emon egiozue eskerrak Jaunari, ona da-ta,
Aren errukia beti-betikoa da-ta.
² Esan begi Israel'en etxeak:
betikoa da Aren errukia.

- ³ Esan begi Aaron'en etxeak:
betikoa da Aren errukia.
⁴ Esan begie Jaunaren zintzoak:
betikoa da Aren errukia.
⁵ Arriskuan Jaunari egin neutsan deadar,
eta entzun egin eustan, ni onik atararik.
⁶ Jauna neugaz dago: ez dot bildurrik;
zer egin al izango daust gizonak?
⁷ Jauna neugaz dago ta laguntza emoten daust,
nire arerioen ondamendia ikusiko dot.
⁸ Obe da ustea, gizonakan jartea baiño
Jaunaren aterpean egotea;
⁹ obe da, ustea nagusiakan jartea baiño
Jaunaren aterpean egotea.
¹⁰ Erri guztiak inguratzen nenduen,
Jaunaren izenean bazartu egin nebazan;
¹¹ estutu egiten nenduen inguruan,
Jaunaren izenean bazartu egin nebazan;
¹² erlamiñoak lez inguratzen nenduen,
sua sasia lez erreten zirala:
Jaunaren izenean bazartu egin nebazan.
¹³ Bultza ta bultza egiten eusten ni lurrera botateko,
baiña Jaunak lagun egin eustan;
¹⁴ Jauna da nire indarra ta adorea,
Bera da nire osasuna.
¹⁵ Entzun egizue: garaipen-abestiak dira
zintzoen txaboletan:
«Altsua da Jaunaren eskuma,
¹⁶ bikaiña da Jaunaren eskuma,
indartsua da Jaunaren eskuma».
¹⁷ Ez naz ilgo, Jaunaren arrigarriak
azaltzeko bizi izango naz.

- ¹² Zigortu, bai, Jaunak zigortu egin nenduan,
baïña eriotzara itxi ez.
- ¹⁰ Zabaldu egidazuez garaipenaren atek,
eta Jaunari eskerrak emoteko sartuko naz.
- ²³ Auxe da Jaunaren atea:
andixek sartuko dira irabazleak.
- ²¹ Eskerrak moten dautsudaz, entzun nenduzulako
eta neure osasun izan zintzazalako.
- ²² Etxegilleak baztartutako arria
orain giltzarri da.
- ²³ Jauna da ori egin dauana,
mirari argia da.*
- ²⁴ Jaunak egin eban eguna da au:
izan bedi gure poza ta gure atsegiña.*
- ²⁵ Emoiguzu osasuna, Jauna,
emoiguzu zoriona, Jauna.
- ²⁶ Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena,*
Jaunaren etxetik bedeinkatzen zaituegu;
- ²⁷ Jauna Jainko da, Berak argitzen gaitu.
Eratu egizue ibillaldi bat abarrakaz
altarearen ertzeraïño.
- ²⁸ Zeu zara nire Jainko, eskerrak moten dautsudaz,
ene Jainko, goratzen zaitut.
- ²⁹ Emon egiozuez eskerrak Jaunari, ona da-ta,
Aren errukia beti-betikoa da-ta.

b) *Jaietan, barriz,*

53 (54)

- ³ Atara nagizu onik, Jainko, zure izenagaitik,
egidazu zuzenbidea zure al-izateaz.
- ⁴ Entzun nire otoi-tza, Jainko,
aditu nire agoko herbak;

- ⁵ arro batzuk neure kontra jagi dira-ta;
sutsu be sutsu diardue gizon batzuek
nire biziaren kontra,
Jainkoa aurrean ezetarako be ez dabela.
- ⁶ Baïña, Jainkoa da nire laguntza,
Jaunak eusten dautso nire biziari.
- ⁷ Biurtu egiezu gaiztakeria nire arerioai
eta ondatu egizuz, zure egiagaitik.
- ⁸ Biotzez eskiñiko dautsut oparia,
zure izenari eskerrak emonez, ona da-ta;
arriskutik onik atara nenduzun-eta,
neure arerioen ondapena ikusi dot-eta.

118 (119)

- ¹ Bai zoriontsu, bizitza errubageaz,
Jaunaren naian dabillena!;
- ² bai zoriontsu, Aren aginduak gorderik,
biotz-biotzez Aren billa dabillena;
- ³ gaiztakeririk egin bagarik,
Aren zidorretatik dabillena;
- ⁴ Zeuk emon dozuz zure erabagiak,
zeatz-zeatz bete daitezcan;
- ⁵ egongo al da sendo nire bidea,
zure erabagiak beteteko!;
- ⁶ ez naz orduan lotsatuko
zure aginduak begiratzean;
- ⁷ biotz zintzoz goratuko zaitut,
zure agindu zuzenak ikasi dagidazanean;
- ⁸ zure legeak zeatz-zeatz nai dodaz bete:
ez nagizu Zuk bertan-bera itxi.
- ⁹ Zelan ibilli al izango ete-da gaztea garbi?
Zeure herbak beteaz;

- ¹ biotz-biotzez billatzen zaitut,
ez itxi zure aginduetatik okertu naiten;
¹ zure erabagiak neure biotzean gordeten dodaz,
ez dot olan zure kontra pekatu rik egingo;
¹² bedeinkatua zara, Jauna;
irakatsi egidazuz zure legeak;
¹³ nire ezpanak zure agoko aginduak
azaltzen diardue;
¹⁴ zeure erabagien bidea da nire poza,
aberastasun guztiak baiño aundiagoa;
¹⁵ zeure erabagiak ausnartzen dodaz,
eta zure zidorretara adi-adi nago;
¹⁶ zeure naia da nire poza,
ez dodaz zure berbak aztuko.

118 (119)

- ¹ On egiozu zure otsein oni: bizi izango naz
eta zeure berbak beteko dodaz;
¹⁶ zabaldu egidazuz nire begiak
eta zeure naimenaren arrigarriak ikusiko dodaz;
¹⁹ arrotz bat naz lurrean:
ez ezkutatu zure agintzariak;
²⁰ atzamatzen doa nire arima,
aldi oro Zeure aginduakanako egarriz;
²¹ arroai asarre egiten dautsezu,
madarikatuak zure aginduetatik aldentzen diranak;
²² urrundu nigandik iraiña eta destaiña,
Zeure aginduak betetzen dodaz-ta;
²³ aundikiak nire kontra
mormoxetan egiteko jesarri daitezanaarren,
zure otsein onek zeure legeak ausnartzen dauz;

- ²⁴ zeure aginduak dira nire atsegin,
zeure erabagiak dira nire onulari.
²⁵ Nire arim(e)a autsari itsasita dago:
bizkortu nagizu zure berbakaz;
²⁶ azaldu neutsun nire bidea, eta entzun egin nenduzun:
irakatsi egidazuz zure legeak;
²⁷ irakatsi nagizu zure aginduen bidean,
eta zeure arrigarriak ausnartuko dodaz;
²⁸ nire arima tristuraz negarrez dago,
bizkortu nagizu zure agintzariakaz;
²⁹ aldendu nagizu okerreko bidetik,
eta emoidazu zure naimenaren grazia;
³⁰ egi-bidea aukeratu neban,
zeure aginduak gura izan nebazan;
zeure erabagai lotu nintzakien,
Jauna, ez nagizu lotsatu;
³² zeure aginduen bidetik joango naz ariñeketan,
biotz au zabaldu daistazunean.

Goizerdiko otoitza (TERTIA)

Aleluia. Eroan nagizu, Jauna, zure aginduen bidetik. Aleluia, aleluia.

118 (119)

- ³¹ Erakutsi egidazu, Jauna, zure legeen bidea,
eta zearo jarraituko dautsat;
³⁴ irakatsi egidazu zure naia beteten,
eta biotz-biotzez gordeten;
³⁵ eroan nagizu zure aginduen zidorretik,
bera da nire atsegiña-ta;

- ²⁶ makurtu nire biotza zure aginduetara,
 eta ez diru-gosera;
²⁷ aldendu egizuz nire begiak uskerietatik,
 emoidazu bizia zure berbaz;
²⁸ bete egiozu zure otsein oni
 zure zintzoai egin zeutsen agintzaria;
²⁹ aldendu nigandik bildur dautsadan lotsa-gorria,
 zure aginduak maitagarri dira-ta;
³⁰ begira: zeure aginduen gurariz nago:
 emoidazu bizia zure zuzentasunaz.
³¹ Oratu daistala, Jauna, zure mesedeak,
 zure osasunak, zure agintzariaren eraz;
³² olan, erantzungo dautset iraintzen nabena,
 uste ona zeure berban dot-eta;
³³ ez kendu nire agotik egiazko berbak,
 nik zeure aginduetan itxaroten dot-eta;
³⁴ eten bagarik beteko dot zure naia,
 beti ta beti;
³⁵ bide zabaletik ibilliko naz,
 zure erabagien billa;
³⁶ erregeen aurrean azalduko dodaz zure aginduak,
 eta ez naz lotsatuko;
³⁷ gartsu maite dodazan zure aginduak
 izango dira nire atsegin;
³⁸ Zeugana jasoko dodaz nire eskuak,
 zeure aginduak esanez.

118 (119)

- ³⁹ Gogoratu egizu zure otsein oni emon zeutsan itza,
 eta aren bitartez biztu zeustan itxaropena;
⁴⁰ auxe dot aringarri nire saminaidian:
 zure agintzariak bizia emoten daustala;

- ⁴¹ tentelak eten-bagarik iraintzen nabe,
 baiña ni ez naz zure aginduetatik baztartzen;
⁴² zure antxiñako aginduak gogoan erabillirik,
 poztuta gelditu nintzan, Jauna;
⁴³ asarreak artu nenduan gaiztoen aurrean,
 zure naia bertan-bera izten dabenen aurrean;
⁴⁴ zure legeak abesti-gai yatazan,
 atzerrialdean;
⁴⁵ gabez zeure izena esaten dot, Jauna,
 eta iratzarrik, zeure aginduak;
⁴⁶ auxe da niri dagokidana:
 zeure erabagiak betetea.
⁴⁷ Jauna da nire zatia:
 zeure berbak betetea erabagi dot;
⁴⁸ biotz-biotzez billatzen dot zure laguntza:
 erruki zakidaz zure agintzariaren eraz;
⁴⁹ aztertu dot nire bidea,
 nire oñak zeure aginduetara zuzentzeko;
⁵⁰ arduraz, luzatu bagarik,
 zeure aginduak beteten dodaz;
⁵¹ gaiztoen lakioak inguratu egiten nabe,
 baiña ez dot zure naia aztuten;
⁵² gaberdian jagiten naz
 zure agindu zuzenakaitik Zuri eskerrak emoteko;
⁵³ zeure zintzoakaz batzen naz,
 zure aginduak beteten dabezanakaz;
⁵⁴ Jauna, lurra zure ontasunez beterik dago;
 irakatsi egizaduz zure legeak.

118 (119)

- ⁵⁵ Zure otsein oni ondasunak emon dautsazuz,
 Jauna, zure berbakaz;

- 62 irakatsi egidazu miazten eta ulertzen,
ba-dot ustea zure eginduetan-eta;
- 63 nekeak aurretik, bidea galduta nēnbillen;
orain, barriz, zeure agintzariari lotzen nakio;
- 64 Zu ona zara ta ona dana egiten dozu;
irakatsi nagizu zure legeetan;
- 65 tentelak iruzurka diardue nire kontra,
nik, barriz, zeure legeak zaintzen dodaz;
- 66 koipea lez gizendu yake biotza;
nik, barriz, zeure naian dot nire atsegiña;
- 67 ondo etorri yatan nekaldia,
alantxe ikasi nebazan zure aginduak;
- 68 millaka urrezko ta zidarrezko diru baiño
obeak dira niretzat zure agoko aginduak.
- 69 Zeure eskuak egin eta eratu nenduen:
irakatsi nagizu, zeure aginduak ikasi dagidazan;
- 70 zure zintzoak pozik ikusiko dabe
zeure berban itxaron nebana;
- 71 ba-dakit, Jauna, zure aginduak zuzenak dirana,
eta Zuk bidez samindu nenduzuna;
- 72 poztu nagiala zure ontasanak,
zure morroi oni agindu zeutsanez;
- 73 zure errukia etorri dakidanean, bizi izango naz,
eta zeure naia izango yat atsegin betea;
- 74 lotsatu daitezala tentelak niri egiten dausten kalteagaitik,
nik zeure erabagiak ausnartuko dodaz;
- 75 biurtu beitez nigana zure zintzoak,
zure aginduak arduraz artzen dabezanak;
- 76 izan bedi bikain-bikaiña nire biotza zure legeetan:
olan, ez naz lotsatuta geldituko.

Eguerdiko otoitza (SEXTA)

Aleluia. Ni zeurea naz; onik atara nagizu, Jauna. Aleluia, aleluia.

118 (119)

- 81 Erreten nago zure osasuna gura-ta,
eta zeure berban dot itxaropena;
- 82 erreten daukadaz begiak zure agintzarien guraz:
noz poztuko nozu?, diñodan artean.
- 83 Zaragia ketan lez nago,
baiña ez dodaz zure legeak aztuten;
- 84 zenbat izango dira zure morroi onen egunak?
noiz egingo dautsezu auzia nire erasotzailleai?
- 85 Tentelak zuloak egin daustez,
zure naiaren barririk ez dabela;
- 86 zintzoak dira zure agindu guztiak,
bidebagez narabille aurrean: lagun zakidaz;
- 87 illobira eroateko zorian euki nabe;
nik, barriz, ez nebazan zure erabagiak bertan-bera itxi,
zeure ontasanagaitik, emoidazu bizia,
zeure agoko aginduak bete dagidazan.
- 89 Beti-betikoa da, Jauna, zure itza,
zerua baiño iraunkorragoa;
- 90 zure zintzotasuna gizaldiz-gizaldi,
lurra egin zenduan ez bertan dagoanez;
- 91 zeure aginduaren indarrez irauten dabe gaur arte,
guztia zeure otseintzarako dago-ta;
- 92 zure naia nire poza ez ba'litz,
galdu izango nintzakean onezkero nire zoritxarrean;

- ⁹² ez dodaz egundo zure erabagiak aztuko,
 euron bidez emon zeustan bizia-ta;
⁹⁴ zeurea naz, onik atara nagizu,
 zeure billa nabil-eta;
⁹⁵ zain neukazan gaitztoak ni galtzeko;
 nik, barriz, zeure erabagiak ausnartzen nebazan;
⁹⁶ bikain danaren muga ikusi dot,
 zure aginduak ez dauko azken-mugarik.

118 (119)

- ⁹⁷ Nik bai maite zure naia!
 egun osoan gogoan darabilt;
⁹⁸ zure aginduak nire arerioak baiño jakintsuago egiten
 beti dot lagun; [Inau;
⁹⁹ nire irakasle guztiak baiño jakintsuagoa naz,
 zeure aginduak ausnartzen dodaz-ta;
¹⁰⁰ agurak baiño zuurragoa naz,
 zeure legeak betetzen dodaz-ta;
¹⁰¹ bide txar guztitik aldentzen dot nire oiña,
 zeure itza gordeteko;
¹⁰² ez naz zure aginduetatik urruntzen,
 Zeuk irakatsi nozu-ta;
¹⁰³ zure agintzaria bai gozoa ago-sabaiarentzat!
 agoan ezta baiño geiago;
¹⁰⁴ zeure erabagiak darabildaz buruan,
 eta bide guzurtiari gorroto dautsat.
¹⁰⁵ Argi-ontzia da zure itza nire oiñentzat,
 argia nire bidean;
¹⁰⁶ zin egiten dot eta beteko dot:
 beteko dodaz zure agindu zuzenak.

- ¹⁰⁷ Ni bai saminduta, Jauna!
 emoidazu bizia zure agintzariaren eraz;
¹⁰⁸ onartu egizuz, Jauna, diñodazan zin-eskintzak,
 irakatsi egidazuz zure aginduak;
¹⁰⁹ nire bizia arriskuan dago,
 baiña ez dot zure naia aztuten;
¹¹⁰ gaitztoak lakioa jarri eusten,
 baiña ez nintzan zure erabagietatik okertu;
¹¹¹ zeure aginduak dira nire betiko oiñordekotasun,
 nire biotzaren poza;
¹¹² nire biotza zeure legeak betetzera makurtzen dot,
 beti ta zearo.

118 (119)

- ¹¹³ Biotz biko gizonari gorrotoa dautsat,
 eta zeure naia maite dot;
¹¹⁴ Zeu zara nire igesleku ta aterpe,
 nik zeure berban dot ustea;
¹¹⁵ urrundu nigandik, gaitztook,
 eta zeure aginduak beteko dodaz, ene Jainko;
¹¹⁶ eutsi egidazu zure agintzariaz, eta bizi izango naz,
 ez daitela ustelduta gelditu nire itzaropena;
¹¹⁷ lagun zakidaz eta onik egongo naz,
 zeure legeai begira egongo naz eten-bagarik;
¹¹⁸ zure erabagietatik okertzen diranak baztartu egiten do-
 arein asmoak iruzur dira; [zuz,
¹¹⁹ zaborreritzat daukazuz gaitztoak,
 orregaitik zeure aginduak maite dodaz;
¹²⁰ ikara yabilt aragia Zuganako bildurraz,
 eta lotsa dautset zure agindui.

- ¹²¹ Zuzen eta bidezko dana egiten dot,
ez nagizu nire aspiratzaileen eskuetan itxi;
¹²² erantzun egizu zure morroi onen alde,
ez nagiola tentelak estutu;
¹²³ erreten daukadaz begiak
zure osanaren eta zure agintzari zuzenaren zain;
¹²⁴ errukitsu erabili egizu zure morroi au,
irakatsi egidazuz zure legeak;
¹²⁵ zeure morroi naz: argitu egidazu adimena,
eta ezagutuko dodaz zure aginduak;
¹²⁶ zeure ekiñaldia da, Jauna:
ausi egin dabe zure naia;
¹²⁷ nik zeure aginduak maite dodaz,
urre uts-utsa baiño geiago;
¹²⁸ orregaitik, ontzat artzen dodaz zure erabagiak,
eta guzur-bidea iguindu egiten dot.

Bezerdiko otoitza (NONA)

*Aleluia. Erakutsi dizdiz zure arpegia zure morroi oni.
Aleluia, aleluia.*

118 (119)

- ¹²⁹ Zure aginduak arrigarriak dira,
orregaitik nire arimak bete egiten dauz;
¹³⁰ zure berben azalpenak argitu egiten dau,
ez-ikasiai adimena emoten dautse;
¹³¹ agoa zabaldu ta arnasa artzen dot
zure aginduak gura izanez;

- ¹³² biurtu zaitetz nigana ta erruki zakidaz,
zeure izena maite dabenai egiten dautsezunez;
¹³³ sendotu egizuz nire oiñak zure agintzariak,
ez nagiala iñungo dongakerik menperatu;
¹³⁴ atara nagizu gizonen esturatik,
eta zeure aginduak beteko dodaz;
¹³⁵ erakutsi zure arpegia dizdiz zure morroi oni,
irakatsi egidazuz zure legeak;
¹³⁶ malko-errekak darie nire begiai,
zure naia beteten ez dabenakaitik.
¹³⁷ Jauna, zuzena zara Zu,
zure aginduak zuzenak dira;
¹³⁸ lege zuzenak ezarri dozuz,
gutziz sendoak;
¹³⁹ erreten nauko nire ardur(e)ak,
nire arerioak zure berbak aztu egiten dabez-ta;
¹⁴⁰ oso garbia da zure agintzaria,
eta zure morroi onek maite egiten dau;
¹⁴¹ txiki eta iguingarria naz,
baiña ez dodaz zure erabagiak aztuten;
¹⁴² zure zuzentasuna betiko zuzentasuna da,
zure naia egiazkoa;
¹⁴³ estu ta larriak eraso egiten nabe,
zure aginduak nire atsegin dira;
¹⁴⁴ zure aginduen zuzentasuna betikoa da,
argitu egidazu adimena ta bizi izango naz.

118 (119)

- ¹⁴⁵ Biotz-biotzez egiten dautsut dei:
erantzun egidazu, Jauna, eta beteko dodaz zure legeak;
¹⁴⁶ Zeuri egiten dautsut deadar: onik atara nagizu,
eta beteko dodaz zure erabagiak;

- 1⁴⁷ eguntsentiari aurea artzen dausat laguntza-eske,
 zure berben zain;
 1⁴⁸ gaudiari aurea artzen dautsoe nire begiak,
 zure agintzaria ausnartuez;
 1⁴⁹ entzun egizu nire abotsa, zeure errukiz;
 emoidazu bizia zure aginduakaz;
 1⁵⁰ ba-datoz urrera nire erasotzaille gaiztoak,
 zure zure naitik urrun dira;
 1⁵¹ Zu, Jauna, ur zagoz,
 eta zure agindu guztiak sendoak dira;
 1⁵² aspaldian ulertu neban
 zure aginduak betiko ezarri zenduzala.
 1⁵³ Begira nire samina ta askatu nagizu,
 ez dot zure naia aztuten-eta;
 1⁵⁴ zaindu nire auzia, eta onik atara nagizu,
 emoidazu bizia zure agintzariak;
 1⁵⁵ zuzentasuna dongakandik urrun dago,
 zeure legeen billa ez dabizanakandik;
 1⁵⁶ aundia da, Jauna, zure samurtasuna,
 emoidazu bizia zure aginduakaz;
 1⁵⁷ asko dira aurean narabillen arerioak,
 baiña nik ez dot zure aginduetatik alde egiten;
 1⁵⁸ iguin izaten neban ukatzaileak ikusirik,
 ez dabez zure aginduak beteten-eta;
 1⁵⁹ begira ni, zure aginduak maitatzen;
 emoidazu bizia, Jauna, zeure errukiz;
 1⁶⁰ zure itzaren mamina egia da,
 eta zure erabagi zuzenak beti-betikoak dira.

118 (119)

- 1⁶¹ Aundikiak bidebagez nerabillen aurean,
 baiña nire biotzak lotsa eutsen zure berbai;

- 1⁶² ni poztu egiten nintzan zure agintzariak,
 arrapakin aberatsa aurkitzen dauanaren antzera;
 1⁶³ iguin eta gorroto dausat guzurri,
 eta zeure naia maite dot;
 1⁶⁴ zazpi aldiz goratzen zaitut egunean,
 zure agindu zuzenakaitik;
 1⁶⁵ bake aundia dauke zure legeak maite dabezanak,
 eta ez dautse ezek laban eragiten;
 1⁶⁶ zure osasunaren zain nago, Jauna,
 eta beteten dodaz zure aginduak;
 1⁶⁷ beteten dauz nire arim(e)ak zure aginduak,
 eta gartsu maite dodaz;
 1⁶⁸ beteten dodaz zure erabagiak,
 eta zeure aurean dagoz nire bideak.
 1⁶⁹ Eldu dadilla nire deadarra zure aurrera,
 Jauna, argitu egidazu adimena zure berbakaz;
 1⁷⁰ eldu dadilla Zuanaiño nire eskaria,
 askatu nagizu zure agintzariaren negurrira;
 1⁷¹ nire ezpanai gorapena darie,
 zeure legeak irakatsi zeustazan-eta;
 1⁷² nire miiñak zeure zintotasuna iragarten dau,
 zure agindu guztiak zuzenak dira-ta;
 1⁷³ lagun dakidala zure eskua,
 zeure aginduak aukeratu dodaz-ta;
 1⁷⁴ Zugandiko osasuna gura dot gartsu, Jauna;
 zeure naia da nire atsegiña;
 1⁷⁵ nire arima Zeu goratzeko bizi dadilla,
 lagun dakidazala zure aginduak;
 1⁷⁶ ardi galdua lez okertu nintzan:
 billatu egizu morroi au,
 ez dodaz zure aginduak aztuten-eta.

Arrats-otoitza (BEZPERAK)

1. *Jaunak nire Jaunari auxe esan eutsan; Jesarri zaitez nire eskumaldean.*

109 (110)

- ¹ Jaunak nire Jaunari auxe esan eutsan:
«Jesarri zaitez nire eskumaldean,
eta zure arerioak zeure oiñazpiko egingo dodaz».
- ² Sion'dik zabalduko dau Jaunak
zure aginpide-makillaren indarra;
azpiratu egizuz gudaketan zure arerioak.
- ³ «Aundikia zara jaiotegunetik, dirdira santu artean;
neuk sortu zendudazan, iruntza lez,
egunsentia baiño len».
- ⁴ Jaunak zin egin dau eta ez da garbatzen:
«Beti-betiko zara zu abade,
Melkisedek'en arauz».
- ⁵ Jauna zeure eskumaldean, bere asarre-egunean:
ausi egingo dauz erregeak;
- ⁶ errien kontra ebatziko dau,
gorpuak pillatuko,
eta buru-azurrak ausi egingo dauz
lur zabalean zear.
- ⁷ Bidean doala, errekan edango dau ura;
orrexegaitik jasoko dau burua.

2. *Aundiak dira Jaunaren lanak; maite dabezan guztientzat aztergarri.*

110 (111)

- ¹ Aleluia!
Biotz-biotzez emoten dautsada eskerrak Jaunari,
zintzoen lagunartean, batzarrean.
- ² Aundiak dira Jaunaren lanak,
maite dabezan guztientzat aztergarri.
- ³ Argitasuna ta edertasuna da Aren lana,
Aren eskuzabalak beti irauten dau;
- ⁴ mirari gomutagarriak egin dauz,
Jauna biozpera ta biotz-bigun da:
- ⁵ Bere zintzoai janaria emoten dautse,
bere alkartasuna beti gogoan dauala.
- ⁶ Bere egiñen indarra erakutsi eutsan bere erriari,
arei jentillen soloa emonik.
- ⁷ Zuzentasuna ta egia dira Aren eskuen lanak,
Aren agindu guztiak ustetsu artu daitekez:
- ⁸ sendo dagoz beti-betiko,
benetan eta zuzen beteko dira.
- ⁹ Brospena bialdu eutsan bere erriari,
betiko ezarri dau bere alkartasuna:
Aren izena santua ta bildurgarria da.
- ¹⁰ Jaunaganako bildurra jakituriaren asikiña da,
zuur diardue a beteten dabenak;
Jaunaren gorapenak beti irauten dau.

3. *Jaunari bildur dautsarak, biotzez maite dauz Aren aginduak.*

111 (112)

- ¹ Aleluia!
Zoriontsu Jaunaren bildur dana
eta Aren aginduak biotzez maite dauzana!
- ² Altsua izango da lurrean aren jatorrikoa,
zintzoaren ondorengoak bedeinkatuak izango dira.
- ³ Aberastasunak eta ondasunak izango dira aren etxean,
aren goi-maitasuna beti bat, iraunkor.
- ⁴ Zintzoa danak, argiak lez egiten dau dizdiz,
biotz-bigun eta errukior.
- ⁵ Zoriontsua, errukitu ta emon egiten dauana,
eta bere arazoak artez eroaten dauzana!
- ⁶ Zintzoa ez da egundo alboraka ibiliko,
aren gomutapenak beti iraungo dau.
- ⁷ Barri txarrai ez dautse bildurrik izango,
aren biotza sendo dago Jaunagan.
- ⁸ Nasai dauko biotza, bildur bagarik,
bere arerioak ondatuta ikusi arte.
- ⁹ Beartsuai limosna emoten dautse,
aren goi-maitasuna beti bat, iraunkor,
eta ospez jasoten dau arpegia.
- ¹⁰ Ori ikustean, gaiztoa sumindu egingo da,
agin-karraska asiko da, igartu arte.
Gaiztoaren lar-gur(e)ak uts egingo dau.

4. *Bedeinkatua Jaunaren izena, orain eta beti.*

112 (113)

- ¹ Aleluia!
Goratu egizue, Jaunaren otseiñok,
goratu egizue Jaunaren izena!
 - ² Bedeinkatu Jaunaren izena,
orain eta beti:
 - ³ eguzki-agertzetik aren sartzeraiño,
bedeinkatua izan dadilla Jaunaren izena.
 - ⁴ Jauna erri guztien gainetik jagiten da,
Aren aintza zeruaren gainean.
 - ⁵ Nor, bere aulkian jagiten dan
gure Jainko Jauna lakorik?
eta zerua ta lurra begiratzera
beeratzen dana lakorik?
 - ⁷ Beartsua autsetik gora jasoten dau,
txiroa satsetik gora jasoten dau,
⁶ nagusiakaz jesarri dagian,
bere erriaren nagusiakaz;
 - ⁹ sabel-agorrari arazoa emoten dautso etxean,
semeen ama zoriontsu lez.
Aleluia!
5. *Gure Jainkoa zeruan dago; eta nai dauana, egin egi-
ten dau.*

113 (114-115)

- ¹ Israel Ejipto'tik urten zanean,
Jakob'en semeak, erbestetik,
- ² Juda izan zan arein jauretxea,
Israel izan zan arein etxaldea.

- ² Areik ikustean, itxasoak iges egin eban,
Jordan'ek atzeraka egin eban;
- ⁴ mendiak triska egin eben adarien antzera,
eta menditxoak, bildotsen antzera.
- ⁵ Zer dala-ta zoaz igesi, itxaso?,
eta zu, Jordan, zegaitik atzeraka?
- ⁶ zegaitik egin triska, mendiok, adariak lez?,
zegaitik diarduzue saltoka, bildotsak lez?
- ⁷ Lurra ikaraka asten da Jaunaren aurrean,
Jakob'en Jainkoaren aurrean:
- ⁸ atxa urtegi biurtzen dau,
sukarria iturburu.
- ⁹ (1) Ez guri, Jauna, ez guri,
zeure izenari emon aintza:
zeure ontasanagaitik, zeure zintzotasunagaitik.
- ¹⁰ (2) Zegaitik esan bear dabe atzerriak:
«Nun dago orrein Jainkoa?»
- ¹¹ (3) Gure Jainkoa zeruan dago;
nai dauana, egin egiten dau.
- ¹² (4) Arein jainko-irudiak, ostera, zidar eta urre dira,
gizonen eskuak egindakoak;
- ¹³ (5) agoa bai, eta berbarik ez,
begiak bai, eta ez dabe ikusten;
- ¹⁴ (6) belarriak bai, eta ez dabe entzuten,
suurra bai, eta ez dabe usainik artzen;
- ¹⁵ (7) eskuak bai, eta ez dabe ikutzen,
oiñak bai, eta ez dira ibilten,
ez dabe abotsik iztarrian.
- ¹⁶ (8) Izan daitezala orrein antzeko
orreik egiten dabezanak,
ustea orreitan jarten dabenak.

(4) Triska = salto.

- ¹⁷ (9) Israel'ek Jaunagan itxaroten dau:
Bera da aren laguntza ta gordeleku.
- ¹⁸ (10) Aaron'en etxeak Jaunagan itxaroten dau:
Bera da aren laguntza ta gordeleku;
- ¹⁹ (11) Jaunaren zintzoak Jaunagan itxaroten dabe:
Bera da arein laguntza ta gordeleku.
- ²⁰ (12) Jaunak gogoan izan eta bedeinkatu gagizala,
bedeinkatu dagiala Israel'en etxea,
bedeinkatu dagiala Aaron'en etxea;
- ²¹ (13) bedeinkatu dagizala Jaunaren zintzoak,
aundi ta txiki.
- ²² (14) Ugaritu zagiezela Jaunak,
zuek eta zuen semeak;
- ²³ (15) bedeinkatu zagiezela Jaunak,
zeru-lurrak egin ebazanak.
- ²⁴ (16) Zerua Jaunarena da,
lurra gizonai emon dautse.
- ²⁵ (17) Ildakoak ez dabe Jauna goratzen,
ezta ixillera jatsiten diranak be.
- ²⁵ (18) Guk, bai, guk Jauna bedeinkatuko dogu,
orain eta beti.
Aleluia!

Magnificat

(Lukas, 1)

- ⁴⁶ Nire arim(e)ak Jaunaren aunditasuna iragarten dau,
⁴⁷ nire gogoa Jainko nire Salbatzailleagan poztuten da;
⁴⁸ bere mirabe onen apaltasuna begiratu dau-ta.
Aurrerantzean, gizaldi guztiak
zorian-agurrak emongo daustez.

- ⁴⁹ Altsuak nire alde arrigarriak egin dauz-ta:
Aren izena Santua da,
⁵⁰ eta Aren errukia gizaldiz-gizaldi
eltzen da Aren zintzoakana.
⁵¹ Arrigarriak egiten dauz bere besoaz:
biotz-arroak sakabanatu,
⁵² altsuak aulkitik bota
eta apalak jaso egiten dauz;
⁵³ gose diranak ondasunez bete
eta aberatsak esku-utsik bialtzen dauz.
⁵⁴ Bere otsein Israel'i laguntza emoten dautso,
errukia gogora ekarririk
⁵⁵ —gure gurasoai agindu izan eutsenez—
Abraham'en eta onen ondorengoen alde, betiko.

Illuntzeko otoitza (AD COMPLETORIUM)

Erruki zakidaz, Jauna, eta entzun nire otoitza.

4

- ² Entzun nagizu, nire Jainko laguntzaille orrek,
dei egiten dautsudanean,
larrialdian onik ataraten nozun Orrek:
erruki zakidaz eta entzun nire otoitza.
³ Eta zuok, noiz arte baztartuko dozue nire izen ona?
noiz arte maitatuko dozue
maltzurkeria ta billatuko guzurra?*
- ⁴ Jakin egizue: Jaunak mirariak egin ebazan nire alde,
eta nik Ari dei egin dagiodanean,
Jaunak entzun egingo daust.

- ⁵ Ikaratu zaitzeze, eta ez egin pekaturik;
ausnartu egizue zuen barruan;
⁶ eskiñi opari jatorrak,
eta Jaunagan itxaron.
⁷ «Nok erakutsiko dauSKU zorionik —diñoce askok—,
zure arpegiaren argiak gugandik iges egin ba'dau?».
⁸ Gari ta ardaoa ugari daukadazanean baiño
poz aundiagoa emon daustazu Zuk biotzean, Jauna.
⁹ Bakean joaten naz ogera,
eta berealaxe artzen nau loak:
izan be, Zeuk bakarrik, Jaun orrek,
emoten daustazu nasai bizi izateko indarra.

90 (91)

- ¹ Gorengoaren aterpean zagozan orrek,
gutziz Altsuaren gerizpean bizi zarean orrek,
² esaiozu Jaunari: «Nire gordeleku, nire gaztelu,
nire Jainko, Zeugan itxaroten dot».
³ Berak atarako zaitu eiztariaren saretik,
izurri txarretik.
⁴ Bere lumakaz estalduko zaitu,
Aren egoean gordeko zara,
Aren besoa babeskin eta guda-jantzia da.
⁵ Ez zaitu ikaratuko gabeko bildurrak,
ezta egunez egaz doan geziak be,
⁶ ezta illunpetan ziri-ziri doan izurriak be,
ezta eguerdiko geiso galgarriak be.
⁷ Milla jausiko dira zure ezkerrekaldean,
amar milla zure eskumaldean:
zu ez zaitu artuko.

(3) Eiztari = cazador. Izurri = peste.

- ⁸ Zeure begiakaz begiratu orduko,
gaiztoen ordaiña ikusiko dozu,
⁹ zure gordeleku Jauna egin zenduan-eta,
zure alde Gorengoa artu zenduan-eta.
¹⁰ Ez yatzu zoritxarrik urreratuko,
ezta gatxik zure txabolaraiño elduko be,
¹¹ zure bideetan zaindu zagiezala
agindu dautse bere aingeruai-ta;
¹² euren eskuetan eroango zaitue,
zure oiñak arrian laban egin ez dagian;
¹³ suge ta larrasuge gainean ibiliko zara,
leoiak eta piztitzarrak zapaldu egingo dozuz.
¹⁴ «Neure ondoan jarri zan: onik atarako dot;
neure izena ezagutzen daualako zainduko dot;
dei egingo daust eta Nik entzun egingo dautsat».
¹⁵ Beragaz egongo naz estualdian,
gorde ta gora jasoko dot;
¹⁶ egun luzez beteko dot,
eta neure osasuna erakutsiko dautsat.

133 (134)

- ¹ Eta orain, bedeinkatu egizue Jauna,
Jaunaren otseñok,
gaba Jaunaren etxean
igaroten dozuenok;
² jaso egizuez eskuak jauretzeruntz,
eta bedeinkatu egizue Jauna.
³ Bedeinkatu zagizala Jaunak Sion'dik:
zeru-lurrak egin ebazanak.

*Onik atara gägizuz, Jauna, iratzarrik gaualdian gagozala;
lagun zakiguz lo gagozala, Kristo'gan iratzartu gaiter-
zan eta bakean atsedena artu dagigun.*

Nunc dimittis

(Lukas 2, 29-32)

- ²⁹ Orain, bai, itxi daikeozu, Jauna,
zure otsein oni bakean joaten,
berba emon zeutsanez;
³⁰ ikusi dabe nire begiok Zugandiko Salbatzaillea-ta,
³¹ erri guztien aurrean agertu dozuna;
³² atzerriak argitzeko argia
eta zure erri Israel'en aintza.

b) **Bigarren Gorapen-otoitzak (LAUDES II)**

(Eresi-aurrekoak: Domeka baktoxari dagokiozanak.)

50 (51)

- ³ Erruki, ene Jainko, zure ontasunagaitik,
garbitu nire errua zure erruki aundiagaitik.
⁴ Kendu zearo nire dongakeria,
garbitu nire pekatua.
⁵ Ezagutzen dot, bai, nire gaiztakeria-ta,
nire pekatua beti neure aurrean daukat.

- ⁶ Zeure kontra, zeure kontra bakarrik egin dot pekatu,
Zuk iguintzen dozun gaiztakeria.
Zuzena izango zara epaia emotean,
errubagea izango zara ebaztean.
- ⁷ Begira: errudun jaio nintzan,
nire amak pekatari sortu nenduan.
- ⁸ Biotz zintzoa atsegin yatzu,
eta nire barruan jakituria irakasten daustazu.
- ⁹ Itze-bedarraz busti nagizu: garbi geldituko naz;
garbitu nagizu,
eta edurra baiño zuriago geldituko naz.
- ¹⁰ Entzun-azo niri atsegiña ta poza,
alaitu bediz azur ausiok.
- ¹¹ Aldendu zure arpegia nire pekatutik,
garbitu nire pekatu guztiak.
- ¹² Egin nigan, Jainko, biotz garbi bat,
barriztu nire barruan gogo sendo bat;
- ¹³ ez nagizu jaurti zure arpegitik urrun,
ez egidazu kendu zure arnasa santua;
- ¹⁴ biurtu egidazu zure osasun-poza,
sendotu nagizu zintzotasun-arnasaz.
- ¹⁵ Gaiztoai zeure bideak erakutsiko dautsedaz,
pekatariak Zeugana biurtuko dira.
- ¹⁶ Odoletik atara nagizu, Jainko,
ene Jainko, nire Salbatzaille orrek!,
eta nire miiñak zeure zuzentasuna abestuko dau.
- ¹⁷ Jauna, nire ezpanok zabaldu egingo dozuz,
eta nire agoak zeure gorapena iragarriko dau.
- ¹⁸ Ez dozu oparirik atsegiñez ikusten;
erre-oparirik eskiñi ba'negizu,
ez zeuke onartuko.

(9) Itze-bedar = hisopo (bedarra).

- ¹⁷ Nire oparia gogo damutua da;
biotz damutua ta apala ez dozu baztartzan Zuk.
- ²⁰ Lagun zakioz Sion'i, Jauna, zure ontasunagaitik,
barriztu egizuz Jerusalem'go arresiak:
- ²¹ orduantxe onartuko dozuz opari jatorrak,
eskintzak eta erre-opariak,
orduantxe eskiñiko yatzuz zekorrak
zure altara-gaiñean.

117 (118)

Emon egiozuez eskerrak Jaunari: 16 orri.

62 (63)

Ene Jainko, Zeu zara nire Jainko: 12 orri.

Iru gazteen abestia

(Daniel, 3)


- ⁵² Bedeinkatua zara, Jauna, gure gurasoen Jainko ori,
zeuri aintza ta gorapena gizaldietan.
Bedeinkatua zure izen santu ta goragarria,
Berari aintza ta gorapena gizaldietan.
- ⁵³ Bedeinkatua zara zure jauretxe santu-ospatsuan,
zeuri aintza ta gorapena gizaldietan.
- ⁵⁴ Bedeinkatua zara zure erreñuko aulkian,
zeuri aintza ta gorapena gizaldietan.
- ⁵⁵ Bedeinkatua zara Zu, kerubiñen gaiñetik jesarrita,
lezak aztertzen dozuzan Ori,
zeuri aintza ta gorapena gizaldietan.

- ⁵⁶ Bedeinkatua zara zeru-sabaian.
zeuri aintza ta gorapena gizardietan.
- ⁵⁷ Jaunaren izaki guztiok, bedeinkatu egizue Jauna,
goratu egizue ereserkiz gizardietan.

148

Goratu egizue Jauna zeruan: 14 orri.

«Benedictus»: 15 orri.



ASTELENETAN

Goizaldeko otoitzak (MAITIÑAK)

1. Jauna zerutik Adan'en semeakanuntz begira dago.

13 (14)

- ¹ Zoroak auxe diño berekautan: «Ez da Jainkorik!»
ustelduta, jokaera gorrotagarridunak,
on egin dagianik bat be ez dago.
- ² Jauna zerutik Adan'en semeakanuntz begira dago,
zentzundun bat dagoan ikusteko,
Jainkoaren billa ibilli daiten norbait.
- ³ Guztiak batera bidea galduta dabiz,
ez dago ona egin dagianik bat be, bat bera be ez.
- ⁴ Ez ete-dabe, baiña, gaizkilleak ikusiko,
nire erria ogia lez jaten dabena,
eta ez dautsoena Jaunari dei egiten?
- ⁵ Lauorrian ikaraz egongo dira, ba,*
Jauna zintzoagaz dago-ta.
- ⁶ Zuek errukarriaren asmoai irri ta barre egin dautsezue,
baiña Jauna da aren gordelekua.
- ⁷ Etorriko al da Sion'dik Israel'go osasuna!

Jaunak bere erriaren zoria aldatu dagianean,
Jakob poztu egingo da, eta Israel atsegindu egingo da.

2. *Zuzenbidea egiten dauana, Jauna, zeure mendi santuan bizi izango da.*

14 (15)

- ¹ Jauna, nor egongo da ostatuz zure txabolan?
Nor bizi izango da zure mendi santuan?
 - ² Orban bagarik bizi dana,
eta zuzentasuna egiten dauana,
asmo zintzoak daukazana,
 - ³ eta bere miñaz guzur baltzik ez diñoana;
bere lagun-urkoari kalterik egiten ez daukana,
baita auzokoa lotsagarri izten ez daukana be;
 - ⁴ gaiztoa gutxitzat artzen dauana,
eta Jaunaren bildur diranak aintzat artzen daukana;
bere buruaren kontra zin eginda be,
bere ziñari eusten daukana;
 - ⁵ dirua irabazitan emoten ez daukana,
eta errubagearen kontra eskupekorik artzen ez daukana.
Olan jokutzen dauanak ez dau egundo utsik egingo.
3. *Biurtu belarria nire eskarira, Jauna; aditu nire deadarrak.*

16 (17)

- ¹ Entzun, Jauna, nire zuzenbidea,
aditu nire deadarrak,
biurtu belarria nire eskarira,
nire ezpanetan ez dago iruzurrik-eta:

- ² urten beite Zugandik epaia,
ikusi begie zure begiak arteza dana.
- ³ Gabez niri ikustaldia egiñik,
nire biotza arakatu ba'dagizu be,
su-katilluan aztertu ba'nagizu be,
ez dozu nigan gaiztakeririk aurkituko.
- ⁴ Nire agoak ez dau utsik egin,
gizonak oi dabenez;
zure aginduen negurritz,
izentatutako bidean iraun dot nik.
- ⁵ Nire oiñak sendo egon ziran zure bideetan,
eta nire oinkadak ez eben labanik egin.
- ⁶ Erantzuten daustazulako egiten dautsut dei, ene Jainko;
biurtu belarria ta entzun nire berbak.
- ⁷ Erakutsi egizuz zure errukiaren arrigarriak,
zure eskumaldean gordeten dana
arerioakandik onik ataraten dozun Orrek!
- ⁸ Zaindu nagizu zure betseiñak lez,
gorde nagizu zure egoen gerizpean
- ⁹ nire kontra gogor diarduen gaiztoakandik,
asarrez inguratzen nauan arerioagandik.
- ¹⁰ Itxi egin dabez euren erraiak,
eta ago arroz egiten dabe berba;
- ¹¹ inguratu egiten nabe arein oinkadak,
ni lurrera jaurtiteko begiakaz kiñuka diardue,
- ¹² erpea sartzeko gurariz dagoan leoiaren antzera,
bere zuloan ezkutuan dagoan leoikumearen antzera.
- ¹³ Jagi zaitetz, Jauna, jarri zakioz aurre-aurre,
jaurti egizu lurrera;
askatu nagiala zure ezpatak gaiztoagandik,
- ¹⁴ eta zure eskuak ilkorrakandik, Jauna;
mundu onetako ilkorrok: izan bedi bizitza au zuen ar-
zeure ondarez beteko dautsezu sabela, |loa;

arein semeak asetu egingo dira
eta ondarrak euren semeai itxiko dautseez.

- ¹⁵ Nik, barriz, nire zuzenbideaz, zeure aurrera nator,
eta iratzartzean, zeure arpegiz beteko naz.*

4. Maite zaitut, Jauna; Zeu zara nire indar.

17 (18)

- ² Maite zaitut, Jauna, Zeu zara nire indar,
³ Jaun, nire arkaitz, gaztelu, askatzaille;*
nire Jainko, aitz, aterpe, babeskin,
nire indar askatzaille ta gordeleku.
⁴ Goragarri yatan Jaunari egiten dautsat dei,
eta nire arerioakandik askatuta gelditzen naz.
⁵ Eriotz-olatuak batzen nenduen,*
erreka ondatzailleak ikaratzen nenduen,
⁶ lezako sareak inguratzen nenduen,
eriotz-lakioak oratzen eusten;
⁷ arriskuan Jaunari egin neutsan dei,
neure Jaunari egin neutsan deadar;
entzun egin eban nire deia bere jauretsetik,
eta nire deadarra Aren belarrietara eldu zan.
⁸ Orduan, lurra dardar eta ikara jarri zan,
mendien azpiak kilikolo egin eban,
Aren sumiñak astinduta;
⁹ Aren surretik ke-moltztoa igo zan,
Aren agotik su errea,
eta ikatz iziotuak jaurtiten ebazan.
¹⁰ Zerua makurrerazo egin eban eta jatsi egin zan,
bere oiñazpian odei baltzak ebazala;

(7) Jauretxe = templo.

- ¹¹ kerubin baten gaiñean jesarrita,
aizearen ego-gaiñean yoian egaz,
¹² estalki illun bataz batuta;
estalkiak lez,
uren illunpeak eta odei baltzak inguratzen eban;
¹³ aurean ekarren dirdiraz,
odeiak txingorrez eta su-txinpartaz asi ziran;
¹⁴ eta Jaunak zerutik trumoiari eragin eutsan,
Gorengoak bere abotsa entzun-azoten eban.
¹⁵ Bere geziak jaurtirik,
arerioak sakabanatu egiten ebazan,
eta etenbagako tximistak zoratu egiten ebazan.
¹⁶ Zuk, Jaun orrek, deadar bat egitean,
zure suurrak sumiñez putz egitean,
itxas-barrua agirian gelditu zan,
eta lur-azpiak ikusi ziran.

5. Jaunak ordaindu eustan nire zuzentasuna.

17 (18)

- ¹⁷ Goitik bere eskua luzatu eban eta oratu egin eustan,
ur sakonetatik atara egin nenduan,
¹⁸ arerio altsuagandik askatu egin nenduan,
ni baiño indartsuago ziran arerioakandik.
¹⁹ Nire ondapen-egunean eraso egiten eusten;
baiña, Jauna izan yatan sendagarri:
²⁰ zabalera atara nenduan,
maite nendualako atara nenduan onik.
²¹ Jaunak ordaindu eustan nire zuzentasuna,
neure eskuen garbitasunaren eraz emon daust saria;

(19) Eraso egin = atacar, acosar. (30)

- ²² Jaunaren bideai jarraitu neutsen-eta;
ez nintzan nire Jainkoaren kontra jagi-ta;
- ²³ Aren aginduak neure aurrean izan
eta ez neban Aren erabagietatik alde egin-eta;
- ²⁴ zintzo-zintzoa izan nintzakion,
edozein errutik urrun egonez;
- ²⁵ Jaunak ordaindu eban nire zuzentasuna,
nire eskuen garbitasuna Aren aurrean.
- ²⁶ Zintzo jokatzen dozu zintzoagaz,
jator jokatzen dozu jatorragaz,
- ²⁷ garbi agertzen zara garbiagaz,
zuur agertzen zara maltzurragaz.
- ²⁸ Erri apala onik ataraten dozu,
eta begi arroak beeratu egiten dozuz.
- ²⁹ Zeu zara, Jauna, nire argi-ontzia,
Zeuk argitzen dozuz, ene Jainko orrek,
nire illunpeak.
- ³⁰ Ustea Zeugan ezarrita asten naz burrukan,
ustea Zeugan ezarrita erasoten dot arresia.
- ³¹ Bikain-bikaiña da Jainkoaren bidea,
Jainkoaren agintzaria su-katilluan garbitua,
Bera da Aregana joten dabenen aterpea.

6. Gora Jauna, onetsia nire Arkatxa!

17 (18)

- ³² Nor da Jainko, Jauna ezik?
zer arkaitz, geure Jainkoa ezik?
- ³³ Jainkoa da indarrez jazten nauana
eta bide bikaiña erakusten daustana;

- ³⁴ basautz-oiñak emoten daustaz
eta goietan jarten nau;
- ³⁵ eskuok gudarako gertatzen daustaz
eta nire besoak uztaia estutzeko.
- ³⁶ Zeure babeskin zaintzaillea itxi zeustan,
zeure eskuak eutsi eustan,
zeure arduraz bete nenduzun.
- ³⁷ Bidea zabaldu zeutsen nire oiñai
eta nire orkatillak ez ziran makaldu;
- ³⁸ aurrean eroaten neban arerioa,
beroni oratu arte,
eta ez nintzan biurtzen a ondatu arte;
- ³⁹ ondatu egin nebazan eta ezin jagi izan ziran,
neure oiñazpian jausi ziran.
- ⁴⁰ Burrukarako indarrez jantzi nenduzun,
nire eraso-egilleak makurtu egin zenduzan;
- ⁴¹ nire arerioak atzeraka egitera beartu zenduzan,
bartzartu egin zenduzan nire arerioak.
- ⁴² Laguntza eskatzen eben,
baiña ez ebazan iñok askatzen;
deadar egiten eutsoen Jaunari,
baiña ez eutsen erantzuten.
- ⁴³ Aizeak daroan autsa lez azpiratu nebazan,
kalcetako lokatza lez zapaldu nebazan.
- ⁴⁴ Nire erriaren nasteetatik askatu egin nenduzun,
atzerrien buru egin nenduzun,
erri arrotza menpeko izan yatan.
- ⁴⁵ Arrotzak legun-legun artzen nenduen,
entzun eta esana egiten eusten.
- ⁴⁶ Arrotzak kikildu egiten ziran,
eta euren gordelekuetatik ikaraz urteten ziran.

- ⁴⁷ Gora Jauna, onetsia nire Arkatxa;
goratua izan daitela nire Jainko ta Askatzaillea;
⁴⁸ niri onbidea emon
eta erriak neure menpera ekarri ebazan Jainkoa;
⁴⁹ nire arerioakandik onik atara,
eraso-egilleakandik jaso,
eta biotz-gogorragandik onik atara nendua.
⁵⁰ Orregatik, eskerrak emongo dautsudaz
atzerrien artean, Jauna,
eta zeure izenaren omenez joko dot;
⁵¹ garaipen aundia emon zeutsan zure Erregeari,
zure Igurtzitakoari erruki izan zintzakiozan,
Dabid'i ta onen ondorengoai, betiko.

7. Entzun zagizala Jaunak arrisku-egunean.

19 (20)

- ² Entzun zagizala Jaunak arrisku-egunean,
eutsi dagitzula Jakob'en Jainkoaren izenak;
³ bialdu dagitzula laguntza jauretsetik,
izan dadilla zure sendagarri Sion-menditik;
⁴ izan dagizala gogoan zure opari guztiak,
izan dakiozala atsegingarri zure opariak;
⁵ emon dagitzula zure biotzak opa dauana,
bete dagizala zure asmo guztiak.
⁶ Ospatu daikegula zure garaipena,
jaso daikeguzala ikurriñak gure Jainkoaren izenean.
Emon dagitzula Jaunak eskatzen dozun guztia.
⁷ Ba-dakit orain Jaunak bere Igurtzitakoari*
garaipena emoten dautsana,
zeru santutik entzun dauana,
bere esku garaitsuen bidez.

- ⁸ Batzuek euren burdieten jarten dabe ustea,
beste batzuek euren zaldietan;
guk geure Jainko Jaunaren izenari egiten dautsagu dei.
⁹ Areik beera jausi ziran,
guk zutik irauten dogu.
¹⁰ Jauna, emoiizu garaipena Erregeari,
eta entzun gagizuz dei egiten dautsugunean.

8. Jauna, zure indarraz poztu egiten da erregea.

20 (21)

- ² Jauna, zure indarrez poztu egiten da erregea,
zure laguntzaz, bai a pozik!
³ Bete dozu aren biotzeko guraria,
ez dozu ukatu aren ezpanak eskatzen ebena.
⁴ Onespen onez aurea artzen dautsazu,
eta urre utsezko koroia ezarri dautsazu buruan.
⁵ Bizitza eskatu eutsun, eta Zuk emon egin dautsazu,
urte erreskada luzea beti-betiko.
⁶ Zure garaipenak aundi egin dau aren izen ona,
edertasunez eta ospez jantzi dozu.
⁷ Betiko onespena emoten dautsazu,
zure aurrean pozez beteten dozu.
⁸ erregeak Jainkoagan itxaroten dau-ta,
Gorengoaren graziaz ez dau utsik egingo.
⁹ Oratu dagitsela zure ezkerrek zure arerioai,
eta jausi daitela zure eskuma
zure kontra dagozanen gainera;
¹⁰ emon egiezu sua, laba bati lez,
agertu zaitezcan egunean;*
ezereztu dagizala Jaunak bere sumiñez
eta iruntsi dagizala suak.

- ¹¹ Ondatu egizuz arein ondorengoak lurrean,
baita arein azia be gizartean.
- ¹² Zuganako asmo txarrik ba'dabe
eta maltzurkeririk ausnartzen ba'dabe be,
ez dabe ezer lortuko;
- ¹³ Zuk iges eragingo dautsezu-ta,
uztaia arein kontra estutuez.
- ¹⁴ Jagi zaitetz, Jauna, zure indarraz,
eta zeure al-izatea abestuko dogu eresi-otsez.

9. *Goratuko zaitut, Jauna, onik atara nozu-ta.*

29 (30)

- ² Goratu egingo zaitut, Jauna, onik atara nozu-ta,
ez dautsezu itxi nire arerioai
nire lepotik barre egiten-eta.
- ³ Ene Jainko Jauna, zeuri egin neutsun deadar,
eta Zuk osatu egin nenduzan.
- ⁴ Jauna, zeuk atara zenduan nire arima lezatic,
illobira jatsiten nintzala biztu nenduzan barriro.
- ⁵ Jo Jaunarentzat, Beronen zintzook,
emon eskerrak Aren izen santuari;
- ⁶ Aren asarrea une batekoa da,
eta Aren ontasuna bizi guztikoa;
arratsaldean, negarra datorkigu,
goizean, poza.
- ⁷ Auxe esaten neban nasai-nasai:
«Inoiz be ez dot ikararik egingo».
- ⁸ Zure ontasanak, Jauna,
dedua ta indarra emoten eustazan;
baiña, zure arpegia gorde, eta larrituta gelditu nintzan.

(8) Dedu = honor.

- ⁹ Zeuri egin neutsun dei, Jauna,
neure Jainkoari egin neutsan erregu;
- ¹⁰ «Zer irabazten dozu nire eriotzaz,
ni illobira jatsiteaz?
Eskerrik emongo ete-dautsu autsak?
Iragarriko ete-dau zure zintzotasunik?
¹¹ Intzun, Jauna, eta erruki zakidaz,
izan zakidaz laguntza, Jauna».
- ¹² Nire negarra dantza biurtu zenduan,
saiala erantzi zeustan,
eta jai-soiñekoak jantzi daustazuz;
- ¹³ nire arimak isildu bagarik abestuko dautsu,
Jauna, ene Jainko, beti emongo dautsudaz eskerrak!

a) **Gorapen-otoitzak (LAUDES I)**

1. *Goratu egizue Jauna poz-deadarka.*

46 (47)

- ² Jo txaloak, erri guztiok,
goratu Jainkoa poz-deadarka!
- ³ Jauna garaitsu ta ikaragarria da-ta,
lur osoan Errege aundi.
- ⁴ Berak ekarten dauz erriak gure menpera,
eta atzerriak gure oiñazpira;
- ⁵ Berak aukeratzan gaitu bere solotzat;
maite dauan Jakob'en aintza.
- ⁶ Oiu-artean igoten da Jainkoa,
Jauna turuta-otsez:
- ⁷ jo Jainkoarentzat, jo eresiak,
jo gure Erregearentzat, jo eresiak!

- ⁸ Jainkoa lur osoaren errege da-ta:
jo eresiak ganoraz!
⁹ Errege da Jainkoa atzerrietan,
Jainkoa bere aulki santuan jesarten da:
¹⁰ jentillen nagusiak Abraa'en Jainkoaren erriagaz
batzen dira;
¹¹ lurreko aundiak Jainkoarenak dira-ta;
goren-gorengoa da A!

2. *Egin jaramon nire laguntza-deadarrai, nire Errege ta
Jainko orrek!*

5

- ² Entzun, Jauna, nire berbak,
entzun nire negar-aienak,
³ egin jaramon nire laguntza-deadarrai,
nire Errege ta Jainko orrek!
Zeuri erregutzen dautsut, Jaun orri;
⁴ goizean goiz entzuten dozu nire abotsa,
goizean goiz ekarten dautsut nire auzia,
eta zain gelditzen naz.
⁵ Gaiztakeria atsegin yakon jainkotarikorik ez zara Zu,
zure etxean gaiztorik be ez da bizi-lagun gelditzen,
⁶ buruarroak be ez dau zure aurrean zutik irauten.
Gaizkilleai gorroto dautsezu,
⁷ guzurtiak ondatu egiten dozuz;
gizon odolzale ta ustela
Jaunak iguindu egiten dau.
⁸ Ni, barriz, zure ontasan aundiagaitik,
zeure etxean sartuko naz,
bildurrez beterik.

- ⁹ Eroan nagizu, Jauna, zure zuzentasunaz,
arerioak daukadaz-ta;
laundu egidazu zure bidea.
¹⁰ Arein agoan ez da egirik,
arein biotza biurria da;
arein iztarria illobi edegia da,
miña eztsitu darabilela.
¹¹ Zigortu egizuz, Jainko,
ondatu daitezala arein asmoak;
jaurti egizuz arein dongakeri ugariakaitik,
zeure kontra jagiten dira-ta.
¹² Poztu daitezala zure magalpean batzen diranak,
poz betikorraz;
zaindu egizuz, zure izena maite dabena
pozez bete daitezana.
¹³ Zuk, Jaun orrek, zintzoa bedekatu,
eta, babeskiñaz lez, zure cntasunak estaldu egiten dau-ta.

3. *Jainko goragarria trumoi-otsez; goratu egizue Aren
izenaren aintza.*

28 (29)

- ¹ Goratu Jauna, Jainkoaren semeok,*
goratu Jaunaren aintza ta indarra,
² goratu Jaunaren izenaren aintza,
auspazu Jaunaren aurrean bere ataurre santuan.
³ Jaunaren abotsa ur-gaiñean,
Jainko goragarria trumoi-otsez,
Jauna ur ugarien gaiñean!
⁴ Jaunaren abotsa indartsu,
Jaunaren abotsa ospez beterik!

- ⁵ Jaunaren abotsak ausi egiten dauz zedruak,
ausi egiten dauz Jaunak Libano'ko zedruak.
- ⁶ Libano'ri triska eragiten dautso txaltxo bati lez,
baita Saron'i be, bufalo-kume bati lez.*
- ⁷ Jaunaren abotsakugarra jaurtiten dau,
- ⁸ Jaunaren abotsak basamortua astindu egiten dau,
Jaunak Kades'ko basamortua astindu egiten dau,
- ⁹ Jaunaren abotsak aretxa biurtu egiten dau,
Jaunak basoai kendu egiten dautse azala.
Aren Jauretxean guztiak batera diñoce: Gora!
- ¹⁰ Uriol-gaiñean jesarten da Jauna,
Jauna betiko errege lez jesarten da.
- ¹¹ Jaunak bere erriari indarra emoten dautso,
Jaunak bere erria bakeaz bedeinkatzen dau.

4. Zeure izen santua goratzen dogu, gure Jainko!

Dabid'en abestia

(1.º Kronika, 29)

- ¹⁰ Bedeinkatua zara, Jauna,
gure aita Israel'en Jainko ori,
gizaldiz-gizaldi.
- ¹¹ Zeureak dira, Jauna, aunditasuna ta al-izatea,
aintza, edertasuna ta argitasuna,
zeru-lurrean dagoana zeurea da-ta;
Zeu zara danaren errege ta nagusi.
- ¹² Zeugandik dotoz aberastasuna ta aintza,
Zeu zara lurbiraren Jaun,
zeure eskuan dago al-izatea ta indarra,
Zeuk jasoten eta sendotzen dozuz guztiak.

(6) Triska = salto.

- ¹³ Orregaitik, guk eskerrak emoten dautsuguz,
gure Jainko orri,
zure izen ospatsua goraturik.

5. Goratu egizue Jauna, atzerri guztiok!

116 (117)

- ¹ Goratu egizue Jauna, atzerri guztiok,
ospatu egizue, erri guztiok:
- ² gukanako Aren errukia sendoa da,
Aren zintzotasunak beti irauten dau.
Aleluia!

.Benedictus»: 15 orri.

b) **Bigarren Gorapen-otoltzak (LAUDES II)**

1. Erruki, Jainko, zure ontasuna gaitik.

50 (51)

Erruki, ene Jainko: 41 orri.

2. Eroan nagizu, Jauna, zure zuzentasunaz.

5

Entzun, Jauna, nire berbak, 56 orri.

3. Jaunak bere erriari indarra emoten dautso ta bakeaz bedeinkatzen dau.

5

Goratu Jauna, Jainkoaren semeok, 57 orri.

4. Atertu egin da zure sumiña, Jauna, eta poztu egin nozu.

Isaias'en lenengo abestia

(Isaias, 12)

- ¹ Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna, nire kontra asarre zengozan-eta; baiña, atertu egin da zure sumiña eta poztu egin nozu.
- ² Bera da nire Jainko ta Salbatzaille; izango dot ustea ta ez dot bildurrik izango, nire indar eta al-izatea Jauna da-ta, Bera izan zan nire osasuna-ta.
- ³ Eta osasun-iturrietatik ura pozik atarako dozue.
- ⁴ Egun aretan auxe esango dozue: Emon egiozuez eskerrak Jaunari, egiozue dei Aren izenari, azaldu erriai Aren arrigarriak, iragarri Aren izena dan garaitsua.
- ⁵ Jo Jaunarentzat, arrigarriak egin ebazan-eta, iragarri egiozuez lur guztiari;
- ⁶ egin deadar poz-bitsetan, Sion'en bizi zareenok: «Israel'go santua bai aundi zure erdian!».

5. Goratu egizue Jauna, guganako Aren errukia sendoa da-ta.

116 (117)

- ¹ Goratu egizue Jauna, atzerri guztiok, ospatu egizue, erri guztiok;
- ² guganako Aren errukia sendoa da, Aren zintzotasunak beti irauten dau. Aleluia!

«Benedictus»: 15 orri.

Goizeko otoitza (PRIMA)

Eskuak erru bagarik eta biotza garbi daukazana igoko da Jaunaren mendira.

23 (24)

- ¹ Jaunarena da lurra ta an dagoan guztia, lurbira ta an bizi diran guztiak;
- ² Berak jarri eban a itxasoen gainean, Berak sendotu eban ibaien gainean.
- ³ Nor igoko da Jaunaren mendira? nor egon daiteke toki santuan?
- ⁴ Eskuak erru bagarik eta biotza garbi daukazana, ustea jainko-irudietan ezarten ez dauana, lagun-urkoaren kontra guzurrezko ziñik egiten ez dauana.
- ⁵ Alakoak, Jaunagandiko onespena artuko dau, osasun-Jainkoak zuzenbidea egingo dautso.
- ⁶ Orixe da Jaunaren billa dabillen taldea, Jakob'en Jainko orren aurrera datorrena.

- ² Ateok: jaso egizuez ateburuok;
zutundu daitezala antxiñako atea,
Zeruko erregea sartu daiten.
- ⁵ Nor da Zeruko Errege ori?
Jauna, indartsua ta altsua.
- ³ Ateok: jaso egizuez ateburuok;
zutundu daitezala antxiñako atea,
Zeruko Erregea sartu daiten.
- ¹ Nor da Zeruko Errege ori?
Jauna, Gudarozteen Jainkoa:
Bera da Zeruko Erregea.

18 (19)

- ² Zeruak Jainkoaren aintza iragarten dau,
izartegiak Aren eskuak egindakoa azaltzen dau;
- ³ egunak egunari iragarten dautso mandatua,
eta gauak gauari emoten dautso albista.
- ⁴ Berba egin bagarik, itzik esan bagarik,
Aren abotsak durundirik egin bagarik,
- ⁵ Aren iragarteak lur osoa artzen dau,
eta Aren izkerak lurbiraren mugetaraiño.
- ⁶ Antxe jarri eutsan bere txabola eguzkiari;
senargeia ogetik urteten dan antzera urteten da bera,
pozik, ariñeketalari bat lez, bere bidea egiteko.
- ⁷ Zeruko ertz batetik urteten da,
eta aren ibillera beste zeru-mugara eltzen da;
aren berotik inok ezin iges egin daike.
- ⁸ Jaunaren legea bikaiña da,
eta arimaren atsedea;
Jaunaren erabagia zintzoa da,
eta ez-ikasiaren jakituri;

- ⁹ Jaunaren aginduak zuzenak dira,
eta biotzaren pozgarri;
Jaunaren agindua gardena da,
eta begien argi;
- ¹⁰ Jaunaren naia garbia da
eta iraunkor beti;
Jaunaren aginduak egi dira
eta guztiz zuzenak;
- ¹¹ urrea baiño ederragoak,
urre bikaiña baiño geiago;
ezti-orraziari darion
eztia baiño gozoagoak.
- ¹² Zure morroi au areik arduraz gordeten
zain-zain dagoanarren,
nok ezagutzen dauz norberaren utsak?
- ¹³ Garbitu nagizu ezkutuan gelditzen yatanetik,
¹⁴ arrokeritik gorde egizu zure morroi au,
menperatu ez nagian:
pekatu aunditik
askatuta eta errubage geldituko naz.
- ¹⁵ Izan dakizuzala atsegingarri nire agoko herbak,
eta eldu daitela zure aurrera nire biotzeko ausnartzea,
Jauna, nire arkaitz, nire eroles!

Goizerdiko otoitza (TERTIA)

Jauna da nire argi ta osasun.

26 (27)

- ¹ Jauna da nire argi ta osasun,
nori nik bildurrik?
Jauna da biziaren laguntza,
nok ikaratu ni?

- ² Nire aragia jateko
gaiztoak neure kontra datozanean,
eurak dira, nire kontrako ta arerioak,
laban eginda jausten diranak.
- ³ Gudarozte batek nire kontra txabolak egiten ba'dauz be,
nire biotza ez da ikaratzen;
nire kontra gudaketan asten ba'dira be,
nasai nago.
- ⁴ Gauza bat eskatzen dautsat Jaunari,
eta onexen billa ibiliko naz:
nire bizitzako egun guztietan
Jaunaren Etxean bizi nadilla;
Jaunaren jauretjera begira,
Aren samurtasuna artuez poztu nadilla.
- ⁵ Berak zainduko nau bere txabolan*
arrisku-egunean;
Berak gordeko nau bere bizitoki ezkutuan,
arkaitz-gaiñera jasoko nau;
- ⁶ eta alan, inguratzen nauan arerioaren gaiñetik
jasoko dot burua.
Aren txabolan poz-opariak
eskiñiko dodaz:
abestu ta jo egingo dot Jaunarentzat.
- ⁷ Entzun, Jainko, dei egiten dautsut-eta;
erruki zakidaz, erantzun egidazu.
- ⁸ Auxe entzuten dot nire biotzean:
«Billatu egizue nire arpegia».
Bai, Jauna, zeure arpegi-billa ibiliko naz,
- ⁹ ez gorde niri zure arpegia.
Ez bazartu asarrez zure morroi au,
Zeu zara nire laguntza-ta;

- ez ni bazartu, ez nagizu bertan-bera itxi,
nire Jainko askatzaile orrek!
- ¹⁰ Nire aitak eta amak bertan-bera izten ba'nabe be,
Jainkoak artuko nau.
- ¹¹ Erakutsi egidazu zure bidea, Jauna,
eroan nagizu bide-zidor lautik,
arerioak daukadaz-ta.
- ¹² Ez nagizu nire arerioaren aukeran itxi:
indarkeria dariela,
nire kontra guzurrezko autorlariak jagiten dira-ta.
- ¹³ Jaunaren poza izango dodala uste dot
bizidunen errian.
- ¹⁴ Izan ustea Jaunagan; izan adoretsua,
izan kementa, jarri Jaunagan zure ustea.

27 (28)

- ¹ Zeuri egiten dautsut dei, Jauna,
ene Arkaitz, ez egin entzungor nire abotsari;
entzuten ez ba'nozu,
illobira jatsiten diranak lez izango naz-ta.
- ² Entzun nire eskarien abotsa
laguntza eskatzen dautsudanean,
nire eskuak zeure jauretxe santurantz
jasoten dodazanean.
- ³ Ez nagizu gaiztoakaz eroan,
ezta dongakeria egiten dabena-kaz be:
euren lagun-urkoagaz bakeari buruz herba egin bai,
baiña euren biotzean dongakeria daroe-ta.
- ⁴ Erabili egizuz euren egiñai dagokienez,
euren egikera gaiztoaren negurritz;
emon egiezu euren eskuak egindakoen negurritz,
euren ordaiña bera emon egiezu.

- ⁵ Jainkoaren egintzak eta Aren eskuak egindakoa
ez dabez ezagutu nai-ta:
Berak ondatu dagizala noraezean.
- ⁶ Izan bedi bedeinkatua Jauna,
nire eskarien abotsa entzun egin eban-eta;
- ⁷ Jauna da nire indar eta babeskin:
Arexegan jarten dau ustea nire biotzak;
laguntza emon eustan, eta nire biotza poztu egiten da,
eta abestu egiten dautso eskerrak emonez.
- ⁸ Jauna da indarra bere erriarentzat,
gordeleku ta osasuna bere igurtzitakoarentzat.
- ⁹ Onik atara egizu zure erria ta bedeinkatu zure soloa,
artzain izan zakiez eta eroan egizuz beti.

Eguerdiko otoitza (SEXTA)

Onik atara nagizu, Jauna, zure zuzentasunagaitik.

30 (31)

- ² Zeugana joten dot, Jauna:
ez nadilla iñoiz be lotsatuta gelditu;
zuzena zara-ta, onik atara nagizu,
- ³ biurtu nigana zure belarria,
zatoz arin ni askatzera,
izan zakidaz aterpe-arkaitz,
ni onik atarako nagian gaztelua,
- ⁴ nire arkaitz eta gaztelu Zeu zara-ta;
zure izenagaitik, zuzendu ta eroan nagizu:
- ⁵ atara nagizu zabaldu dausten saretik,
nire gordelekua Zeu zara-ta.

- ⁶ Zeure eskuetan izten dot nire espiritua;
Zeuk askatuko nozu, Jainko zintzo orrek;
- ⁷ igundu egiten dozuz
sasi-jainkoen irudi illak;
nik, barriz, Jaunagan dot ustea;
- ⁸ izan bedi zure errukia nire poza ta alaitasuna.
Nire samiñari begira gelditu zara,
arriskuan dodan nire bizia zaintzen diarduzu;
- ⁹ ez nozu itxi arerioaren eskuetan,
nire oiñak bide zabalean ipiñi dozuz.
- ¹⁰ Erruki, Jauna, arriskuan nago-ta:
nire begiak, iztarria ta erraiak
samiñez igartzen daukadaz.
- ¹¹ Nire bizitza, naigabetan
eta nire urteak antzika igartzen daukadaz;
miñaren miñez nire indarra lur-jota daukat,
nire azurrak igartzen daukadaz.
- ¹² Lotsagarri egin naz nire arerioentzat,
iguingarri nire auzokoentzat,
ikargarri nire ezagunentzat:
kalean ni ikusi, eta iges egiten dabe nigandik.
- ¹³ Ildako bat lez aztu nabe,
ezetarako ez dan ontzi bat lez bazartu nabe.
- ¹⁴ Laguntaldearen surrumurrua entzuten dot,
eta danak emoten daust bildur;
neure kontra batzen dira
eta niri bizia kentzeko asmotan diardue.
- ¹⁵ Nik, barriz, Jauna, Zeugan dot ustea;
«Zeu zara nire Jainko!», dirautsut.
- ¹⁶ Zeure eskuetan dago nire zoria:
askatu nagizu aurrean narabillen arerioakandik;

- ¹⁷ zure arpegiak zure otsein oni argi egin dagiola egizu;
zure maitasunarren, onik atara nagizu!
- ¹⁸ Ez nadilla lotsatu, Jauna, dei egin dautsudalako;
lotsatu daitezala gaiztoak
eta jatsi daitezala mutututa lezara;
- ¹⁹ mututu bediz ezpan guzurtiak,
zintzoaren kontra arrokeriz eta destaiñez
tentelkeriak esaten dabez-ta.
- ²⁰ Zure zintzoentzat gordeta daukazun ontasuna,
bai dala aundia, Jauna!,
guztien aurrean
Zeugana joten dabena emoten dautsezuna!
- ²¹ Zeure arpegiaren ezkutuan gordeten dozuz
gizonen maltzurkerietatik;
zeure txabolan gordeten dozuz
miin txarretatik.
- ²² Bedeinkatua Jauna,
arresiz inguratutako urian
nigaitik erruki miragarriak egin dauzana!
- ²³ Nik nire larrialdian auxe esaten neban:
«Zure begietatik jaurti egin nozu»;
baiña, nik deadar egiten neutsunean,
nire eskarien abotsa Zuk entzun egin zenduan.
- ²⁴ Maite egizue Jauna, Beronen zintzo guztiok;
Jaunak bere zintzoa zaindu egiten dau;
arroai, barriz, gaiñezka biurtzen dautse.
- ²⁵ Indartsu ta biotz-adoretzu izan zaitzeze,
ustea Jaunagan dozuen guztiok.

(19) Destaiña = desprecio.

Bezerdiko oioitza (NONA)

*Goratu Jauna, zintzook, zintzoen gorapena ondo dator-
kio-ta.*

31 (32)

- ¹ Zoriontsu, bere errua parkatuta daukana,
bere pekatua lurperatu dautsoena!
- ² Zoriontsu, Jaunak gaiztakeririk aurkitzen ez dautsana!
- ³ Ni ixillik egon nintzan artean,
azurrak igartu egin yatazan,
egun guztian orroka:
- ⁴ gau ta egun zure eskua neure gaiñean neban-eta;
nire bizi-gaia frutu legor biurtu izan yatan.
- ⁵ Pekatu egin izan neban, autortu neban,
ez neban estaldu nire dongakeria;
auxe esan neban: «Jaunari autortuko dautsat nire errua»,
eta Zuk parkatu egin zenduan nire errua ta pekatua.
- ⁶ Orregaitik, erregu egin dagitzuela zintzo guztiak
zoritxar-aldian:
uriolak ez dabe alakoa artuko.
- ⁷ Zeu zara nire gordeleku: arriskutik atara
eta askatasun-abestiz inguratzen nozu.
- ⁸ Artu bear dozun bidea ezaguerazo ta erakutsiko dau-
nire begiak zagan adi-adi egongo dira. Itsut,
- ⁹ Ez zaitzeze zentzunbageak izan, zaldiak edo mandoak lez:
arein adorea galgaz eta ago-ugalaz eziten da,
bestela, ezin urreratu zaitkekez.
- ¹⁰ Ugari dira gaiztoaren miñak;
ustea Jaunagan dauana, errukiak inguratzen dau.
- ¹¹ Poztu zaitzeze, zintzook, eta artu atsegin Jainkoagaz;
goratu egizue A, biotz-zuzen guztiok!

32 (33)

- ¹ Goratu egizue Jauna, zintzook,
bidezko yako zuzenen gorapena-ta;
² emon egiozuez eskerrak Jaunari zitaraz,
jo egizue amar ariko arpa Aren omenez;
³ abestu egiozue kanta barri bat,
bordoien laguntzaz goratuez;
⁴ Jaunaren itza zuzena da-ta,
Arek egindako guztia egitan sendotuta dago;
⁵ zuzen eta bidezko dana maite dau Arek,
eta Aren errukiz lurra beterik dago.
⁶ Zerua Jaunaren itzak egin eban,
eta Aren agoko arnasak Aren gudarozteak;
⁷ itxasoko urak zaragi baten batzen dauz,
itxas-lezak ur-asketan sartzen dauz.
⁸ Bildur bekio Jaunari lur osoa,
dardaraka jarri bediz Aren aurrean
munduan bizi diran guztiak;
⁹ Berak esan eta alantxe izan zan-eta,
Berak agindu ta egin egin zan-eta.
¹⁰ Ausi egiten dauz Jaunak errien egitamuak,
uts biurtzen dauz errien asmoak;
¹¹ Jaunaren egitamuak, barriz, betiko irauten dabe,
Aren biotzeko asmoak gizaldiz-gizaldi.
¹² Zoriontsu, Jauna Jainkotzat daukan erria,
bere solotzat aukeratu eban erria!
¹³ Jauna zerutik dago begira,
gizon guztiakana adi-adi egoten da;
(10) Egitamuak = planes.

- ¹⁴ adi-adi dago bere bizitokitik
lurrean bizi diran guztiak begira;
¹⁵ Berak eratu eban biotz bakotxa,
arein egitada guztiak ulertzen dauz.
¹⁶ Ez dau irabazten erregeak
bere gudarozte aundiagaitik,
gudariak be ez dau iges egiten
bere indar galantagaitik;
¹⁷ gauza utsa zaldia garaipenerako,
bere gudarozte aundiagaitik be ez da onik urteten.
¹⁸ Jaunaren begiak bere zintzoen gaiñean dagoz,
euren ustea Aren errukian dabenen gaiñean;
¹⁹ arein biziak eriotzatik askatzeko
eta gosetean areik bizkortzeko.
²⁰ Gu Jaunaren zain gazoz:
Bera da gure laguntza ta babeskin;
²¹ Arexegan poztuten da gure biotza,
Arexen izen santuan dogu ustea.
²² Etorri dakigula gaiñera, Jauna, zure errukia,
Zeugandik itxaroten dogunez!

Arrats-otoitza (BEZPERAK)

1. *Jaunak bere belarria neugana makurtu dau.*

114 (116)

- ¹ Jauna maite dot, nire eskari-abotsa
entzun egiten dau-ta;
² dei egiten dautsadan egunean,
bere belarria neugana makurtzen dau-ta.

- ³ Eriotz-sareak inguratzen nenduen,
Lezako lakioak oratu eusten,
estuaidi ta larrialdian jausi nintzan.
- ⁴ Jaunaren izenari egin neutsan dei;
«Onik atara egizu nire bizia, Jauna!».
- ⁵ Jauna onbera ta zuzena da,
gure Jainkoa errukiorra da;
- ⁶ zaindu egiten dauz Jaunak biotz-zintzoak:
indar bagarik nengoala, onik atara nenduan.
- ⁷ Zeuganatu egizu barriro zure bakea, ene arima!,
Jauna zutzaz ona izan zan-eta:
- ⁸ atara egin eban nire arima eriotzatik,
nire begiak negar-malkoetatik,
nire oiñak jausi-alditik.
- ⁹ Jaunaren aurrean ibilliko naz,
bizien lurrean.

2. *Beteko dautsadaz Jaunari nire zin-eskintzak erri guz-
tiaren aurrean.*

115 (116 B)

- ¹ (¹⁰) Ba-neban sinismena,
«Ni bai zoritxarrekoa!», esan nebanarren.
- ² (¹¹) Nire estuaidian auxe esaten neban:
«Gizonak guzurtiak dira».
- ³ (¹²) Zelan ordainduko dausat Jaunari
egin daustan on guztia?
- ⁴ (¹³) Edontzi osasungarria jasoko dot,
Aren izenari dei egiñez.*
- ⁵ (¹⁴) Beteko dautsadaz Jaunari nire zin-eskintzak,
erri guztiaren aurrean.

- ⁶ (¹⁵) Balio aundikoa da Jaunaren aurrean
Aren zintzoen eriotza.
- ⁷ (¹⁶) Zeure otsein naz ni, Jauna,
zeure morroi, zure mirabearen semea:
ausi zenduzan nire kataiak.
- ⁸ (¹⁷) Gorapen-opari bat eskiñiko dautsut, Jauna,
zeure izenari dei egiñez.
- ⁹ (¹⁸) Beteko dautsadaz Jaunari nire zin-eskintzak,
erri guztiaren aurrean;
- ¹⁰ (¹⁹) Jaunaren etxearen aterpean,
zeure erdian, Jerusalem!
Aleluia!

3. *Nik Jaunari dei egin eta erantzun egin eustan.*

119 (120)

- ¹ Larrialdian Jaunari egin neutsan dei,
eta erantzun egin eustan.
- ² Zaindu nagizu, Jauna, ezpan guzurtietatik,
miin maltzurretik.
- ³ Zer emongo dautsu edo zer bialduko dautsu Jainkoak,
miin maltzur orri?
- ⁴ Gezilariaren geziak,
gisats-illintiz zorroztuak.
- ⁵ Ai enel, Masak'en erbesteratuta,
Kandar'eko txaboletan nago!*
- ⁶ Bakeari gorroto dautsoenakaz
luzaroei bizi naz;
- ⁷ Nik «Bakea» diñodanean,
areik «Guda» diñoe.

(4) Gezilari = arquero. — Gisats-illintiak = ascuas de
retama.

4. *Laguntza Jaunagandik datorkit, zeru-lurrak egin ebazan Aregandik.*

120 (121)

- ¹ Nire begiak mendietara jasoten dodaz;
nondik etoriko yat laguntza?
- ² Laguntza Jaunagandik datorkit,
zeru-lurrak egin ebazan Aregandik.
- ³ Ez dau itxiko zure oiñak laban egiten,
zure jagoleak ez dau lorik egiten;
- ⁴ Israel'en zaintzaileak
ez dau lorik egiten, ez atsedenic artzen.
- ⁵ Jaunak bere gerizpean zaintzen zaitu,
zeurè eskumaldean dago;
- ⁶ egunez ez dautsu eguzkiak kalterik egingo,
ezta gabez illargiak be.
- ⁷ Jaunak gordeten zaitu gaitz guztitik,
Berak zaintzen dau zure arima;
- ⁸ Jaunak zaintzen dauz zure sartu-urtenak,
orain eta beti.

5. *Bai poztu nintzala ni, «Jaunaren etxera goaz» esan eustenean!*

121 (122)

- ¹ Bai poztu nintzala ni,
«Jaunaren etxera goaz» esan eustenean!
- ² Eldu dira gure oiñak
zure ataurrera, Jerusalem.
- ³ Jerusalem lodi ta batuta egindako
uria lez dago jaso.

- ⁴ Araxe igoten dira jatorrikoak,
Jaunaren jatorrikoak,
Israel'go oitura danez,
Jaunaren izena ospatzera.
- ⁵ Antxe dagoz auzi-maiak,
Dabid'en jauregian.
- ⁶ Opa egiozue bakea Jerusalem'i:
«Nasai bizi bediz zu maite zaituenak,
⁷ izan bedi bakea zure arresien barrukaldean,
nasaitasuna zure jauregietan».
- ⁸ Nire anai ta lagunen alde
auxe diñot: «Bakea zugaz».
- ⁹ Gure Jainko Jaunaren etxeagaitik,
ondasun utsa opa dautsut.

Nire arim(e)ak Jaunaren aunditasuna iragarten dau, bere mirabe onen apaltasuna begiratu dau-ta.

«Magnificat»: 37 orri.

Illuntzeko otoitza (AD COMPLETORIUM)

Onik atara nagizu, Jauna, zure errukiagaitik.

6

- ² Ez nagizu, Jauna, asarrez zuzendu,
ez nagizu sumiñez zigortu.
- ³ Erruki, Jauna, indar bagarik nago-ta;
osatu egizuz nire azur lokatuak.

- ⁴ Zoraldiak artuta daukat arima,
eta Zu, Jauna, noiz arte?
- ⁵ Biurtu zaitetz, Jauna, askatu egizu nire arima,*
onik atara nagizu, zure errukiagaitik:
- ⁶ eriotz-erreñuan, izan be. iñok ez dautsu dei egiten,
eta Lezean, nok Zu goratu?
- ⁷ Antzika aulduta nago,
gabero nire etzun-tokian negar egiten dot,
negar-anpuluz bustiten dot nire ogea.
- ⁸ Janda daukadaz begiak, erreta,
zaartu egiten dira onenbeste ezbearrez.*
- ⁹ Alde nigandik, gaizkilleok,
nire negar-otsak Jaunak entzun egin dauz-ta.
- ¹⁰ Entzun egin dau Jaunak nire eskaria,
ontzat artu dau Jaunak nire otoitza.
- ¹¹ Lotsaz bete daitezala nire arerioak,
atzeraka egin dagiela, arrituta, bat-batean.

7

- ² Ene Jainko Jauna, zeugana joten dot,
askatu nagizu aurrean narabillenakandik
eta onik atara nagizu;
- ³ leoiak lez, iñok ez daistala eskurik ezarri
eta noraezean ni urratu.
- ⁴ Ene Jainko Jauna, errudun ba'naz,
nire eskuetan dongakeririk ba'da,
- ⁵ nire adiskideari kalterik egin ba'dausat,
zapaltzaille zuzenbagea zaindu ba'dot,

(3) Noraezean = sin remedio.

- ⁴ arerioak aurrean eroan eta oratu daistala,
lurrean zear bizirik zapaldu nagiala,
nire sabela autsetan sakaturik.*
- ⁷ Jagi, Jauna, zure asarreaz,
iratzartu sumiñez nire arerioen kontra,
zatorkidaz laguntzera
asi dozun auzian.
- ⁸ Errien batzarrak inguruan artu zagizala,
eta jarri egizu zure jarlekua arein gorenean.
- ⁹ Jauna errien ebazle.
Ebatzi nagizu, Jauna, nire zuzentasunaren negurriz,
nigan dagoan errurik-ezari dagokionez.
- ¹⁰ Atertu bedi errudunen dongakeria,
eta sendotu egizu errubagea,
biotzak eta erraiak azterten dozuzan Orrek,
Jainko zuzen Orrek.

7


- ¹¹ Jainkoa da nire babeskiña,
biotz-zuzenak onik ataraten dauzana.
- ¹² Jainkoa ebazle zuzena da,
Jainkoak egunero eskua jasorik dauko.*
- ¹³ Biurtzen ez ba'dira,
bere ezpata zorroztu,
bere uztai estutu ta gertu ipiñiko dau.
- ¹⁴ Bere iskillu ilgarriak gertatzen dauz,
bere gezi kiskaltzailleak atontzen dauz.
- ¹⁵ Begira: *arerioak* dongakeria sortu eban,
gaiztakeriz ernaritura dago
eta maltzurkeria dakar argitara.
- ¹⁶ Lurrean zuloa edegi eban eta ondo sakondu;
jausi bedi berak egin eban zuloan;

- ¹ biurtu bekio bere gaiztakeria buru-gaiñera,
jatsi bekio buruazur-gaiñera bere indarkeria.
¹² Eskerrak emongo dautsadaz nik Jaunari,
Beronen zuzentasunagaitik,
Jaun Gorengoaren izenarentzat joez.*

Onik atara gagizuz... (domeketan lez): 41 orri.



(18) Izenarentzat jo = ereskiñen bat jo, arizkoa (arpa, zitar) naiz aizezkoa (turuta, adarra, txistua); edo-ta zerbait abestu, ereskiñez lagunduta.



MARTITZENETAN

Goizaldeko otoitzak (MAITIÑAK)

1. Jo gogor, Jauna, nire kontra datozeanak.

34 (35)

- ¹ Jo gogor, Jauna, nire kontra datozeanak;
egin burrukan, nire kontra burrukan diarduenai;
² eskuko ta soñeko armak artu,
jagi ta zatoz niri laguntza ekartera;
³ erabili aztamakilla
eta itxi bidea aurrean narabillena;
Esan nire arimari: «Neu naz zure garaipena».
⁴ Naastea ta lotsa nire biziaren billa dabizanen gaiñera!
Egin begie atzeraka lotsaz beterik
niri kalte egiteko gurariz diarduenak!
⁵ Lastoa aizetan lez izan bediz,
Jaunaren aingeruak ezereztu dagizanean;
⁶ bidea illuna ta labana izan bekie,
Jaunaren aingeruak aurrean erabili dagizanean.
⁷ Bidebagez nire sareak ezkutuan ipiñi
eta zulo ilgarriak edegiten eustezan-eta;

⁸ jausi dakiela ondamendia bat-batean gaiñera, ezkutuan gorde eben sareak naastu dagizala, eta jausi daitezala edegi eben zuloan.

⁹ Eta ni Jaunagan poztuko naz,
Aren garaipenaz atsegin artuez;
¹⁰ nire izate osoak auxe iragarriko dau.
«Nor zu lakorik, Jauna,
makala indartsuagandik
eta gizajoa lapurragandik askatzeko?»

2. Zaindu egizu nire bizia, Jauna, orrolariakandik.

34 (35)

- ¹¹ Guzurrezko autorlariak aurkezten ziran:
ez nekizan gaietan be salatu egiten nenduen,
¹² on-sarizat txarra ordaintzen eusten,
laguntza bagarik izten nenduela.
¹³ Nik, barriz, areik geisorik egozanean,
zakuz jazten nintzan,
nire gorputza barauaz zigortzen neban,
eta nire barruan otoitz eta otoitz egiten neban.
¹⁴ Adiskide edo anaiaren eriotzagaitik lez,
arpegi-illun nenbillen;
buru-makur eta goibel,
amaren eriotzagaitik samiaña agertzen danean lez.
¹⁵ Baiña, nik laban egin nebanean,
areik poztu egin ziran,
neure kontra batu ta bat-batean jo nenduen;
eten-bagarik urratzen nenduen,
¹⁶ irri ta barre egiten eben nire lepotik,
gorrotoz agin-karraska.

- ¹⁷ Jauna, noiz arte zagoz begira?
Zaindu egizu nire bizia orrolariakandik,
nire ondasun bakarra leoiakandik.

3. Jagi zaitetz, Jauna, egizu nire auziaren alde.

34 (35)

- ¹⁸ Eskerrak emongo dautsudaz batzar nagusian,
erri-taldearen artean goratu egingo zaitut.
¹⁹ Ez dagiela nire lepotik barrerik egin
nire arerio saltzailleak,
bide-bagarik gorroto daustenak be
ez dagiela nire lepotik begi-kiñuka jardun;
²⁰ bake-zaleakaz be ez dira bakan bizi,
maltzurkeriak asmatzen diardue;
²¹ barre egiten dabe agoa zabal-zabal nire kontra,*
«Geure begiakaz ikusi dogu ori!» esanez.
²² Zeuk ikusi dozu, Jauna, ez zaitetz ixildu,
ez zaitetz urrun gelditu, Jauna;
²³ iratzartu zaitetz, jagi zaitetz, ene Jainko,
egizu nire auziaren alde, ene Jauna!
²⁴ Ebatzi nagizu Zeuk zure zuzentasunaren negurritz,
ez nagiela azpiratu, ene Jainko Jauna;
²⁵ ez dagiela euren barruan esan:
«Ara!, geuk nai genduan!»;
ez dagiela esan: «Iruntsi egin dogu!»
²⁶ Ondamendi lotsagarria eroan begie
nire zoritxarraz poztuten diranak,
lotsaz eta gerenez heterik gelditu bediz
nire aurka arrotzen ziranak.

- ²⁷ Poztu ta alaitu bediz
nire garaipena gura dabenak;
esan begie beti
zure morroi oni bakea opa dautsoenak;
«Jauna aundia da!»
- ²⁵ Nire miiñak zeure zuzentasuna iragarriko dau,
egunero goratuko zaitu.

4. *Ez berotu dongakeria egiten daben gaiztoai buruz.*

36 (37)

- ¹ Ez berotu gaiztoak gora-bera;
ez izan gaiztakeria egiten dabenen ikusi-eziñik;
- ² laster igartuko dira, albitza lez,
bedar bizia lez zimelduko dira.
- ³ Izan ustea Jaunagan eta egizu ona dana,
bizi zure lurrean eta ekin zintzotasunari;
- ⁴ Jauna izan bedi zure atsegiña,
eta Berak emongo dautsu zure biotzak eskatzen dauana.
- ⁵ Jarri egizu zure bidea Jaunagan,
itxaron Aregan, eta Berak jardungo dau;
- ⁶ zure zuzentasuna eguzkia lakoa egingo dau,
zure eskubidea eguerdia lakoa.
- ⁷ Bizi geldi Jaunagan, eta itxaron Aregan;
ez berotu gora doan gizonaren kontra,
maltzurkeria darabilenaren kontra;
- ⁸ ito sumiña, itxi asarrea;
ez berotu, txarto egin ez dagizun;
- ⁹ gaiztakeria egiten dabenak baztartuak dira-ta;
ustea Jaunagan dabenak, barriz,
lurraren jabe izango dira.

- ¹⁰ Unetxo bat geiago, eta joan zan gaiztoa;
begira aren tokia: ez dago orain;
- ¹¹ otzanak, barriz, lurraren jabe dira,
eta bake aunditan bizi dira.
- ¹² Gaiztoak zintzoaren kontra diardu;
bere agiñak aren kontra karraska diardue;
- ¹³ baiña, Jaunak aretzaz barre egiten dau,
aren eguna ba-datorrena ikusten dau-ta.
- ¹⁴ Gaiztoak ezpata atara ta uztaia gertu dauke,
txiroak eta apalak lurreratzeko,
zuzen dabillena ilteko;
- ¹⁵ baiña, arein ezpata euren biotzean sartuko da,
arein uztaiak ausi egingo dira.

5. *Gaiztoari besoak ausi egingo yakoz; zintzoari, osterara, Jaunak eusten dautso.*

36 (37)

- ¹⁴ Gaiztoaren ugaritasuna baiño
zintzoaren apurrak geiago balio dau;
- ¹⁷ gaiztoari besoak ausi egingo yakoz-ta;
zintzoari, barriz, Jaunak eusten dautso.
- ¹⁸ Jaunak zaintzen dauz zintzoen egunak,
eta arein oiñordekotasunak beti iraungo dau;
- ¹⁹ ez dira zimelduko legortean,
gosetean asetu egingo dira;
- ²⁰ gaiztoak, osterara, Jaunaren arerioak,
ondatu egingo dira;
zelaietako edertasuna lez zimelduko dira,
kea lez ezereztuko dira.
- ²¹ Gaiztoak besterenetik artu bai,
eta biurtu ez egiten dau;

- zintzoa, ostera, biozpera da,
eta parkatu egiten dau.
- ²² Jaunak bedeinkatzen dauzanak,
lurraren jabe dira;
Arek madarikatzen dauzanak,
bartzatuak dira.
- ²³ Jaunak sendotzen dauz gizonaren oinkadak,
aren bideak atsegiñez ikusten dauz;
²⁴ laban egiten ba'dau be, ez da jausiko,
Jainkoak eusten dautso eskutik-eta.
- ²⁵ Gazte izan nintzan, eta orain zaarra;
ez dot zintzoa bertan-bera itxita iñoiz ikusi,
ezta aren ondorengorik eskean be.
- ²⁶ Egunero da errukioarra, eta berenetik emoten dau:
bedeinkatuak aren ondorengoak!
- ²⁷ Alde egizu txarretik eta ona dana egizu,
eta beti izango dozu etxea;
- ²⁸ Jaunak zintzotasuna maite dau-ta,
ez dauz bere zintzoak bertan-bera izten-eta.
Gaiztoak ondatuak dira,
gaiztoen azia ezereztu egingo da;
- ²⁹ zintzoak, ostera, lurraren jabe dira,
antxe bizi izango dira beti-betiko.

6. *Zaindu egizu jatorra, begira zintzoa.*

36 (37)

- ³⁰ Zintzoaren agoari jakituria dario,
aren miiñak zuzentasuna azaltzen dau;
³¹ bere Jainkoaren legea daroa biotzean,
eta aren oiñak ez dabe laban egiten.
- ³² Gaiztoa adi-adi dago zintzoagana begira,
ari bizia kentzeko zain;

- ³³ baiña, Jaunak ez dau aren eskuetan izten,
ez dau izten auzialdian galdu dagien.
- ³⁴ Izan ustea Jaunagan, jarraitu Aren bideari:
Berak jasoko zaitu lurraren jabe izatera,
eta gaiztoen ondamendia ikusiko dozu.
- ³⁵ Gaizto bat arro-arro egiten ikusi neban,
zedro-tantai bat lez gora igoten;
- ³⁶ barrero igaro andik, eta ez neban an aurkitu;
aren billa ibilli, eta ezin aurkitu.
- ³⁷ Zaindu egizu jatorra, begira zintzoa:
aren ondorena bakea da;
- ³⁸ biurriak zearo ondatuak izango dira,
gaiztoen etorkizuna ausita geldituko da.
- ³⁹ Jauna da zintzoak onik ataraten dauzana,
Bera da arein gordeleku arriskuan;
- ⁴⁰ Jaunak zaintzen eta askatzen dauz,
gaiztoakandik onik ataraten dauz,
Aregana jotzen dabe-ta.

7. *Ez nagizu jo, Jauna, asarre zarala.*

37 (38)

- ² Ez nagizu jo, Jauna, asarre zarala,
ez nagizu zigortu sumiñez zagozala;
- ³ zure geziak neugan josi dira,
zure eskuak neure gaiñera jausi da;
- ⁴ ez daukat aragian zati osorik,
zure asarreagaitik;
ez dabe atsedetik nire azurrak,
nire pekatuakaitik;
- ⁵ nire erruak nire burutik gora dagoz,
nire indarrak baiño sorta astunago dira;

- ⁶ atsa ta ustela dariela dagoz nire azurrak
nire zorakeriagaitik;
- ⁷ makurtuta eta kikilduta noa,
illun nabil egun guztian;
- ⁸ sorbaldak erreten daukadaz,
ez daukat aragian zati osorik;
- ⁹ jota nago, zearo etenda,
leoiak baiño gogorrago diardut orroka.
- ¹ Nire gurari guztiak zeure aurrean dagoz, ene Jauna,
nire aienak ez yatzuz ezkutuan gordeten;
- ¹¹ biotza taupadaka darabilt,
indarrak bertan-bera izten nabe,
eta nire begietako argiak berak be iges egiten daust.
- ¹² Nire adiskide ta lagunak alde egiten dabe nigandik,
nire senideak urrun gelditzen dira;
- ¹³ nire kontra dabizanak sareak ipinten daustez;
nire kaltea gura dabenak eriotz-eskinka datorkidaz,
egun guztian diardue maltzurkeriak asmatzen.

8. *Zatoz bizkor niri laguntza ekartera, ene Jauna, nire salbatzaille ori!*

37 (38)

- ¹⁴ Nik, ostera, gorraren antzera, ez dot entzuten;
mutuaren antzera, ez dot agorik zabaltzen;
- ¹⁵ entzuten ez dauana lakoa naz,
agoan erantzunik ez daukana lakoa.
- ¹⁶ Zeugan dot ustea, Jauna,
eta Zeuk entzungo nozu, ene Jainko Jaun orrek!
- ¹⁷ Auxe eskatzen dot: ez daitezala nigaitik poztu;
nire oiñak laban egin dagianean,
ez dagiela garaipenik izan.

- ¹² Ni jausi-zorian nago-ta,
nire oiñazea ez yat aldentzen-eta.
- ¹⁹ Autortzen dot nire errua,
saminduta nauko nire pekatuak;
- ²⁰ nire arerio beroak indartsu dira,
asko dira bidebagez gorroto daustenak,
- ²¹ on-ordez txarra biurtzen daustenak,
onaren billa nabillenean neure kontra datozeanak.
- ²² Ez nagizu bertan-bera itxi, Jauna,
ez gelditu nigandik urrun, ene Jainko!
- ²³ Zatoz bizkor niri laguntza ekartera,
ene Jaun, nire salbatzaille ori!

9. *Aldendu nigandik zure zartadak, Jauna!*

38 (39)

- ² Auxe esan neban nirekautan: zainduko dot nire egikera,
nire miiñak laban egin ez dagian;
musturrekoa ipiñi dautsat nire agoari,
gaiztoa aurrean egon daiten artean.
- ³ Ixillik gelditu nintzan, baretsu;
ez neban uskeririk esan.
- ⁴ Baiña, nire zauria geroago ta minuago egiten asi zan.
eta biotza nire barruan erreten asi yatan;
ori ausnartzean, kiskaldu egiten nintzan,
berba egiten asi nintzan arte.
- ⁵ Jakiñerazo egidazu, Jauna, nire amaia,
eta zein dan nire egunen negurria,
ni nazan ausikorra jakin dagidan.
- ⁶ Arra bateko bizia emon zeustan,
nire egunak ezer ez dira zure aurrean;
arnasaldi bat irauten dau gizonak,

- ⁷ geriza utsa lez igaroten da gizona;
arnasaldi baten arduraz diardu,
aberastasanak pillatzen diardu,
norentzat izango diran jakin bagarik.
- ⁸ Eta orain, Jauna, zer itxaron ete-daiket?
Zeugan dago nire itxaropena.
- ⁹ Askatu nagizu nire dongakerietatik,
ez nagizu burubageen barregarri egin.
- ¹⁰ Mutututa nago, ez dot agorik zabaltzen,
Zeu zara au egin dozuna-ta.
- ¹¹ Aldendu nigandik zure zartadak,
zure eskuaren zigorrak ondatuta izten nau-ta.
- ¹² Utsakaitik asarre egiñik zigortzen dozu Zuk gizona,
zerenak lez jaten dozuz aren ondasunak:
gizona arnasaldi bat baiño ez da.
- ¹³ Entzun, Jauna, nire otoiiza,
egin jaramon nire deadarrai,
ez egin entzun-gor nire malkoai;
zure etxean arrotz nozu-ta,
atzerritar, nire guraso guztiak lez.
- ¹⁴ Baretu zaitetz, emoidazu arnasa,
ni ezer ez izatera joan baiño len!

α) **Gorapen-otoitzak (LAUDES I)**

1. *Abestu Jaunari ta onetsi Aren izena.*

95 (96)

- ¹ Abestu egiozue Jaunari kanta barri bat,
abestu Jaunari, lur guzti orrek;
- ² abestu Jaunari, onetsi Aren izena,
iragarri egunero Aren garaipena.

- ³ Azaldu erriai Aren aintza,
atzerri guztiari Aren mirariak;
- ⁴ Jauna aundia ta guztiz goragarria da-ta,
jainko guztiak baiño bildurgarriagoa.
- ⁵ Izan be, jentillen jainkoak itxurakeri uts dira;
Jaunak, ostera, zerua egin dau;
- ⁶ dedua ta aunditasuna doaz Aren aurrean,
indarra ta edertasuna dagoz Aren jauretxean.
- ⁷ Goratu Jauna, errietako sendiok,
goratu Jaunaren aintza ta indarra,
- ⁸ goratu Jaunaren izenaren aintza,
sartu Aren aterpeetan opariak ekarriez;
- ⁹ auspaztu zaitetze Aren aurrean aterpe santuan,
jarri daitela ikaraka lur osoa Aren aurrean.
- ¹⁰ Esan egiezue erriai: «Jauna da errege,
Berak sendotu eban lurra, eta ez dau zirkiñik egingo;
Bera da errien agintari zuzena».
- ¹¹ Poztu bedi zerua, alaitu lurra,
asi bedi burrundaraka itxasoa ta bertako dana;
- ¹² asi bediz goraka landak eta bertan dagoan guztia,
poztu daitezala basoko zugatzak,
- ¹³ Jaunaren aurrean, ba-dator-eta,
lurreko nagusi izatera dator-eta.
- ¹⁴ artez aginduko dau lurbiran,
eta zintzotasunez errietan.

2. *Jainko, nire argiaren osasun ori!*

42 (43)

- ¹ Egidazu zuzenbidea, Jainko, egin nire alde auzian,
erruki bagariko gizataldearen kontra;
gorde nagizu gizon maltzur eta gaiztoagandik.

- ² Zeu zara nire Jainko ta zaintzaille:
zegaitik bazartu nozu?,
zegaitik nabil illun
nire arerioak estutzen nauala-ta?
- ³ Bialdu zure argia ta egia;
eurak zuzendu ta eroan nagiola
zure mendi santura, zure Bizitokira.
- ⁴ Urreratu naitela ni Jainkoaren altarara,
nire poza dan Jainkoagana;*
emon dagitzudazala eskerrak zitara-otsez,
Jainko, nire Jainko!
- ⁵ Zegaitik larritzen zara, nire arima ori?,
zegaitik artegatzen zaiataz?
Itxaron Jaunagan, barriro be Bera goratuko dozu-ta:
«Nire arpegiaren osasun, ene Jainko!».

3. Argitu egiguzu zure arpegia, Jauna.

66 (67)

- ² Erruki bekigu ta onetsi gagizala Jaunak,
argitu daiskula bere arpegia:
- ³ ezagutu begiz lurrak zure bideak,
erri guztiak zugandiko osasuna.
- ⁴ Goratu zagiezala erriak, ene Jainko,
goratu zagiezala erri guztiak!*
- ⁵ Abestu begie pozez beterik atzerriak,
lurrean zuzentasunez agintzen dozu-ta,
lurreko atzerrien agintari zara-ta.
- ⁶ Goratu zagiezala erriak, ene Jainko,
goratu zagiezala erri guztiak!

- ⁷ Lurrak bere ekarria emon dau:
geure Jainko Jaunak bedeinkatu gaitu.
- ⁸ Bedeinkatu gagizala Jainkoak;
lurreko bazterralde guztiak be
bildur izan dagoiela.

4. Goratu egizue zuen egintzen bidez gizaldien Erregea.

Tobias'en abestia

(Tobias, 13)

- ² Bedeinkatua Jainkoa, beti bizi zara-ta;
gizaldietan irauten dau zure erregetzak:
zigortu egiten dau ta errukitu egiten da,
lezaraiño amiltzen dau, baita andik atara be,
eta ez da zure eskutik iges egin daitekenik.
- ³ Emon egiozue eskerrak, Israeldarrok, jentillen aurrean,
arein artean sakabanatu genduzan-eta.
- ⁴ Iragarri an Aren aunditasuna,
goratu egizue bizidun guztien aurrean:
Bera dala gure Jainko ta Jaun,
gure aita gizaldien gizaldietan.
- ⁵ Berak zigortzen gaitu gure gaiztakeriakaitik,
baña barriro errukituko da,
eta sakabanatuta zagozen
erri guztien artetik batuko zaitue.
- ⁶ Aregana biotz-biotzez
eta gogo biziiaz biurtzen ba'zaree,
zuen biotza zabaltzen dautsazuela,
zeuokana biurtuko da
eta ez dautsue bere arpegia estalduko.

- ⁷ Zuoi buruz egingo dauana ikusi
eta eskerrak emongo dautsazuez ago betean,
zuzentasun-Jauna bedeinkatuko dozue
eta gizaldien erregea goratuko.
- ⁸ Atxillotuta nagoala, nik eskerrak emoten dautsada,
Aren aunditasuna ta al-izatea iragarten dautsada
erri pekatariari.
Biurtu zaiteze, pekatariok,
egizue zuzen dana Aren aurrean;
biotz-bigun agertuko yatzue, bearbada,
eta erruki izango da.
- ⁹ Zeruko errege dan neure Jainkoa goratuko dot,
eta Aren aunditasunaz poztu egingo naz.

5. *Goratu egizue Jaunaren izena, Jaunaren etxean zago-
zenok!*

134 (135)

- ¹ Aleluia!
Goratu egizue Jaunaren izena,
goratu egizue, Jaunaren otseñiok,
- ² Jaunaren etxean zagozenok,
gure Jainkoaren etxeko ataurretan zagozenok.
- ³ Goratu egizue Jauna, ona da-ta;
jo egiozuez eresiak Aren izenari, maitagarri da-ta.
- ⁴ Jakob aukeratu eban Beretzat-eta,
Israel Bere ondasuntzat.
- ⁵ Ba-dakit nik Jauna aundia dana,
jainko guztiak baiño aundiagoa gure jabea.
- ⁶ Jaunak nai dauan guztia egin egiten dau:
zeruan eta lurrean,
itxasoetan eta itxas-zabaletan.

- ⁷ Odeiak lurraren baztarretik gora jasoten dauz,
oiñaztuakaz euria askatzen dau,
Bere gordetegietatik aizea askatzen dau.
- ⁸ Berak zauritu ebazan Ejipto'ko lensemeak,
gizonak eta abereak be bai.
- ⁹ Mirari ta ezaugarriak bialdu ebazan,
- zeure erdian, Ejipto -
Faraon'en eta onen morroien kontra.
- ¹⁰ Erri asko zauritu ebazan eriotzaz,
errege altsuak il ebazan:
- ¹¹ Sijon, amortarren erregea;
Og, Basan'go erregea,
eta Kanaan'go errege guztiak.
- ¹² Eta arein lurra Israel'i, bere erriari,
emon eutsan ondorentzat.
- ¹³ Beti-betikoa da, Jauna, zure izena;
zure gomutapena, Jauna, gizaldiz-gizaldi.
- ¹⁴ Jaunak bere erria zaindu
eta bere otseñai erruki yake-ta.
- ¹⁵ Jentillen jainko-irudiak zidar eta urre dira,
gizonen eskuak egindakoak:
- ¹⁶ agoa bai, eta barbarik ez,
begiak bai, eta ez dabe ikusten,
- ¹⁷ belarriak bai, eta ez dabe entzuten,
ez dauke agoan arnasarik.
- ¹⁸ Izan beitez orreïn antzeko orreik egiten dabezanak,
ustea orreïtan jarten dabenak.
- ¹⁹ Israel'en etxe, bedeinkatu egizu Jauna;
Aaron'en etxe, bedeinkatu egizu Jauna;
- ²⁰ Lebi'ren etxe, bedeinkatu egizu Jauna;
Jaunaren zintzook, bedeinkatu egizue Jauna.

- ²¹ Bedeinkatua Jauna Sion'en,
Jerusalen'en bizi dana.
Aleluia!

*Jaunak osasun-indar bat sortu dau bere otsein Dabid'en
etxean.*

«*Benedictus*»: 15 orri.

b) **Bigarren gorapen otoitzak (LAUDES II)**

1. *Garbitu nire errua, Jauna, zure erruki aundiagaitik.*

50 (51)

Erruki, ene Jainko, 41 orri.

2. *Egin nire alde auzian, Jauna, erruki bagariko gizatal-
dearen kontra.*

42 (43)

Egidazu zuzenbidea, Jainko, 89 orri.

3. *Erruki bekigu ta onetsi gagizala Jaunak.*

66 (67)

Erruki bekigu, 90 orri.

4. *Osatu egin nozu, Jauna, barriro biztu nozu.*

Ezekias'en abestia

(*Isaias*, 38)

- ¹⁰ Auxe esan neban nirekautan: «Nire egunen erdian,
ba-noa Lezako ateetarantz;
kendu egiten daustez gelditzen yatazan urteak».
- ¹¹ Auxe esan neban nirekautan:
«Ez dot Jauna geiago ikusiko bizidunen lurrean,
ez dot onezkero gizakirik ikusiko
lurreko bizilagunen artean.
- ¹² Artzain-txabola bat lez
izten eta batzen dabe nire bizia.
Eunlariak lez ariltzen neban nire bizia,
eta ebagi egiten dauste eundura.
Gau ta egun diarduzu ni ondatzen,
- ¹³ egunsentirarte nago negarrez.
Leoi batek lez zatitzen daustazuz azurrak,
gau ta egun diarduzu ni ondatzen.
- ¹⁴ Elaia lez nago txioka,
usua lez antzika.
Atzamatu egiten yataz begiak zerura begira:
estutu egiten nabe, Jauna, erantzun egizu nire ordez!
- ¹⁵ Zer esango ta asmatuko ete-dautsat,
ori egiten dauana Bera da-ta?
Iges egiten dau nigandik logurak
nire arimako samiañagaitik.
- ¹⁶ Jainkoaren laguntzapean dagozanak, bai, bizi dira,
eta arein artean bizi izango da nire espiritua;
osatu egin nozu, barriro biztu nozu.

(12) Eundura = trama del lienzo.

- ¹⁷ Samiña bake biurtu yatan
nire arima illobi utsaren aurrean gelditu zenduanean,
eta nire pekatu guztiai atzea emon zeutsenean.
- ¹⁸ Lezak ez daustu eskerrik emoten,
Eriotzak be ez zaitu goratzen,
eta illobira doazanak be
ez dabe zure zintzotasunean usterik.
- ¹⁹ Bizidunak, bai, bizidunak dira goratzen zaituenak;
nik orain lez.
Aitak erakusten dautse bere semeai zure zintzotasuna.
- ²⁰ Onik atara nagizu, Jauna, eta egun guztietan joko do-
gure arpak Jaunaren etxean. [guz

5. *Goratu egizue Jauna, ona da-ta; bere otseñiai erru-
ki yake-ta.*

134 (135)

Goratu egizue Jaunaren izena, 92 orri.

«Benedictus»: 15 orri.

Goizeko otoitza (PRIMA)

Ene Jainko, Zeugan dot ustea; ez nadilla lotsatuta gelditu.

24 (25)

- ¹ Zeugana jasoten dot nire arima, Jauna;
² ene Jainko!, Zeugan dot ustea;
ez nadilla lotsatuta gelditu,
ez nagiela nire arerioak azpiratu;

- ³ ustea Zeugan dabenak
ez dira lotsatuta gelditzen-eta;
saltzailleak, bai, orreixek lotsatuko dira.
- ⁴ Erakutsi egidazuz, Jauna. zure bideak,
adierazo egidazuz zure bide-zidorrak,
- ⁵ zuzendu nagizu zure egi-bidean;
irakatsi nagizu, Zeu zara nire Jainko ta Salbatzaille-ta.
zeure zain nago egun guztian-eta.
- ⁶ Gogoratu egizuz, Jauna, zure maitasuna ta errukia,
betikoak dira-ta;
- ⁷ ez gogoratu nire gaztaroko pekatuak eta gaiztakeriak;
gomuta zaitez nitzaz errukiz,
zeure maitasunarren, Jauna.
- ⁸ Jauna ona ta zuzena da,
eta pekatariari bidea erakusten dautse;
- ⁹ apalak artez daroaz,
apalai Bere bidea erakusten dautse.
- ¹⁰ Jaunaren bide-zidorrak errukia ta zintzotasuna dira,
Aren alkartasuna ta aginduak beteten dabezanentzat.
- ¹¹ Zure izenagaitik, Jauna,
parkatu egizuz nire erruak, asko dira-ta.
- ¹² Ba-da iñor Jaunari bildur dautsanik?
Berak erakutsiko dautso aukerako bidea:
- ¹³ alakoaren arima zoriontsu bizi izango da,
alakoaren ondorengoak lurraren jabe izango dira.
- ¹⁴ Zabaldu egiten yake Jauna bere zintzoai,
eta bere alkartasuna jakiñerazoten dautse.
- ¹⁵ Nire begiak Jaunagan dagoz geldi-geldi,
nire oiñak saretik Berak ataraten dauz-ta.

- ¹⁶ Begiratu nagizu, ene Jainko, eta erruki zakidaz,
soillik eta saminduta nago-ta;
- ¹⁷ zabaldu egidazu nire biotz estu au,
eta atara nagizu nire larrialdietatik.
- ¹⁸ Begiratu nere nekeak eta miñak,
eta parkatu nire pekatu guztiak;
- ¹⁹ ikusi zenbat diran nire arerioak,
niri dausten gorroto beroa.
- ²⁰ Gorde egizu nire bizia ta askatu nagizu,
ez naitela lotsatuta gelditu Zugana joatean.
- ²¹ Errubagetasunak eta zuzentasunak zainduko nabe,
Zeugan dot ustea-ta.
- ²² Onik atara egizu Israel, ene Jainko,
aren arrisku guztietatik.

Goizerdiko otoitza (TERTIA)

Jauna makurtu egin zan eta entzun egin eban nire deadarra.

39 (40)

- ² Ni Jaunaren zain-zain nengoan:
makurtu yatan eta entzun egin eban nire deadarra;
- ³ atara egin nenduan illobi ikaragarritik, lokatzatik;
nire oiñak arkaitz-gaiñean sendotu ebazan,
eta nire oiñak indartu;
- ⁴ agoan abesti bat ipiñi eustan,
ereserki bat gure Jainkoarentzat.
Ori ikustean, asko ikaratuta gelditu ziran,
eta Jaunagan ezarri eben ustea.
- ⁵ Zorionsu, bere ustea
Jaunagan jarten dauana,

- eta aspikeriz okertzen diran
sasi-jainkozaleakana joten ez dauana!
- ⁶ Ene Jainko Jauna, ugari be ugari
Zuk egin dozuzan mirariak,
Zuk geure alde bete dozuzan asmoak!:
ez dago zure ondoan jarri daitekenik.
Areik iragarri ta zabaldu nai neukez,
baiña zenbatu daikedazan baiño ugariago dira.
- ⁷ Zuk ez dozu oparirik ez eskintzarik nai,
baiña belarriak zabaldu zeustazan;
ez zenduan erre-oparirik nai;
- ⁸ orduan, auxe diñot: «Ona emen ni»
- neure liburuan idatzita dagoanez -;
- ⁹ «zeure naia egiteko».
Ene Jainko, nai dot,
eta erraietan daroat zure legea.
- ¹⁰ Zeure osasuna iragarri dot batzar nagusian;
ez dot nire ezpanik itxi:
ba-dakizu Zuk, Jauna.
- ¹¹ Ez dot itxi gordeta zure laguntza nire bularrean,
zeure legea ta osasuna iragarri dodaz;
ez dodaz ukatu zure errukia ta egia
batzar nagusian.
- ¹² Zuk, Jauna, ez itxi niri zure erraiak,
gorde naguela beti zure errukiak eta egiak;
- ¹³ ezbearrak inguratzen nabe ugari be ugari-ta,
nire erruak eskua ezarten dauste,
eta ezin dot igesik egin;
nire buruko uleak baiño ugariago dira,
eta ez dot adorerik.

- ¹⁴ Arren, Jauna, askatu nagizu,
etorri bizkor, Jauna, niri laguntza ekartera;
- ¹⁵ ondamendi gorria eroan begie
bizia kendu nai daustenak;
lotsaz gorri-gorri atzeraka egin begie
nire kaltea gura dabenak;
- ¹⁶ lotsaz mutututa gelditu beitez
nire lepotik barreka diarduenak.
- ¹⁷ Poztu ta alaitu bediz Zugaz
zeure billa dabizan guztiak;
Zeugandiko osasuna gura dabenak
esan begie beti: «Aundia da Jauna».
- ¹⁸ Ni, zoritxarreko gaiso bat naz,
baiña Jaunak zaintzen nau;
Zeu zara nire laguntza ta askatasun;
ez luzatu, ene Jainko!

Eguerdiko otoitza (SEXTA)

Osasunean irauten nozu, Jauna; zeure aurrean naukazu beti.

40 (41)

- ² Zoriontsu, makala ta txiroa zaintzen dauzana!
Egun baltzean alakoa Jaunak onik atarako dau.
- ³ Jaunak zaindu ta bizirik eukiko dau,
lurrean zoriontsu izan daiten;
eta ez dau aren arerioen menpean izten.

- ⁴ Jaunak eutsiko dautso ogeko miñetan,
Berak kenduko dautsaz aren geisoko miñak.
- ⁵ «Erruki zakidaz, Jauna —esan neban nik —;
osatu nagizu, zeure kontra egin dot pekatu-ta!».
- ⁶ Nire arerioak txarrena opa dauste:
«Noiz ilgo da ori ta noiz galduko da orren izena?»
- ⁷ Ni ikustera datorrenak uskeriak esaten dauz,
estaldu egiten dau bere asmo txarra,
eta kanpora joatean, esan egiten dau.
- ⁸ Nire arerioak neure kontra egiteko batzen dira,
mormoxetan egiteko;
neuri leporatzen dauste ni joten nauan ezbearra.*
- ⁹ «Gaitz ilgarriren bat jausi yako gaiñera,
ogean etzun dan ori ez da barriro jagiko».
- ¹⁰ Nik ustea neban eta nire ogia jaten eban
nire adiskidea bera be
gertu-gertu dago ni saltzeko.*
- ¹¹ Baiña Zu. Jauna, erruki zakidaz;
jaso nagizu, euren ordaiña emon dagitsedan.
- ¹² Onetantxe dakit maite nozuna:
nire arerioa nire lepotik ez dala poztuko.
- ¹³ Ni, ostera, osasunean irauten nozu,
zeure aurrean naukazu beti.
- ¹⁴ Bedeinkatua Jauna, Israel'en Jainkoa,
orain eta beti! Amen, amen.

41 (42)

- ² Basauntza ur-bizien billa dabillenez,
alantxe dabil, ene Jainko, zure billa nire arima;
- ³ Jainkoaren egarri da, Jainko biziaren egarri;
noiz joango ete-naz Jainkoaren arpegia ikustera?*

- ⁴ Gau ta egun, negar-malkoak dira nire ogi,
«Nun da zure Jainkoa?»
egun guztian dirausten artean.
- ⁵ Beste aldi batzuk dakadaz gogora,
eta arima urtu egiten yat barruan:
gizataldearen aurrean joaten nintzala
Jainkoaren etxerantz,
poz-deadarka ta goraka,
jai egiten ziarduen artean.*
- ⁶ Zegatik larritzen zara, nire arima ori?,
zegaitik artegatzen zaiataz?
Itxaron Jaunagan, barriro be Bera goratuko dozu-ta,
«Nire arpegiaren osasun, ene Jainko!».
- ⁷ Nire arima larritzen danean ekarten zaitut gogora,
Jordan'dik eta Ermon'dik eta Mendi Txiki'tik.
- ⁸ Leza batek beste leza bati egiten dautso dei
uriol-zaratotsez:
zure errekek eta olatuak gaiñetik igaro yataz.
- ⁹ Egunez, Jauna nitzaz erruki izango da,
eta gabez, neure bizia dan Jainkoaren gorapena abes-
- ¹⁰ Auxe esango dautsat Jainkoari: [tuko dot.
«Ene Arkaitz, zegaitik aztuten nozu?,
zegaitik nabil illun,
nire arerioak estutzen nauala?»
- ¹¹ Ausi egiten yataz azurrak
arerioaren iraiñez;
«Nun da zure Jainkoa?»
dirauste egun guztian.
- ¹² Zegaitik larritzen zara, ene arima ori?,
zegaitik artegatzen zaiataz?

Itxaron Jaunagan, barriro be Bera goratuko dozu-ta:
«Nire arpegiaren osasun, ene Jainko!».

Bezerdiko otoitza (NONA)

*Zeuk atara genduzuzan onik, Jauna; beti emoten dautsaguz
eskerrak zure izenari.*

43 (44)

- ² Geure belarriak entzun eben, Jainko,
geure gurasoak azaldu eskuen:
arein egunetan, antxiñako egunetan,
Zuk egin zenduan lana.
- ³ Zeuk jaurti zenduzan kanpora atzerritarak zure es-
eta areixek jarri zenduzan; [kuaz.
erriak birrindu egin zenduzan,
eta areik ugaritu.
- ⁴ Ez zan izan arein ezpata lurraren jabe egin zana-ta,
ezta arein besoa be garaipena emon eutsena,
zeure eskuma ta besoa ta zure arpegiaren argia baiño,
maite zenduzan-eta.
- ⁵ Nire Errege ta Jainko Zeu zara,
Jakob'i garaipena emoten dautsazun oril
- ⁶ Zeure laguntzaz ondatu genduan arerioa,
zeure izenaz zapaldu genduan gure kontra etorrena:
- ⁷ nire itxaropena nire uztaiian ez dago-ta,
nire ezpatak be ez nau garaille egin;
- ⁸ Zeuk emoten dauskuzu garaipena arerioen kontra,
Zeuk zapaltzen dozuz gure arerioak.
- ⁹ Jainkoagan arrotu gara beti,
eta beti emoten dautsaguz eskerrak zure izenari.

- ¹⁰ Orain, ostera, baztatu ta lotsatu egin gaituzu,
gure gudaroztekaz ez zara orain urteten, Jauna:
- ¹¹ iges eragiten dauskuzu arerioaren aurrean,
eta gure arerioak lapurretan egiten dauskue;
- ¹² eriotzarako doazan ardiak lez izten gaituzu arein es-
eta atzerrien artean sakabanatu gaituzu. [kuetan,
- ¹³ Utsean saltzen dozu zure erria,
eta aren ordaiñaz ez dozu ezer irabazten.
- ¹⁴ Gure auzokoen lotsagarri egiten gaituzu,
gure ingurukoen barregarri ta iraingarri.
- ¹⁵ Izen-txar egiten gaituzu atzerrien artean,
erriak buruari eragiten dautsoe gugaitik.
- ¹⁶ Egun guztian neure gerena daukat aurrean,
eta lotsariak estaltzen daust arpegia,
- ¹⁷ iraiñak eta biraoak entzutean,
nire kontrakoa ta arerioa ikustean.
- ¹⁸ Guzti au datorkigu gaiñera,
Zutzaz aztu ez garanarren,
zure alkartasuna ausi ez dogunarren,
- ¹⁹ gure biotzak atzeraka egin ez ebanarren,
gure oiñak be zure bidea itxi ez ebanarren;
- ²⁰ eta Zuk txakurtegira jaurti genduzuzan,*
eta illunpez estaldu genduzuzan.
- ²¹ Gure Jainkoaren izena aztu izan ba'genduan
edo erbesteko jainko bategana jaso gure eskuak,
- ²² Jainkoak igarri egingo leuskion,
biotzeko ezkutuak ezagutu egiten dauz-ta.
- ²³ Eriotzara eroaten gaitue egunero Zugaitik,
eriotzara daroegan ardiak lez garabillez.

- ²⁴ Iratzartu zaitetz, Jauna, zegaitik zagoz lo?
Jagi zaitetz, ez gagizuz aurrerantzean baztatu.
- ²⁵ Zegaitik gordeten dauskuzu zure arpegia?,
eta gure estu ta larria aztu?
- ²⁶ Gure arnasa autsetan ondatzen da,
gure sabela lurrari itsasita dago.
- ²⁷ Zutundu zaitetz guri laguntza ekartera,
askatu gagizuz zure errukiagaitik!

Arrats-otoitza (BEZPERAK)

1. Zeruan bizi zaran Ori, erruki zakiguz.

122 (123)

- ¹ Zeugana jasoten dodaz nire begiak,
zeruan bizi zaran Orregana.
- ² Morroien begiak euren ugazaben eskuai
begira-begira dagozanez,
mirabearen begiak bere etxekandrearen eskuai
begira-begira dagozanez,
olantxe dagoz gure begiak
gure Jainko Jaunagana,
Beronen errukiaren zain.
- ³ Erruki, Jauna, erruki,
destaiñez ok eginda gagoz-ta;
eukitsuen eztenkadaz,
arroen destaiñez,
ok eginda dago gure arima.

2. *Gure laguntza Jaunaren izena da.*

123 (124)

- ¹ Jauna gure alde egon ez ba'litz
- esan dagiala Israel'ek - ,
- ² Jauna gure alde egon ez ba'litz,
gizonak gure kontra erasoka etozanean,
- ³ bizirik iruntsiko gendukiezan,
gure kontra sumiñez erreten etozan-eta;
- ⁴ urak narraz eroango gendukiezan,
errek(e)a samaraiño elduko litzakigun;
- ⁵ urak, bitsa dariela,
samaraiño elduko litzakiguzan.
- ⁶ Bedeinkatua izan bedi Jauna,
ez genduzan arein agiñen arrapakin egin-eta!;
- ⁷ gure biziak txoriak lez egin dau iges
eiztariaren saretik;
sarea ausi egin zan, eta guk iges egin genduan.
- ⁸ Gure laguntza Jaunaren izena da,
zeru-lurrak egin ebazanarena.

3. *Jaunak inguratzen dau bere erria orain eta beti.*

124 (125)

- ¹ Ustea Jaunagan dabenak, Sion Mendia lakoak dira:
ez dau ikararik egiten, betiko sendotuta dago.
- ² Jerusalem mendiz inguratuta dago,
eta Jaunak inguratzen dau bere erria
orain eta beti.

- ³ Ez da jausiko gaiztoen aginpide-zigorra
zintzoen arloaren gaiñera;
zintzoen eskuak dongakerira
zabaldu ez daitezkan.
- ⁴ Emon, Jauna, ondasunak zintzoai,
biotz-zintzo diranai;
- ⁵ eta bide okerretatik doazanak,
baztatu dagizala Jaunak gaizkilleakaz batera,
Bakea Israel'i!

4. *Jaunak errime jokatu dau gure alde, eta pozik gagoz.*

125 (126)

- ¹ Jaunak Sion'en zoria aldatu ebanean,
amesa zala geritxagun;
- ² agoa barrez beteten yakun,
miñña abestiz.
Jentillak auxe esateraiño:
«Jaunak errime jokatu dau arein alde».
- ³ Jaunak errime jokatu dau gure alde,
eta pozik gagoz.
- ⁴ Aldatu dagiala Jaunak gure zoria,
Negeb'eko erreka lez.*
- ⁵ Negarrez ereiten ebenak
kantaka batuko dabe.
- ⁶ Joatean, negarrez yoian,
azia eroanez;
biurtzean, kantaka biurtzen da,
bere gari-eskutak ekarriez.

5. *Etxea Jaunak egin dagiala, ta gorde dagiala uria.*

126 (127)

- ¹ Etxea Jaunak egiten ez ba'dau,
alperrik nekatzen dira etxegilleak;
uria Jaunak zaintzen ez ba'dau,
uri-zaiñak alperrik dagoz zuur.
- ² Alperrik yatzue goiz jagitea,
berandu lotara joatea,
zuen izerdien ogia jatea
Jainkoak emoten dautse bere adiskideai, lo dagozan ar-
- ³ Semeak dira Jaunak emoten dauan ondorena; Itean!
bere lan-saria, sabeleko frutua:
- ⁴ gudariaren eskuan geziak lez dira
gaztaroko semeak;
- ⁵ zoriontsu, gezi-ontzia arekaz beteten dauana;
ez dau galduko uriko atean bere arerioagaz
auzia egin dagianean.

Nire gogoa Jainko nire Salbatzailleagan poztuten da.

«Magnificat»: 37 orri.

Illuntzeko otoitza (AD COMPLETORIUM)

Zeuk gordeko gaituzu, Jauna; betiko askatuko gaituzu.

11 (12)

- ² Onik atara gagizuz, Jauna, zintzorik ez dago-ta;
gizartetik egiak iges egin dau-ta.
- ³ Guzurra esaten dautsoe euren lagun-urkoari,
ezpan maltzurrez egiten dabe berba, eta biotz bikotxez.

- ⁴ Atara begi Jaunak zusterretik ezpan maltzurak
eta miin arroa,
- ⁵ baita, «miiña da gure indarra,
gure ezpanak geure alde dagoz:
nor izango da gure ugazaba?» diñoenak be.
- ⁶ «Apalen larriagaitik, beartsuen negar-aienagaitik,
Neu jagiko naz — erantzuten dau Jaunak —,
Neuk atarako dot onik osasuna gura dauana».
- ⁷ Jaunaren berbak berba jatorrak dira,
lur-azaleko zidar utsa,
zazpi aldiz garbitua.*
- ⁸ Zeuk gordeko gaituzu, Jauna,
Zeuk askatuko gaituzu betiko, giza-mota onegandik,
- ⁹ usanak lez giza-odola miazkatzeko
inguruan dabizanen gaitzoakandik.

12 (13)

- ² Noiz arte aztuko nozu, Jauna?
Noiz arte estalduko daustazu zure arpegia?
- ³ Noiz arte izango dodaz larrialdiak,
estualdia gau ta egun nire biotzean?
Noiz arte jardungo dau irabazten nigan nire arerioak?
- ⁴ Begiratu nagizu, ene Jainko Jaun orrek,
eta erantzun egidazu!
Argitu egizuz nire begiak,
eriotz-loak artu ez nagian;
- ⁵ nire arerioak esan ez dagian:
«Irabazi egin dautsat!»;
ez daitela nire arerioa poztu nire utsegiñaz.
- ⁶ Nik zeure errukian dot ustea-ta;
poztu egidazu biotza zure laguntzaz,
eta Jaunari abestuko dautsat egin daustan onagaitik!*

(9) Usanak = sanguijuelas.

- ⁸ Zuzentasuna maite izan dozu,
eta gaiztakeriari gorroto izan dautsazu:
orregatik, zure Jainko Jaunak
poz-orioz igurtzi zaitu
zure lagun guztien gainetik.
- ⁹ Mirra, aloa ta kasia-usaiña darie zure jantziari,
arpa-otsak atsegintzen zaitue marfilezko jauregietatik.
- ¹⁰ Errege-alabak datorkizuz bidera;
zure eskuman, zutik, erregiña dago,
Ofir'ko urrez apainduta.

2. *Erriak gizaldiz-gizaldi goratuko zaitue, Jauna.*

44 (45)

- ¹¹ Entzun, alaba, begira: makurtu belarriok,
aztu zure erria ta zure aitaren etxea:
- ¹² erregea zure edertasunez zaletuta dago;
auspaztu zaitez Aren aurrean,
Bera da zure jauna-ta.
- ¹³ Tiro'ko uria eskintzakaz dator,
erririk aberatsenak zeure ederra billatzen dabe.
- ¹⁴ Ba-dator erregearen alaba, guztiz apain,
urrez eiotako soiñekoaz jantzita;
erregearen aurrera daroe, neskak atzetik,
gero aren lagunak.
- ¹⁵ Soiñu ta txalo artean dakarrez,
erregearen jauregian sartzen dira.
- ¹⁶ «Zure gurasoen orde, semeak izango dozuz,
nagusi egingo dozuz lur zabalean».
- ¹⁶ Zure izena gomutagarri egin nai dot gizaldiz-gizaldi,
eta erriak mendez-mende goratuko zaitue.

3. *Jainkoa da gure zaintzaille arriskuan.*

45 (46)

- ² Jainkoa da gure gordeleku ta indar,
arriskuan laguntzaille altsua.
- ³ Orregatik, ez gara bildurtzen
lurra ikaraka asi ba'daite be,
mendiak itxasora jausi ba'daitez be.
- ⁴ Aren olatuak gainez eta orro egin dagiela,
astindu dagiezala sumiñez mendiak:
Gudarozteen Jainkoa gugaz,
Jakob'en Jainkoa dogu gaztelu.
- ⁵ Ibai-besoak poztu egiten dabe Jainkoaren uria,
Gorengoak santutu egiten dau bere bizitokia.
- ⁶ Erdian Jainkoa izanik, ez dau zirkiñik egiten,
Jainkoak eriaten dautso laguntza egunsentia eltzean.
- ⁷ Erriak orroka diardue, erregeak kontra jagiten dira:
bañia, Arek bere trumoa jaurti
ta lurak dardar egiten dau.
Gudarozteen Jainkoa gugaz,
Jakob'en Jainkoa dogu gaztelu.
- ⁹ Etorri Jaunaren lanak ikustera,
lurrean egiten dauzan mirariak ikustera:
- ¹⁰ lur-baztarrerairiño geldi-azoten dau guda,
uztaiak ausi, aztamakillak erdibitu,
babeskiñai sua emoten dautse.
- ¹¹ «Naiko da, ezagutu egizue Neu nazana Jainkoa:
erriak baiño nagusiagoa, lurra baiño nagusiagoa».
- ¹² Gudarozteen Jauna gugaz,
Jakob'en Jainkoa dogu gaztelu.

4. Jauna aundia da, eta guztiz goragarria gure Jainkoaren urian.

47 (48)

- ² Jauna aundia da, eta guztiz goragarria gure Jaunaren urian.
- ³ Aren Mendi Santua, edertasunez jasoa,* lur osoaren poza:
Sion-mendia, zeruko muga,
errege aundiaren uria.
- ⁴ Jainkoa bere jauregietan gaztelu lez agertzen da.
- ⁵ Begira; erregeak alkartu egin ziran, guztiak batera Aren kontra;
- ⁶ baiña, ikusi orduko,
bat-batean ikaratuta gelditu ziran,
eta iges egin eben itxumustuan;
- ⁷ ikara batek artu ebazan an,
seiña egiteko dagoanaren antzekoak;
- ⁸ basamortuko aizeak Tarsis'ko itxas-ontziak ondutzen dauzan antzera.*
- ⁹ Entzun izan genduana ikusi dogu Gudarozteen Jaunaren urian,
gure Jainkoaren urian;
Jainkoak betiko sendotu dauala.
- ¹⁰ Zeure errukia ausnartzen dogu, Jauna, zure jauretxe-erdian:
- ¹¹ zure izena lez zure gorapena, Jainko, lurraren azkeneraiño eltzen da;
zuzentasunez beterik dago zure eskuma:
- ¹² Sion-mendia poztu egiten da,
Juda'ko uriak poztu egiten dira zure erabagiakaz.*

- ¹³ Bira egizue Sion-inguruan,
aren torreak zenbatuez;
- ¹⁴ begira aren arresiak,
begira aren jauregiak:
urrengo gizaldiari esan al dagiozuen:
- ¹⁵ «Auxe da gure Jainko Jauna».
Berak eroango gaitu beti ta beti.

5. Nire agoak jakintsu egingo dau berba, eta zuurtasunez esango dodaz nire bururakizunak.

48 (49)

- ² Entzun au, erri guztiok;
aditu au, lureko bizilagun guztiok;
- ³ be-maillako ta aundikiok,
aberatsok eta txirook.
- ⁴ Nire agoak jakintsu egingo dau berba,
eta zuurtasunez esango dodaz nire burubideak;
- ⁵ adi-adi entzungo dot esakera,
eta nire asmakizuna zitara-otsez agertuko dot.
- ⁶ Zegaitik izan bildur egun baltzai,
gaiztoak inguratu ta zirikatu nagienean?
- ⁷ Euren ondasunean jarten dabe ustea,
eta euren aberastasun aundietan arrotzen dira.
- ⁸ Izan be, eurerariko bat be ezin onik urten daiteke,
batek be ezin emon daikeo bere ordaiñik Jainkoari.
- ⁹ Biziaren erospena oso baliotsua dan ezkerok,
ez dabe naiko izango
- ¹⁰ betiko bizi izateko,
illobira jatsi bagarik.

- ¹¹ Begira: jakitunak il egiten dira,
zoroak eta zuzenbakeak galtzen diranez,
eta euren ondasunak beste batzuei izten dautseez.
- ¹² Illobiak dira arein bizitokiak betiko,
baita arein etxeak be gizaldiz-gizaldi,
lurraldeai euren izena emon ba'dautsee be.
- ¹³ Gizonak ez dau bere ondasunetan irauten,
abereak lez ilten da, ostera.

6. Ez bildurtu; ondasunak ez dira aberatsagaz illobira
jatsiko.

48 (49)

- ¹⁴ Auxe da ustea euren buruan jarten dabenen bidea,
auxe da buru-eritxien gerokoa;
- ¹⁵ lezarako artalde dira,
eriotza dabe artzain,
eta illobira doaz zuzen-zuzen,
arein irudia ezereztu egiten da,
leza da arein etxea.
- ¹⁶ Ni, ostera, Jainkoak ataraten nau onik,
lezako erpetatik askatu egiten nau
eta Beragaz eroaten nau.
- ¹⁷ Ez bildurtu, gizona aberasten ba'da,
aren ondasunak gora egiten ba'dabe.
- ¹⁸ il daitenean, ez dau beragaz ezer eroango,
aren ondasunak ez dira aregaz jatsiko.
- ¹⁹ Bizi zan artean bere burua olan bedeinkatzen ebanarren
«Ederto zaindu dozu burua gerol, dirauste»; Ibe.
- ²⁰ bere gurasoen jatorriaz alkartzera joango da,
iñoiz be argirik ez ikusteko.

- ²¹ Gizon aberats eta burubagea,
ilten dan aberearen antzeko da.

1'go Atala:

7. Jaunak, jainkoen Jainkoak egiten dau berba.

49 (50)

- ¹ Jaunak, jainkoen Jainkoak egiten dau berba:
dei egiten dautso lurrari
sortzaldetik sartzalderaño.
- ² Edertasun utsa dan Sion'dik
Jainkoa dirdir agiri da:
- ³ geure Jainkoa dator, eta ez da ixilduko.
Su kiskaltzaillea Aren aurretik,
sekulako ekatxa Aren inguruan.
- ⁴ Dei egiten dautse goitik zeru-lurrai,
bere erria ebazteko:
- ⁵ «Batu egizuez nire adiskideak,
nire alkartasuna opariaz sendotu ebenak!».
- ⁶ Iragarri begi zeruak Aren zuzentasuna:
auzi-ebazlea Jainkoa bera da-ta.
- ⁷ «Aditu, nire erri orrek, berba egin bear dautsut-eta;
Isarel, zeure kontra autortu bear dot,
neuk, Jainkoak, zeure Jainkoak.
- ⁸ Ez dirautsut ezer zure opariak buruz,
zure erre-opariak beti daukadaz aurrean-eta.
- ⁹ Baiña, ez dot zure etxetik txaltxorik onartuko,
ezta akerrik be zure artaldetik:
- ¹⁰ basoko pistiak neureak dira-ta,
millaka abere nire mendietan.

- ¹¹ Zeruko txori guztiak ezagutzen dodaz,
neure dot landetan bizi dan guztia.
¹² Gose ba'nintz, ez neuskizu esango:
lurbira ta onek artzen dauana neure da-ta.
¹³ Zezenen okela jan bear izango ete-dot, ba?,
edo-ta akerren odola edan?
¹⁴ Eskiñi Jainkoari gorapen-opari bat,
bete zure zin-eskintzak Gorengoari,
¹⁵ eta dei egidazu arrisku-egunean:
Nik askatu egingo zaitut,
eta zuk goratu egingo nozu».

8. *Ulertu au ondo, Jainkoa aztuten dozuenok!*

49 (50)

- ¹⁰ Gaiztoari auxe dirautso Jainkoak:
«Zetan diarduzu zuk nire aginduak esaten,
eta zure agoan nire alkartasuna artzen?,
¹⁷ nire irakaspena baztarten
eta nire berbak lepora jaurtiten dozuzan orrek?
¹⁸ Lapur bat ikusten dozunean, aregaz zoaz,
zantarrakaz naasten zara;
¹⁹ zure agoa gaiztakerirako askatzen dozu,
zure miñiak maltzurkeria eratzen dau;
²⁰ zure anaiaren kontra berba egiteko jesarten zara,
zure amaren semeari izen ona kendu egiten dautsazu;
²¹ orixe egiten dozu zuk;
eta ixillik egon bear ete-dot?
Ni zeu lakoxea nazala uste dozu, ala?
Salatu ta aurrez-aurre erantzungo dautsut».
²² Ulertu au ondo, Jainkoa aztuten dozuenok,
zaititu ez zagiedazan noraezean;

- ²³ esker-opariak eskintzen daustazanak
goratu egiten nau;
bide onari jarraitzen dautsanari
Jainkoagandiko osasuna erakutsiko dautsat.

9. *Opari jatorrak onartuko dozuz, Jauna, zure altara-gaiñean.*

50 (51)

- ³ Erruki, ene Jainko, zure ontasunagaitik,
garbitu nire errua zure erruki aundiagaitik.
⁴ Kendu zearo nire dongakeria,
garbitu nire pekatua.
⁵ Ezagutzen dot, bai, nire gaiztakeria-ta,
nire pekatua beti neure aurrean daukat.
⁶ Zeure kontra, zeure kontra bakarrik egin dot pekatu,
Zuk iguintzen dozun gaiztakeria.
Zuzena izango zara epaia emotean,
errubagea izango zara ebaztean.
⁷ Begira: errudun jaiio nintzan,
nire amak pekatari sortu nenduan.
⁸ Biotz zintzoa atsegin yatzu,
eta nire barruan jakituria irakasten daustazu.
⁹ Itze-bedarraz busti nagizu: garbi geldituko naz;
garbitu nagizu,
eta edurra baiño zuriago geldituko naz.
¹⁰ Entzun-azo niri atsegiña ta poza,
alaitu bediz azur ausiok.
¹¹ Aldendu zure arpegia nire pekatutik,
garbitu nire pekatu guztiak.

- ¹² Egin nigan, Jainko, biotz garbi bat,
barriztu nire barruan gogo sendo bat;
- ¹³ ez nagizu jaurti zure arpegitik urrun,
ez egidazu kendu zure arnasa santua;
- ¹⁴ biurtu egidazu zure osasun-poza,
sendotu nagizu zintzotasun-arnasaz.
- ¹⁵ Gaiztoai zure bideak erakutsiko deutsedaz,
pekataria Zeugana biurtuko dira.
- ¹⁶ Odoletik atara nagizu, Jainko,
ene Jainko, nire Salbatzaille orrek!,
eta nire miiñak zeure zuzentasuna abestuko dau.
- ¹⁷ Jauna, nire ezpanok zabaldu egingo dozuz,
eta nire agoak zeure gorapena iragarriko dau.
- ¹⁸ Ez dozu oparirik atsegiñez ikusten;
erre-oparirik eskiñi ba'negizu,
ez zeuke onartuko.
- ¹⁹ Nire oparia gogo damutua da;
biotz damutua ta apala ez dozu baztartzten Zuk.
- ²⁰ Lagun zakioz Sion'i, Jauna, zure ontasunagaitik,
barriztu egizuz Jerusalem'go arresiak:
- ²¹ orduantxe onartuko dozuz opari jatorrak,
eskintzak eta erre-opariak,
orduantxe eskiñiko yatzuz zekorrak
zure altara-gaiñean.

2'garren Atala:

7. Jaunak, jainkoen Jainkoak egiten dau berba.

49 (50)

¹ Jaunak, jainkoen Jainkoak: 117 orri.

8. Eskiñi egiozu Jainkoari gorapen-opari bat.

49 (50)

⁷ Aditu, nire erri orrek: 117 orri.

9. Ulertu au ondo, Jainkoa aztuten dozuena!

49 (50)

¹⁰ Gaiztoari auxe dirautso Jainkoak: 118 orri.

a) **Gorapen-otoitzak (LAUDES I)**

1. Jauna da errege, lurra pozetan.

96 (97)

- ¹ Jauna da errege, lurra pozetan,
ugarte ugariak pozez beterik.
- ² Illunak eta Odeiak inguratzen dabe,
Zuzentasunak eta Bidezko danak
eusten dautsoe Aren aulkiari.
- ³ Sua doa Aren aurrean,
arerioak inguruan kiskalduez;
- ⁴ bere oiñaztarriak argitzen dabe lurbira,
eta ori ikustean, lurra ikaraka asten da;
- ⁵ mendiak argizaria lez urtzen dira
lur guztiaren jabearen aurrean.
- ⁶ Zeruak Aren zuzentasuna iragarten dau,
eta erri guztiak ikusten dabe Aren aintza;
- ⁷ irudiak gurtzen dabezanak, lotsaz gorri-gorri jarten dira,
baita euren arrokeria
jainko-irudietan jarten dabenak be;
Aren aurrean auspazten dira jainko guztiak:

- ⁸ Sion'ek ori entzun, eta poztu egiten da.
Zure erabagiakaitik, Jauna,
Juda'ko uriak poztu egiten dira;*
- ⁹ Zu, Jauna, erri guztien gainean
gorengoa zara-ta,
jainko guztien gainetik zagozana.
- ¹⁰ Txarrari gorroto dautsoenak, Jaunak maite egiten dauz,
zaindu egiten dau bere zintzoen bizia
eta gaitztoen eskutik atara.
- ¹¹ Argia sortzen yako zintzoari,
eta poza biotz-zuzenai.
- ¹² Poztu zaitzeze, zintzook, Jaunagaz,
ospatu egizue Aren izen santua.

2. *Zeuri, Jainko orri, zor yatzu ereserkia Sion'en.*

64 (65)

- ² Zeuri, Jainko orri, zor yatzu ereserkia Sion'en;
zeuri beteten dautsuez zin-eskintzak,
- ³ Zuk eskariak entzun egiten dozuz-ta.
Zeugana datoz gizaki guztiak
- ⁴ euren erruakaitik;
gure gaiztakeriak azpian artzen gaitu,
baiña Zuk parkatu egiten dozuz.
- ⁵ Bai zoriontsu Zuk aukeratzen eta urreratzen dozuna,
zeure aterpeetan bizi daiten!
Bete gaitzezala zure etxeko ondasunez,
zure jauretxeko sari santuz!
- ⁶ Zuzentasunezko mirariakaz erantzuten dauskuzu,
gure Jainko Salbatzaille orrek,
lurreko muga guztien
eta urruneko itxasoen itxaropen Orrek!;

- ⁷ al-izatez beterik,
zure indarraz mendiak sendotzen dozuzan Orrek;
- ⁸ itxasoaren durundotsa, olatuen durundotsa
eta errien zaratotsa ixilleraizotzen dozuzan Orrek!
- ⁹ Lurreko azken-mugan bizi diranak bildurrez dagoz
zure ezaugarrien aurrean,
eta goiz-arratseko ateak zearo poztuten dozuz.*
- ¹⁰ Zeuk zaintzen eta bustiten dozu lurra,
eta ondasunez beteten dozu;
Jainkoaren erreka urez gainezka dago,
Zeuk atontzen dozuz garitzak:
- ¹¹ aren erretanak bustiez, aren mokillak bardinduez,
sirimiriaz bigunduez, aren kimuak bedeinkatuez;
- ¹² zeure ontasunez burutzen dozu urtea,
zure bideai ugaritasuna darie;
- ¹³ basamortuko larrari izerdia darie,
eta menditxoak pozez apaintzen dira;
- ¹⁴ zelaiaik artaldez estaltzen dira,
eta ibarrak gariz jazten dira:
arein poz-deadarrak eta abestiak!

3. *Zeureztat da nire soiñua, Jauna; bide zuzen-zuzena azaldu bear dot.*

100 (101)

- ¹ Ontasuna ta zuzentasuna abestu bear dodaz,
Zeureztat da nire soiñua, Jauna;
- ² bide zuzen-zuzena azaldu bear dot,
noiz etorriko zara nigana?*
- Biotz zuzenez ibiliko naz
nire etxe-barruan;

- ³ nire begiak ez dodaz
 asmo doillorretan ezarriko;
 iguindu egiten dot gaizkillea,
 ez da nigaz alkartuko;
- ⁴ urrun nigandik biotz okertua,
 ez dot gaiztoa onartuko.
- ⁵ Azpikeriz lagun-urkoaren izen ona loitzen dauana
 ixillerazo egingo dot;
 begi-arroak eta biotz-arroputzak
 ez dodaz iruntsiko.
- ⁶ Zintzo diranakan ezarten dodaz nire begiak,
 neugaz bizi izango dira;
 bide zintzo-zintzoari jarraitzen dautsanak,
 orrexek otseinduko nau;
- ⁷ iruzurrik egiten dauan inñor
 ez da nire etxean bizi izango;
 guzurrak esaten dauzanak
 ez dau nire aurrean iraungo;
- ⁸ goizero ixillerazoko dodaz
 gizon gaiztoak,*
 gaizkille guztiak
 Jaunaren uritik kanpora kentzeko.

4. *Jauna, zu aundia zara, eta ikusgarria zure indarra.*

Judit'en abestia

(*Judit*, 16)

- ¹⁵ Kanta barri bat abestuko dautsat Jainkoari:
 Jauna, zu aundia ta goragarria zara,
 ikusgarria zure indarraz, garaitu-eziña.
- ¹⁴ Otseindu zagizala izadi guztiak,

- Zeuk agindu ta izan,
 zeure arnasa bialdu ta egin egin zenduan-eta;
 ez da ezer zuri gogor egingo dautsunik.
- ¹⁵ Olatuak mendien oiñarriak astindu egingo dabez,
 atxak zure aurrean argizaria lez urtuko dira,
 baiña Zu biozpera izango zakiez zure zintzoai.
- ¹⁶ Izan be, gutxi balio dabe usain gozozko opariak,
 eta ezer be ez erre-oparien koipeak;
 Jaunari bildur dautsana, ostera, aundi izango da beti.
- ¹⁷ Zoritxarreko, nire enda erasoten daben erriak!
 Jaun guztiz altsuak zigortuko dauz
 epai-egunean;
 sua ta arrak sartuko dauz arein aragian
 eta negar egingo dabe miñez beti ta beti.

5. *Jauna goratuko dot bizi nazan artean.*

145 (146)

- ¹ Aleluia!
 Goratu egizu Jauna, ene arima orrek;
- ² Jauna goratuko dot bizi nazan artean,
 neure Jainkoarentzat joko dot nazan artean.
- ³ Ez jarri itxaropenik nagusiakan,
 inñor onik atara ez daikeen autsezko izakiakan;
- ⁴ azken-arnasa emoten dabe ta autsera biurtzen dira,
 egun orretantxe galtzen dira arein asmoak.
- ⁵ Zorionsu, Jakob'en Jainkoak laguntza emoten dautsa-
 ustea bere Jainko Jaunagan jarten dauana! Ina,
- ⁶ Bera da zeru-lurrak,
 itxasoa ta an dagoan guztia egin dauzana;
 Bere zintzotasuna beti iraun-azoten dauana,

- ⁷ zapalduai zuzentasuna egiten dautsena,
gosetuai ogia emoten dautsena.
Lotuak Jaunak askatzen dauz,
⁸ itsuari begiak Jaunak argitzen dautsaz,
makurtu-zorian dagozanak Jaunak ipinten dauz zuzen,
Jaunak maite dauz zintzoak,
⁹ Jaunak gordeten dauz bidez doazanak,
umezurtza ta alarguna janaritzen,
eta gaitztoen bidea naasten.
¹⁰ Jauna errege da beti,
zure Jainkoa, Sion!, gizaldien gizaldietan.
Aleluia!

Gure gorrotatzaille guztien eskutik Jaunak onik ataraten gaitu.

<Benedictus>, 15 orri.

b) **Bigarren Gorapen-otoitzak (LAUDES II)**

1. *Kendu zearo, Jauna, nire dongakeria.*

50 (51)

Erruki, ene Jainko, 119 orri.

2. *Parkatu egiten dozuz, Jauna, gure dongakeriak.*

64 (65)

Zeuri, Jainko orri, 122 orri.

3. *Biotz zuzenez ibiliko naz, Jauna.*

100 (101)

Ontasuna ta zuzentasuna, 123 orri.

4. *Poz-bitsetan daukat biotza Jaunagaitik, beeratu ta gora jasoten dau-ta.*

Ana'ren abestia

(*Samuel'en* 1.^a, 2)

¹ Poz-bitsetan daukat biotza Jaunagaitik,
gora egiten dau nire indarrak Jaunagaitik;
barre egiten dau agoak nire arerioai buruz,
Zugandiko osasunak poztu egiten nau-ta.

² Ez da Jauna lako Santurik,
ez da gure Jainko lako Arkatxik.

³ Ez egizue itzaldi arrokerik ugaritu,
ez egizue agotik arrokeririk jaurti,
Jauna ba-dakian Jainkoa da-ta,
Bera da egitadak negurten dauzana.

⁴ Adoretuen uztaiak ausi egiten dira;
makalak, ostera, adorez jazten dira;

⁵ asetuak ogiagaitik ituntzen dira lanerako;
gose diranak, ostera, gizendu egiten dira;

andra sabel-agorrrak zazpi seme dakaz argitara;
askoren ama, ostera, agor gelditzen da.

⁶ Jaunak emoten dauz eriotza ta bizia,
lezan amildu ta andik atara egiten dau;

⁷ Berak emoten dauz txirotasuna ta aberastasuna,
beeratu ta gora jasoten dau.

- ⁸ Berak jasoten dau gaisoa autsetik,
eta txiroa satsetik,
nagusien artean jesarri daiten
eta oiñordetzat aulki goragarria artu dagian;
izan be, Jaunarenak dira lurraren pillarrak,
eta arein gaiñean sendotu eban lurbira.
- ⁹ Berak zaintzen dauz bere adiskideen oinkadak;
gaiztoak, ostera, illunpetan ondatzen dira
— gizonak ez dau bere indarrak irabazten-eta —.
- ¹⁰ Jaunak ezerezten dauz bere arerioak,
Altsuak joten dau trumoia zerutik,
Jaunak egiten dau auzia lur-batzarreraiño.
Berak emoten dau so indarra bere Erregeari,
Berak jasoten dau gora bere Igurtzitakoaren al-izatea.

5. *Goratu egizu Jauna, ene arima orrek, makurtu-zorian dagozanak zuzendu ta zintzoak maite dauz-ta.*

145 (146)

Goratu egizu Jauna, 125 orri.

«Benedictus», 15 orri.

Goizeko otoitza (PRIMA)

Zure maitasuna, Jauna, neure begien aurrean daukat, eta zeure egi-bidetik noa.

25 (26)

- ¹ Egidazu zuzenbidea, Jauna, bide garbitik noa-ta;
ustea Jaunagan ezarririk, ez naz okertu.

- ² Arakatu nagizu, Jauna, negurtu nagizu,
aztertu egizuz nire barrua ta biotza;
- ³ zure maitasuna neure begien aurrean daukat-eta,
zeure egi-bidetik noa-ta.
- ⁴ Ez naz maltzurkakaz jesarten,
ez naz guzurtiakaz batzen;
- ⁵ gaizkille-taldeai iguiña dautset,
ez naz gaiztoen ondoan jesarten.
- ⁶ Nire eskuak errubagetasunean garbitzen dodaz,
eta zeure altara-inguruan nabil, Jauna,
- ⁷ zeure gorapena iragarten,
zeure arrigarriak azaltzen.
- ⁸ Zeure Etxeko edertasuna maite dot,
zeure aintza dagoan tokia.
- ⁹ Ez egizu eroan nire arima pekatariakaz batera,
ezta nire bizia odol-zaleakaz be;
- ¹⁰ euren ezkerrean gerena daroe,
eta arein eskuma saldukeriz beteta dago-ta.
- ¹¹ Ni, barriz, iraupen-bidetik noa;
onik atara nagizu, erruki zakidaz.
- ¹² Nire oiñak bide lauan irauten dau,
Jauna bedeinkatuko dot batzarrean.

51 (52)

- ³ Zegaitik arrotzen zara gaiztakeriaz?,
zegaitik adoretzen zara errukitsuaren kontra?
- ⁴ Egun guztian dongakeriak asmatzen diarduzu,
zure miiña aizto zorrotza da,
maltzurkeri-egillea;
- ⁵ ona baiño txarra naiago dozu,
zuzentasuna baiño guzurrea naiago;

(10) Geren = infamia, deshonor, deshonra.

- ⁶ berba kaltegarriak naiago dozuz,
miin maltzur orrek!
⁷ Orregaitik, Jainkoak ezereztu egingo zaitu betiko,
lurrera eratsi ta garbitu egingo zaitu zure txabolatik;
atara egingo dauz zure zustrak
bizien lurretik.
⁸ Zintzoak ori ikusi ta bildurtu egingo dira,
orretzaz barre egingo dabe.
⁹ «Begira: orixe da bere gordelekua
Jainkoagan ezarri ez eban adoretsua;
bere aberastasun aundietan izan eban ustea,
bere dongakerietan arrotuta egoan».
¹⁰ Ni, barriz, oriondo bizi baten antzera,
Jainkoaren Etxean,
Jainkoaren errukian dot ustea beti-betiko.
¹¹ Beti emongo dautsudaz eskerrak,
egin dozunagaitik;
«Ona da zure izena»
iragarriko dot zure zintzoen aurrean.

52 (53)

- ² Zoroak berekautan auxe diño:
«Ez da Jainkorik!».
Usteldu egin dira, egitada iguingarriak egiñik;
ona egin dagianik bat bera be ez dago.
³ Jainkoa zerutik
Adan'en semeai begira dago,
Jainkoaren billa dabillen
zentzundunik dagoan ikusteko.
⁴ Guzzi-guztiak doaz bide okerretik, biotz-gogortuta,
ona egin dagianik bat be ez dago,
bat bera be ez.

(10) Oriondo = olivo.

- ⁵ Ez ete-dabe gaizkilleak ikasiko,
ogia jaten danez jaten dabena nire erria?,
eta ez dautsoena Jaunari dei egiten?
⁶ Dardar egingo dabe, ba, ikararen ikaraz:
erasotzaillearen azurrak
Jainkoak sakabanatu egiten dauz-ta;
Jainkoak baztartzan dauzalako
izango dira ondatuak.
⁷ Etorriko al da Sion'dik Israel'en osasuna!
Jainkoak bere erriaren zoria aldatu dagianean,
Jakob poztu egingo da, Israel alaitu egingo da.

Goizerdiko otoitza (TERTIA)

*Jainkoa da nire laguntza, Jaunak eusten dautso nire bi-
ziari.*

53 (54)

- ³ Atara nagizu onik, Jainko, zure izenagaitik,
egidazu zuzenbidea zure al-izateaz.
⁴ Entzun nire otoitza, Jainko,
aditu nire agoko berbak;
⁵ arro batzuk neure kontra jagi dira-ta;
sutsu be sutsu diardue gizon batzuek
nire biziaren kontra,
Jainkoa aurrean ezetarako be ez dabela.
⁶ Baiña, Jainkoa da nire laguntza,
Jaunak eusten dautso nire biziari.
⁷ Biurtu egiezu gaiztakeria nire arerioai
eta ondatu egizuz, zure egiagaitik.

⁸ Biotzez eskiñiko dautsut oparia,
zure izenari eskerrak emonez, ona da-ta;
arriskutik onik atara nenduzun-eta,
neure arerioen ondapena ikusi dot-eta.

54 (55)

- ² Entzun, ene Jainko, nire otoitza,
ez egin atzeraka nire eskariari,
³ egidazu jaramon eta erantzun egidazu:
artega narabille nire gurariak.
⁴ Arregatu egiten nau arerioaren abotsak,
gaiztoaren deadarrak:
ezbearrak isuriten daustez gaiñera,
eta sumiñez datoz nire kontra;
⁵ biurtu egiten yataz erraiak barruan,
eriotz-larriak artzen nau,
⁶ bildurra ta ikara datorkidaz gaiñera,
otzikar(e)ak estaltzen nau;
⁷ eta auxe darabilt buruan:
«Egaz egiteko ta atsedena artzeko
uso-egoak ba'neukaz!
⁸ Urrun egingo neuke iges,
basamortuan bizi izango nintzake,
⁹ berealaxe arkituko neuke gordeleku bat,
ekatxetik aterpean,
iruntsiten dauanaren aize-zakarretik, Jauna,
¹⁰ arein miñen errekatik».
Indarkeria ta asarrea ikusten dodaz urian;
¹¹ gau ta egun aren arresien gaiñean dabiz adi-adi;
aren erdian, dongakeria ta bidebagekeria;
¹² aren barruan, zoritxarrak;
aren enparantzatik ez dira
gogorkeria ta maltzurkeria aldentzen.

- ¹⁵ Arerioak iraindu ba'negi,
ondo eroango neuskio, orraitño, iraiña;
nire kontrakoa neure kontra jagi ba'ledi,
aregandik gorde egingo nintzake;
¹⁴ baiña, zeu zara, nire lagun ori,
nire adiskide biotzeko ori,
¹⁵ biotz artu-emon samur batek alkartzen genduzan ori:
biok batera ibiltent gintzazan poz-deadar artean
Jainkoaren Etxean.
- ¹⁶ Artu dagizala eriotzak bat-batean,*
jatsi daitezala lezara bizirik,
arein erdian gaiztakeria bizi da-ta.
¹ Nik, ostera, Jainkoari egiten dautsat dei,
eta Jaunak onik atarako nau:
¹⁸ arratsaldean, goizean eta eguerdian
nagarrez nago antzika.*
Jainkoak entzun egiten dau nire abotsa:
¹⁹ Aren bakeak onik ataraten dau nire arima
nire kontra gudan diarduenakandik,
asko dira nire kontra-ta.
²⁰ Jainkoak entzun egiten nau;
beeratu egiten dauz betidanik errege dan Arek,
ez dabe garbatu nai-ta,
Jainkoaganako bildurrik be ez dabe-ta.
²¹ Euren alkar-lagunen kontra jasoten dabe eskuia,
ausi egiten dabe alkartasuna;
²² arein agoa koipea baiño bigunagoa da,
baiña guda gura dabe;
arein berbak orioa baiño labanagoak dira,
baiña eztenak dira.

- ²³ Itxi egiozuz Jainkoari zure ardurak,
Berak eutsiko dautsu-ta;
ez dau iñoiz itxiko zintzoa jausi daiten.
- ²⁴ Zuk, ene Jainko orrek, leza sakonera jaurtiko dozuz.
Maltzurak eta odolzaleak
ez dira euren urteen erdira be elduko.
Nik, ostera, Zeugan dot ustea.

Eguerdiko otoitza (SEXTA)

Jainkoagan dot ustea, eta ez dot bildurrik: zer egin daiket niri gizaki ilkorrek?

55 (56)

- ² Erruki, ene Jainko, neu zirikatzen,
erasoten eta inguratzen diardue-ta;
³ neu zirikatzen diardue nire arerioak egun guztian,
guztiak batera erasoten nabe.
- ⁴ Jaso nagizu egun ikaragarrian;
Zeugan jarten dot ustea.
- ⁵ Jainkoaren agintzaria goratzen dot,*
Jainkoagan dot ustea, eta ez dot bildurrik:
zer egin daiket niri gizaki ilkorrek?
- ⁶ Egunero diardue eztabaidan eta asmatzen,
arein bururakizun guztiak niri kalte egiteko dira;
⁷ alkartu egiten dira ixillean, ezkutuan dagoz,
nire lorratzak zaintzen diardue,
niri bizia kentzeko asmotan.
- ⁸ Itxi egizuz ondamendirako,
lur-jo eragiezu erriai, Jainko, zure sumiñaz.
- ⁹ Idatzi egizu zure liburuan atzerriko nire ibillera,
batu nire negar-malkoak zure zaragian, ene Jainko.

- ¹⁰ Nik deadar egin dagitzudanean,
nire arerioak atzeraka egin dagiela,
eta alantxe jakingo dot neure Jainko zarana.
- ¹¹ Jainkoaren agintzaria goratzen dot,
Jaunaren agintzaria goratzen dot;
- ¹² Jainkoagan dot ustea, eta ez dot bildurrik:
zer egin daiket niri gizaki ilkorrek?
- ¹³ Zin-eskintzak zor dautsudaz, ene Jainko orri,
esker-egiteaz beteko dodaz:
- ¹⁴ nire arima eriotzatic onik atara zenduan-eta,
baita nire oiñak be jaustetik,
bizien argitan Jainkoaren aurrean ibilli naiten.

56 (57)

- ² Erruki, ene Jainko, erruki,
Zeugan gordeten da nire arima-ta;
zeure egapean gordeten naz
zoritzarra igaro arte.
- ³ Jainko Gorengoari egiten dautsat dei,
onenbeste egiten daustan Jainkoari.
- ⁴ Osasuna bialduko daust zerutik,
lotsatuta itxiko dauz
niri eriotza emon nai daustenak,
bere grazia ta egia bialduko dauz.
- ⁵ Leoien erdian nago etzunda,
gizona iruntsiten dabenen erdian;
arein miiña ezpata zorrotza.
- ⁶ Igo, ene Jainko, zeru-gaiñera,
eta bete begi lurra zure aintzak.*
- ⁷ Nire oiñazpian sarea zabaldu dabe,
jausi naiten;
illobi-zulo bat egin dauste,
baiña eurak jausi dira an.

- ⁸ Gertu daukat biotza, Jainko,
gertu daukat biotza;
abestu ta jo egin bear dot:
⁹ irartzartu zaitez, nire gorapen oril,
irartzartu, arpa ta zitara oril:
egusentia irartzartuko dot.
¹⁰ Eskerrak emongo dautsudaz, Jauna, errien artean,
Zeuretzat joko dot atzerrien aurrean:
¹¹ zeure ontasanagaitik,
zeruak baiño aundiagoa da-ta;
zeure zintzotasunagaitik,
odeiai oratzen dautse-ta.
¹² Igo, ene Jainko, zeru-gaiñera,
eta bete begi lurra zure aintzak.

57 (58)

- ² Benetan, gero, aundikiok zuzenbidea egiten dozuena?,
gizakiak artez ebazten dozuezana?
³ Bestetara, bai: dongakeriak asmatzen dozuez biotzean,
zuen eskuak lurrean indarkeriaren alde erabilten dozuez.
⁴ Okertuta dagoz gaiztoak amaren sabelean ezkeror;
okertuta dagoz guzurtiak jaiotzatik ezkeror:
⁵ edena daroe sugeak lez,
belarriak izten dabezan larrasuge gorak dira
⁶ lilluratzaillearen abotsik ez entzuteko,
araolari azkarraren abotsik ez entzuteko.
⁷ Ene Jainko, apurtu egiezuz agiñak agoan,
ausi albagiñak leoiari, Jauna;
⁸ joan doazan urak lez urtu beitez,
zapaltzen dan bedarra lez zimeldu beitez;
⁹ bere adurra itxiez doan barea lez izan beitez,
eguzkirik ikusten ez dauan sein-galdua lez!

- ¹⁰ Sasiaren arantzen antzera azi baiño len,
txori-kardua lez kiskaldu dagizala suak.
¹¹ Eta poztu beite zintzoa zigorra ikustean,
busti begiz bere oiñak gaiztoen odoletan;
¹² eta esan begie gizakiak:
«Zintzoak bere saria lortzen dau,
ba-da Jainko bat auzi-ebazle lurrean-eta».

Bezerdiko otoi-tza (NONA)

Aurrea artu daistala, Jauna, zure laguntzak.

58 (59)

- ² Atara nagizu nire arerioakandik, nire Jainko orrek,
gorde nagizu nire kontra datozanakandik;
³ atara nagizu gaizkilleakandik,
gizon odol-zaleakandik onik atara nagizu.
⁴ Begira: adi-adi dagokidaz,
eta, indartsu, neure aurka alkartzen dira.
Nik pekaturik eta utsik egin bagarik, Jauna,
⁵ errurik ez dodala, ba-datoz niri eraso egitera.
Iratzartu zaitez, urten zakidaz bidera, begira:
⁶ Gudaroztean Jaun ori, Israel'go Jainko ori!
Jagi zaitez eta zigortu egizuz atzerriak,
ez izan errukirik saltzailleari.
⁷ Arratsaldean datoz barriro,
txakurrak lez ausi egiñez,
eta urian zear ibilli dabiz.*
⁸ berba ta berba egiten diardue,
eztenak dira arein ezpanak:
«Nok entzuten ete-gaitu?»

- ⁹ Baiña Zuk, Jaun orrek, barre egiten dozu arein lepotik, irri ta barre egiten dozu arrokoen lepotik.
- ¹⁰ Zeuganuntz begiraten dot, nire indar orreganuntz, nire gaztelu, ene Jainko, Zeu zara-ta;
- ¹¹ aurea artu daistala, Jainko, zure laguntzak, eta erakutsi daistala arerioaren ondamendia.
- ¹² Il egizuz, ene Jainko orrek, nire erria aztu ez daiten: sakabanatu ta beera jaurti egizuz zure indarraz, Jaun orrek, gure babeskin orrek!
- ¹³ Arein ezpanetako berba baxotxa arein agoko pekatu bat da; gelditu beitez, ba, euren arrokerietan lotuta, esaten dabezan birao ta guzurretan.
- ¹⁴ Ondatu dagizala zure sumiñak, ondatu dagizala, eta ez dagiela lorratzik itxi; Jakob'egan eta lurreko azken-mugaraiño agintari Jainkoa dana jakin daiten.
- ¹⁵ Arratsaldean datoz barriro, txakurrak lez ausi egiñez, eta urian zear ibilli dabiz:
- ¹⁶ bira-biraka diardue janari-billa, kurrinkaka diardue asetuta egon arte.
- ¹⁷ Nik, ostera, Zeure al-izatea abestuko dot, goizean zeure errukia iragarriko dot; arriskuan neure gaztelu ta gordeleku izan zara-ta.
- ¹⁸ Eta zeure omenez joko dot, ene indar!, Zeu zara, ene Jainko, nire gaztelu-ta.

59 (60)

- ¹ Baztarrean itxi genduzuzan, Jainko, ausi egin zenduzan gure gudarozteak, asarratuta zengozan, baiña barriztu gaziguz.
- ⁴ Lurralde au astindu ta brintzatu egin dozu: osatu egizuz aren urratuak, beera dator-eta.
- ⁵ Zure erria gorriak ikustera beartu zenduan, edateko zorabio-ardaoa emoten zeutsala;
- ⁶ iges-ezaugarria emon zeutsen zure zintzoai, uztaietatik iges egiteko.
- ⁷ Zure kutunak onik urten daitezan, erantzun daiskula zure esku salbatzailleak. Olantxe egin eban berba Jainkoak bere jauretxean: «Garaitu artuko dot Sikem, Sukot'eko ibarra negurtu egingo dot. Neurea da Galaad, neurea Manases; neure buru-babesa Efraim, neure aginpide-makilla Juda; Moab, neure burua garbitzen dodan ontzia. Edom'en gaiñera jaurtiten dot nire oiñetakoa, Filistea'ren lepotik nire garaipen-abestia».
- ¹ Baiña, nok eroango nau arresidun-urira?, nok zuzenduko nau Edom'era?,
- ¹² Zuk, Jainko orrek, gu bazartu eta orain ez zara urteten gure gudarozteakaz-ta?
- ¹³ Emoiguzu laguntza arerioaren kontra, giza-laguntza alperreko da-ta;
- ¹⁴ Jainkoagaz, arrigarriak egingo doguz, Berak zapalduko dauz gure arerioak.

Arrats-otoitza (BEZPERAK)**1. Zoriontsu, Jaunari bildur dautsoen guztiak!**

127 (128)

- ¹ Zoriontsu, Jaunari bildur dautsana
eta Aren bideai jarraitzen dautsena!
 - ² Zeure lanaren frututik jango dozu,
zoriontsu izango zara, ondo joango yatzu.
 - ³ Zure emaztea, matsondo ugaria lez,
zeure etxearen erdian;
zure semeak, oriondo-kimuak lez,
zeure maiaren inguruan.
 - ⁴ Olantxe izango da onetsia
Jaunari bildur dautsan gizona.
 - ⁵ Bedeinkatu zagizala Jaunak Sion'dik,
ikusi dagizula Jerusalem'en onaldia
zure bizitzako egun guztietan;
 - ⁶ ikusi dagizuzala zure semeen semeak.
Bakea Israel'i!
- 2. Egin begie atzeraka, lotsatuta, Sion'i gorroto dautsoenak.**

128 (129)

- ¹ Niri egin dausten eraso gaztetarik!
-esan dagiala Israel'ek-,
- ² niri egin dausten eraso gaztetarik!*,
baiña ez nenduen azpiratu.
- ³ Gold(e)a neure lepoan sartu eben

eta erkak luzatu egin ebezan.

- ⁴ Baiña Jaunak, zuzena da-ta,
ausi egin ebazan dongen lokarriak.
- ⁵ Egin begie atzeraka, lotsatuta,
Sion'i gorroto dautsoenak;
- ⁶ izan beitez teillatuko bedarra lez,
ebagi baiño len igartzen dala;
- ⁷ ez dau arek igitariaren eskurik beteten,
ezta gal-epaillaren besakadarik be;
- ⁸ *andik* igaroten diranak be ez dautsoe
«Jaunak bedeinkatu zagizala» esaten.
Jaunaren izenean bedeinkatzen zaituegu.

3. Barru-barrutik egiten dautsut dei, Jauna.

129 (130)

- ¹ Barru-barrutik egiten dautsut deadar, Jauna;
- ² entzun, Jauna, nire deia;
begoz adi-adi zure belarriak
nire otoi-deira.
- ³ Gaiztakeriak gogoan ba'daukazuz, Jauna,
nor egon al izango da zutik?
- ⁴ Baiña, Zeugandik dator parkatzea,
eta olan begirunea sartzen dozu.
- ⁵ Nire arimak Jaunagan itxaroten dau,
Aren herban dauko ustea;
- ⁶ gabeko zaintzailleak egusentiairen zain baiño
geiago dago nire arima Jaunaren zain.
Bego Israel Jaunaren zain,

-
- (3) Erka: ilduki, lurraska, golde-aska = surco.
(7) Gal-epailla = agavillador.

- ⁷ zaintzaillea egunsentiaren zain dagoanez;
errukia Jaunagandik dator-eta,
baita zor-ordain ugaria be:
⁸ eta Berak itxiko dau garbi Israel,
onen dongakeri guztietatik.

4. *Nire biotz au ez da aundizalea, Jauna.*

130 (131)

- ¹ Nire biotz au ez da aundizalea,
ezta nire begiak arroak be;
ez nabil aundikerien atzetik,
ni baiño gorago dagozanenetik;
² nire gurariak ixillerazo ta arindu egiten dodaz, ostera,
umetxoa amaren besoetan lez.
³ Izan begi ustea Jaunagan Israel'ek
orain eta beti.

5. *Jaunak Sion aukeratu dau, bertan bizi izateko.*

131 (132)

- ¹ Jauna, artu egiozuz gogoan Dabid'i
aren ardura guztiak:
² Jaunari egin eutsan ziña
eta Jakob'en Altsuari egin eutsan zin-eskintza au:
³ «Ez naz nire etxeko aterpean sartuko,
ez naz nire ogera igoko,
⁴ nire begiai ez dautset lorik emongo,
ezta nire betazalai atsedenek be,

- ⁵ Jaunarentzat toki bat aurkitu arte,
bititoki bat Jakob'en Altsuarentzat».
⁶ Efrata'n zala entzun genduan,*
Jaar'ko Landan aurkitu genduan:
⁷ sartu gaitezan Aren bititokian,*
auspaztu gaitezan aren oiñazpi-aurrean.
⁸ Jagi zaitez, Jauna, zatoz zure bititokira,
zatoz zure kutxa altsuaz:
⁹ jantzi daitezala zure abadeak soiñeko ederrez,
jardun dagiela goraka zure zintzoak.
¹⁰ Zure morroi Dabid'en maitasunarren,
ez egiozu zure Igurtzitakoari entzunaldia ukatu.*
¹¹ Jaunak Dabid'i zin au egin dautso,
ausiko ez dauan agintzari au:
«Zeure jatorriko bat
ipiñiko dot zure aulkian.
¹² Zure semeak neure alkartasuna
eta irakasten dautsedazan aginduak beteten ba'dabez,
zure semeak be
betiko jesarriko dira zure aulkian».
¹³ Jaunak Sion aukeratu dau-ta,
bertan bizi izan gura izan dau:
¹⁴ «Auxe da nire bititokia betiko,
ementxe bizi izango naz, auxe gura dot-eta.
¹⁵ Bedeinkatu egingo dodaz ango janariak,
ango beartsuak ogiz asetuko dodaz;
¹⁵ ango abadeak soiñeko ederrez jantziko dodaz,
eta ango zintzoak goraka ekingo dautse.
¹⁷ Dabid'en indarra ernerazoko dot,
nire Igurtzitakoarentzat argi-ontzi bat iziotzen dot.*
¹⁸ Lotsaz jantziko dodaz aren arerioak,
dizdiz egingo dau nire koroiak aren gaiñean».

Jaunak neure apaltasuna begiratu dau; Altsuak nire alde arriarriak egin dauz.

«Magnificat», 37 orri.

Illuntzeko otoitza (AD COMPLETORIUM)

Jaunaren aingeruak, Aren zintzoen inguruan guda-txa-bolak egin eta zaindu egiten dauz.

33 (34)

- ² Aldi oro bedeinkatzen dot Jauna,
Aren gorapena beti agoan izango dot;
- ³ Jaunagan poztuten da nire arima:
entzun dagiela ori apalak eta poztu daitezala;
- ⁴ iragarri egizue nigaz batera Jaunaren aunditasuna,
goratu daigun Aren izena guztiok batera.
- ⁵ Jaunari itandu neutsan, eta erantzun egin eustan,
neure larri guztietatik atara nenduan;
- ⁶ begiratu egiozue, eta dizdiz egingo dozue,
ez da zuen arpegia lotsatuko.
- ⁷ Saminduak Jaunari egiten ba'dautso dei,
Arek entzun eta estualdi guztietatik ataraten dau;
- ⁸ Jaunaren aingeruak, Aren zintzoen inguruan
guda-txabolak egin eta zaindu egiten dauz.
- ⁹ Miaztu ta ikusi egizue Jauna dan ona;
zoriontsu, Aren aterpean jarten dana!
- ¹⁰ Zuok, Aren santuok, bildur zakioze Jaunari,
Aren bildur diranak ez dabe ezeren bearririk-eta;
- ¹¹ aberatsak beartsu ta goserik gelditzen dira;*
Jaunaren billa dabizanak, ez dabe ezeren bearririk.



- ¹² Etorri, semeok, entzun nagizue:
Jaunaganako bildurra irakatsiko dautsuet.
- ¹³ Ba-da iñor bizitza maite dauanik
eta ondasun-egunak gura dauzanik?
- ¹⁴ Gorde egizu txarretik zure miiña,
eta zure ezpanak guzurretik;
- ¹⁵ alde egizu txarretik eta ona dana egizu;
billatu bakea ta zoaz aren atzetik;
- ¹⁵ Jaunaren begiak zintzoen gainean,
eta Aren belarriak arein deadarretara;
- ¹⁷ Jaunaren arpegia, barriz, gaizkilleen kontra,
arein gomutapena lurretik garbitzeko.
- ¹⁸ Norbaitek deadar egiten dauanean,
Jaunak entzun
eta aren larrietatik onik ataraten dau;
- ¹⁹ saminduakandik ur dago Jauna,
gogo-asiak onik ataraten dauz.
- ²⁰ Zintzoaren ezbearrak ugari izanarren,
Jaunak guztietatik askatzen dau;
- ²¹ aren azur guztiak zaintzen dauz,
eta bakar bat be ez da ausiko.
- ²² Gaiztakeriak gaiztoari eriotza emoten dautso;
eta zintzoari gorroto dautsoenak, zigortuak izango dira.
- ²³ Jaunak bere otseiñak askatu egiten dauz;
Aregana joten dauana ez da zigortua izango.

60 (61)

- ² Entzun, ene Jainko, nire deadarra,
aditu nire eskaria!
- ³ Lurraren azkenetik deadarka nagokizu,
biotza lur-jota:
eroan nagizu eldu-eziñeko arkatxera,

- ⁴ Zeu zara nire gordeleku
ta gaztelu arerioaren kontra-ta.
- ⁵ Ni beti zeure txabolan bizi izango naz,
zeure egapean gordeta:
- ⁶ Zuk, ene Jainko orrek,
nire zin-eskintzak entzun egingo dozuz-ta,
zeure soloa emongo daustazu-ta.
- ⁷ Emon egun geiago erregearen egunai;
iraun dagiela aren egunak gizaldi batzuetan;
- ⁸ izan daitela errege beti Jainkoaren aurrean,
zaindu dagiela zure graziak eta zintzotasunak.
- ⁹ Nik zeure omenez joko dot beti,
eta egunero beteko dodaz nire zin-eskintzak.

Onik atara gagizuz... (domeketan lez): 41 orri.



EGUENETAN

Goizaldeko otoitzak (MAITIÑAK)

1. Jainkoa da nire osasun eta aintza; Jainkoagan dago
nire itxaropena.

61 (62)

- ² Jainkoagan bakarrik nire arimaren atsedena,
Beragandik datorkit osasuna-ta;
- ³ Bera bakarrik nire arkaitz eta osasun,
nire gaztelu: ez naz kikilduko.
- ⁴ Noiz arte jardungo dozue guztiok batera gizonaren kon-
okertzen asi dan arresiaren antzera [tra,
edo beera jausten asi dan orna baten antzera
gizona lurrera botaten?
- ⁵ Nire toki garaitsutik beera botatea da euren asmo ba-
eta guzurrea yake atsegin: [karra,
agoaz bedeinkatu egiten dabe,
biotzaz madarikatu.
- ⁶ Jainkoagan bakarrik artu atsedan, nire arima orrek!,
Bera da nire itxaropena-ta;
- ⁷ Bera bakarrik nire arkaitz eta osasun,
nire gaztelu: ez naz kikilduko.

- ⁸ Jainkoagandik datorkidaz osasuna ta aintza,
Bera da nire arkaitz sendoa,
Jainkoa da nire gordeleku.
- ⁹ Jarri ustea Aregan, Aren erri orrek,
zabaldu zuen biotza Aren aurrean,
Jainkoa da gure gordeleku-ta.
- ¹⁰ Gizakiak arnasaldi bat baiño ez dira,
aundikiak antz-irudi dira:
guztiak batera aztakiñean
putza baiño ariñago igoko litzakez.
- ¹¹ Ez jarri zapalckerian zure ustea,
ez izan amesik lapurretaz;
eta aberastasunak ugaritu dakizuezanean be,
ez lotu areitan zuen biotza.
- ¹² Jainkoak bein egin dau berba,
eta auxe entzun dot birritan:
«Jainkoak daukala al-izatea,
¹³ eta Zeuk, Jauna, grazia;
Zuk, bakotxari, bere egiñai dagokienez
emoten dautsazula ordaiña».

2. *Etorri zaitzeze Jainkoaren lanak ikustera; ospatu egi-
zuez Aren gorapenak.*

65 (66)

- ¹ Goratu Jauna, lur guzti orrek;
² jo Aren izenaren omenez;
abestu ereserkiak Aren izenari;
³ esan Jainkoari: «Zure lanak bai arrigarriak!
zure indarraren aundiz,
zure arerioak berba leunak dirautsuez».

(10) Aztakin = balanza.

- ⁴ Auspaztu bedi zure aurrean lur osoa,
jo dagiela zure omenez,
jo dagiela zure izenarentzat.
- ⁵ Etorri Jainkoaren lanak ikustera,
gizakien alde egin dauzan lan bildurgarriak:
- ⁶ itxasoa legor biurtu eban,
ibaia oiñez igaro eben.*
Poztu gaitezcan Jainkoagan,
- ⁷ bere al-izatez nagusitza dauko betiko-ta;
Aren begiak adi-adi dagoz atzerriakana,
biurriak kontra jarri ez daitezcan.
- ⁸ Bedeinkatu egizue Jauna, erriok;
iragarri egizuez Areganako gorapenak:
- ⁹ Berak biurtu dausku bizia-ta,
gure oiñak laban egin dagien izten ez dauana,
Bera da-ta.
- ¹⁰ Zeuk arakatu genduzuzan, Jauna,
zidarra aztertzen danez aztertu genduzuzan,
¹¹ sarera egin zeuskun bultza,
lepora zorroa ezarri zeuskun:
- ¹² geure saman jesarrita yoiazan,
sutan eta uretan zear igaro gintzazan,
baiña, emon dauskuzu arnasa.

3. *Etorri entzutera, Jainkoaren zintzook, neure alde egin
dauana azalduko dautsuet.*

65 (66)

- ¹³ Erre-opariakaz sartuko naz zure etxean
nire zin-eskintzak beteteko:
- ¹⁴ estualdian nire ezpanok esandakoak
eta nire agoak agindutakoak.

- ¹⁵ Erre-opari gizenak eskiñiko dautsudaz,
adariak erreko dautsudaz,
idiak eta auntzak ilgo dodaz oparizat.
- ¹⁶ Etorri entzutera, Jainkoaren zintzook,
nire alde egin dauana azalduko dautsuet:
- ¹⁷ Arixe egin eutsan deadar nire agoak,
Axe goratu eban nire miiñak.
- ¹⁸ Asmo txarra izan ba'neu nik,
Jaunak ez nendukean entzungo;
- ¹⁹ baiña, Jainkoak entzun egin nenduan,
nire otoiitzaren abotsera adi-adi egon zan.
- ²⁰ Bedeinkatua Jainkoa!,
nire eskaria ez eban baztatu-ta,
ezta bere errukia nigandik urrundu be.

4. Jainkoa jagi ta Aren arerioak sakabanatu egiten dira.

67 (68)

- ² Jainkoa jagi ta Aren arerioak sakabanatu egiten dira,
iges egin dabe Aren aurretik Ari gorroto dautsoenak;
- ³ kea ezerezten danez ezerezten dira;
argizaria sutan urtzen danez
ondatzen dira gaitzook Jainkoaren aurrean.
- ⁴ Zintzook, barriz, poztu egiten dira,
alaitu egiten dira Jainkoaren aurrean,
poz-bitsetan gaiñezka.
- ⁵ Abestu egiozue Jainkoari, jo Aren omenez,
apaindu bidea basamortuan aurrera doan Ari;
izena Jauna dau;
poztu zaitzeze Aren aurrean.
- ⁶ Umezurtzen aita, alargunen zaintzaille,
Jauna bere bizitoki santuan bizi da.

- ⁷ Jainkoak etxea gertatzen dautse baztatuai,
atxillotuak askatu ta aberastu egiten dauz;
biurriak, ostera, lur kiskalduan gelditzen dira.
- ⁸ Zure erriaren aurrelari agertzen zintzazanean, Jainko,
eta basamortuan aurrera ziñoiazanean,
- ⁹ lurra ikaraka asi zan, zera urtu egin zan,
Jainkoaren aurrean, Sinai'ko Jainkoaren aurrean,
Jainkoaren aurrean, Israel'en Jainkoaren aurrean.
- ¹⁰ Euria isuri zenduan ugari, Jainko, zure solonan;
bizkortu egin zenduan lur makaldua;
- ¹¹ zure artaldeak lurrean egin eban bere bizitokia,
zure ontasunak, Jainko,
beartsuai atondu eutsen lurrean.

5. Jainko salbatzaillea da gure Jainkoa; Jaunak eragiten dauku iges eriotzatik.

67 (68)

- ¹² Jaunak berba ezkutua diño,
millakak iragarten dabe albista pozgarri au:
- ¹³ «Igesi doaz erregeak, igesi gudarozteak;
emakumeak guda-ondakiñak banatzen diardue.
- ¹⁴ Zuek arditegietan atsedean artzen ziarduen artean,
usoak zidarrezko egoz jantzi ziran,
urrez dizdiz arein lumak.
- ¹⁵ Guztiz Altsuak erregeak sakabanatzen ziarduan artean,
Mendi Gerizatsu'an edurra zan».*
- ¹⁶ Basan'go mendiak oso garaitsuak dira,*
Basan'go mendiak aldapatsuak dira;
- ¹⁷ zegaitik begiratzen dautsazue ikusi-eziñez,
mendi garaitsuok,
Jainkoak bizitokitzat aukeratu eban mendiari?,
Jaunaren bizitoki betikoari?

- ¹⁶ Jainkoaren mendiak millaka ta millaka.*
Jainkoa Sinai'tik jauretxera doa.
- ¹⁹ Atxillotuak eroanez, tontorrera igo zintzazan,
zergatatz gizonak emon eutsuezan:
Jainkoak bizitokirik eukitea nai ez ebenak be bai.
- ²⁰ Bedeinkatua Jauna egunero!
Jainkoak daroaz gure sortak, Bera da gure osasuna.
- ²¹ Jainko salbatzaillea da gure Jainkoa;
Jainko Jaunak eragiten dausku iges eriotzatik.
- ²² Jainkoak zapaltzen dauz bere arerioen buruak,
gaizto setatien buruazurrak.
- ²³ «Basan'dik ekarriko dodaz — diño Jaunak —,
itxasoko ondarretik ekarriko dodaz;
- ²⁴ arerioaren odoletan bustiko dozuz zure oiñak,
eta txakurrak miazkatu egingo dabe euren miiñaz».

6. Bedeinkatu egizue Jauna batzarrean.

67 (68)

- ²⁵ Agiri da, Jainko, zure laguntaldea,
nire Jainko ta Erregearen laguntaldea, jauretxeruntz.
- ²⁶ Aurrean abeslariak doaz,
atzean arpa-jotailleak,
erdian neskatillak, atanborak joten.
- ²⁷ «Bedeinkatu Jainkoa jai-otsean,
bedeinkatu Jauna, Israel'en jatorriko orrek!».
- ²⁸ Benjamin, gazteena, doa guztien aurretik,
Juda'ko nagusiak, Neftali'ko nagusiak.
- ²⁹ Agertu egizu zure indarra, Jainko,
gure alde darabizun al-izatea, Jainko.

(26) Atanborak = panderos.

- ³⁰ Ekarri dagiela erregeak euren ordain-saria
Jerusalen'go zure jauretxera.
- ³¹ Ezi egizuz Kaiñaberadi'ko Pistia,*
Zezen-taldea, errietako Zekorrak.
Menperatu daitezala euren zidarrak:
sakabanatu egizuz gudazale diran erriak.
- ³² Betoz Ejipto'tik aundikiak,
zabaldtu begiz Ejipto'k bere eskuak Jainkoagana!
- ³³ Abestu Jainkoari, lurreko erregeok,
jo Jaunarentzat,
- ³⁴ zeruetan, antxiñako zeruetan, dabillen Arentzat,
bere abots au, abots indartsu au, jaurtiten dauan Aren-
³⁵ «Ezagutu egizue Jainkoaren al-izatea». Itzat:
Israel'en gaiñean egiten dau dizdiz Aren aunditasunak,
eta Aren al-izatea laiño-gaiñean.
- ³⁶ Bildurgarri da Jainkoa bere jauretxetik:
Israel'go Jainkoa da
bere erriari indarra ta al-izatea emoten dautsazana.
Bedeinkatua Jainkoa!

7. Onik atara nagizu, nire Jainko orrek!, ura samarai- ño eldu yat-eta.

68 (69)

- ² Onik atara nagizu, nire Jainko orrek!,
ura samaraiño eldu yat-eta.
- ³ loi sakonetan sartuta nago
eta ezin dot oiñik iñun ezarri;
uretari barru-barru sartu naz,
urbiziak tatarras naroa.

- ⁴ Deadarka etenda nago,
iztarria artuta daukat;
lausotu egiten yataz begiak
nire Jainkoaren zain onen luzaro egonez.
- ⁵ Nire buruko uleak baiño geiago dira
bidebagez gorroto daustenak;
nire azurrak baiño gogorragoak
bidebagez txarto narabilenak.
Ostu ez dodana biurtu bear izango ete-dot, ba?
- ⁶ Ezagutzen dozu, ene Jainko orrek, nire ez-jakiña,
nire gaiztakeriak ez yatzuz ezkutuan gordeten.
- ⁷ Ez daitezala nigaitik iruzurretan jausi
Zugan itxaroten dabenak, Jauna,
Gudarozteen Jauna!
Ez dagiela nigaitik lotsarik izan, Israel'go Jainko,
zure billa dabizanak.
- ⁸ Zeugaitik eroan dodaz iraiñak,
nire arpegia lotsariak estaldu eban.
- ⁹ Arrotz nakie nire senideai,
atzerritar nire amaren semeai;
zure jauretzerako leiak irunsi egiten nau-ta,
eta Zu iraintzen zaituen iraiñak gaiñera datorkidaz.
- ¹¹ Nire burua barauz samintzen dodanean,
barre egiten dabe nire lepotik;
zakuz jazten nazanean,
barrezka asten yataz;
ixil-mixilkka diardue ataurrean jesarrita,
ardaoa edaten daben artean
bertsuak egiten dabez nitzaz.

8. *Askatu nagizu, Jauna, nire arerioakandik.*

68 (69)

- ¹⁴ Nire otoiiza, barriz, zeugana doa,
ene Jainko, zure mesede-egunean;
entzun nagiala zure ontasun aundiak,
lagundu nagiala zure zintzotasunak:
- ¹⁵ atara nagizu lokatzatik, ez nadilla murgildu,
atara nagizu gorroto daustenakandik
eta ondarrik ez daben uretatik.
- ¹⁶ Ez nagiala urbiziak tatarras eroan,
ez nagiala zurrunbilloak irunsi,
ez dagiala oxiñak nire gaiñean bere agoa itxi.
- ¹⁷ Erantzun egidazu, Jauna, zure graziaren ontasunaz,
biurtu zakidaz zure erruki aundiagaitik;
- ¹⁸ ez ezkutatu zure arpegia zure morroi oni:
arriskuan nago, erantzun egidazu bereala.
- ¹⁹ Urreratu zakidaz, askatu nagizu,
atara nagizu nire arerioakandik:
- ²³ agirian yatzuz nire iraiña,
nire lotsaria ta nire gerena,
zeure aurrean dagoz inguratzen nabena.
- ²¹ Iraiñak biotza zatitu egiten daust,
eta makal nago.
Erruki-zain nago, eta errukirik ez;
pozkilde-zain, eta ez dodaz aurkitzen.
- ²² Nire janarian beaztuna bota eusten,
nire egarriarentzat ozpiña emon eusten.
- ²³ Euren maia iruzur biurtu dakiela,
euren janariak, sare;
- ²⁴ illundu dakiezala begiak eta ez dagiela ikusi,
lepoa beti makal euki dagiela.

- ²⁵ Jaurti egiezu gaiñera zure asarrea,
artu dagizala zure sumin-garrak;
²⁶ arein lurrak basamortu biurtu daitezala,
arein txaboletan ez dadilla iñor bizi;
²⁷ zeuk jo dozuna inguratzen diardue-ta,
zeuk zauritu dozunaren zauriak zenbatzen.
²⁸ Agertu egiezuz erreskadan euren erruak,
ez egizuz zuzentzat artu;
²⁹ kendu egizuz bizidunen liburutik,
ez daitezala arein izenak zintzoen artean ezarri.

9. *Billatu egizue Jauna, eta bizi izango da zuen biotza.*

68 (69)

- ³⁰ Ni, zauritu gaiso utsa naz,
ene Jainko, jaso nagi zure laguntzak.
³¹ Jainkoaren izena kantuz goratuko dot,
eskerrak emonez zabalduko dot Aren aunditasuna;
³² zezen bat baiño gogokoago izango yako *ori* Jainkoari,
txal adardun eta apodun bat baiño.
³³ Begira, apalok, eta poztu zaitzeze,
billatu egizue Jauna,
eta bizi izango da zuen biotza.
³⁴ Izan be, Jaunak bere beartsua entzun egiten dau,
ez dauz baztarten bere lotuak.
³⁵ Goratu begie *Jauna* zeru-lurrak,
urak eta an bizi diran guztiak.
³⁶ Jainkoak Sion onik atarako dau,
Juda'ko uriak barriro jasoko dauz,
an bizi ta arein jabe izango dira.

(32) Apo = pezuña.

- ³⁷ Aren morroien jatorrikoak artuko dabe oiñordetzat,
bertan bizi izango dira Aren izena maite dabena.

a) **Gorapen-otoitzak (LAUDES II)**

1. *Goratu egizue Errege ta Jauna, Aren aurrean.*

97 (98)

- ¹ Abestu egiozue Jaunari kanta bari bat,
miragarriak egin dauz-ta;
² bere eskumak emon dautso garaipena,
bere esku santuak;
Jaunak bere garaipena jakiñerazoten dau,
atzerriai bere zuzentasuna agertzen dautse;
³ Israel'en etxearen alde izan ebazan errukia ta zintzota-
ekarri ebazan gogora; [suna
ikus]i dabe lurreko mugak
gure Jainkoaren garaipena.
⁴ Goratu Jauna, lur guzti orrek,
egin deadar, jo txaloak, jo eresiak;
⁵ jo zitara Jaunarentzat,
asi beitez ereskiñak;
⁶ goratu Erregea ta Jauna
turutaz eta adar-otsez.
⁷ Asi bedi burrundaraka itxasoa ta bertako guztia,
legorra ta bertan bizi diran guztiak;
⁸ jo begie txalo ibaiak, goratu begie mendiak
lurrean nagusi izatera datorren Jauna.
⁹ Artez aginduko dau lurbiran,
eta zuzentasunez errietan.

2. *Zeu izan zara, Jauna, gure igesleku.*

89 (90)

- ¹ Zeu izan zara, Jauna, gure igesleku
gizaldiz-gizaldi.
- ² Mendiak jaio baño len,
naiz lurbira sortu aurretik,
Jainko zara Zu betidanik eta betiko.
- ³ Auts biurtzen dozu gizona,
«Biurtu zaitzeze, Adan'en semeok!», esanez.
- ⁴ Zure aurrean milla urte
atzo igaro zan eguna aiña,
gabeko iratzar-aldia aiña.
- ⁵ Urterik urtera ereiten dozuz,
barrizten dan bedarra lez:
goizean loratzen eta azten da,
eta arratsaldean ebagi ta zimelduta gelditzen da.
- ⁷ Zure asarreak bai erre gaituala, gero,
eta zure sumiñak ikaratu!
- ⁸ Gure erruak Zeure aurrean ipiñi zenduzan,
eta gure ixilpekoak Zeure arpegiaren argitan.
- ⁹ Eta gure egun guztiak Zeure asarrepean igaro dira,
eta gure urteak antzi bar lez amaitu ziran.
- ¹⁰ Norbait irurogeta amar urte biziarren,
eta errimeena larogearaiño,
urterik geienak alperreko neke dira,
beingoan igaro ta egaz doaz-ta.
- ¹¹ Nok ezagutzen dau zure asarrearen indarra?
nok somatu dau zure sumiñaren sorta?
- ¹² Erakutsi eiguzu gure egunak zenbatzen,*
biotz zuurra irabazi dagigun.
- ¹³ Biurtu zaitetz, Jauna; noiz arte?
erruki zakiez zure morroioi;

- ¹⁴ goizean bete gagizuz zure errukiaz,
eta gure bizitza guztia poz eta alaitasuna izango da;
- ¹⁵ poztu gagizuz, samindu genduzuzan egunen ordez,
ikusi genduzan zoritxar-urteen ordez.
- ¹⁶ Ikusi dagiela zure otseñak zure ekintza,
eta arein semeak zure aintza.
- ¹⁷ Jatsi bedi gugana Jaunaren ontasuna,
eta edertu dagizala gure eskuen egintzak.

3. *Jauna, zure errukia zeruetaraiño eltzen da.*

35 (36)

- ² Gaiztoak bere barruan
pekatuaren erantzuna entzuten dau:
«Ez dauosat Jainkoari bildurrik
Berenen aurrean be».
- ³ Izan be, ez da konturatzen
bere errua aurkitua ta iguindua izango danik.
- ⁴ Aren agoko berbak dongakeria ta maltzurkeria dira;
alde batera itxi ebazan zentzundun izatea ta on egitea;
- ⁵ etzunda, dongakeria asmatzen diardu,
bide txarrean dabil temati,
ez dau gaiztakeririk baztartzen.
- ⁶ Jauna, zure errukia zeruetaraiño eltzen da,
odeietaraiño zure egia;
- ⁷ zure zuzentasuna mendi-gaillurretaraiño,
zure erabagiak leza sakonak lakoak dira.
Gizonai ta aberei laguntza emoten dautsezu:
- ⁸ zure errukia bai gain-gaiñekoa, Jainko!
Gizakiak zeure egapean gordeten dira,
- ⁹ zeure etxeko guritasunez azten dira,
zeure atsegin-errekan emoten dautsezu edaten;

- ¹⁰ Zeugan dago iturri bizia-ta,*
zeure argitan ikusten dogu argia.
- ¹¹ Gorde egiezu zure errukia ezagutzen zaituenai,
eta zure zuzentasuna biotz-zuzenai;
- ¹² arroaren oiñak ez nagiala zapaldu,
gaiztoaren eskuak ez nagiala kanpora jaurti.
- ¹³ Uts egin dabe gaizkilleak,
lur-jota, ezin jagi daitekez.

4. *Nire erria nire ondasunez bete-bete egingo da.*

Jeremias'en abestia

(Jeremias, 31)

- ¹⁰ Entzun, erriok, Jaunaren itza,
iragarri urrungo ugarteetan:
«Israel sakabanatu ebanak Berak batuko dau,
artzaiñak bere artaldea zaintzen dauanez zainduko
- ¹¹ Jaunak Jakob erosi [dau,
eta esku indartsuagotik atara eban-eta».
- ¹² Poz-oiuka etorriko dira Sion'go tontorrera,
Jaunaren ondasunetarantz etorriko dira pilloka;
gari, ardao ta oriotarantz,
baita artalde ta bei-taldetarantz be;
ortu bustia lez izango da arein arima,
eta ez dira barrero kikilduko.
- ¹³ Orduan, poztu egingo da neskatilla dantzan,
gazteak eta zaarrak alaitu egingo dira;
arein negarraldia pozaldi biurtuko dot,
poztu ta arindu egingo dodaz arein naigabeak.
- ¹⁴ Adorez janarituko dodaz abadeak,
eta nire erria nire ondasunez bete-bete egingo da.

5. *Gure Jainkoari gorapen gozoa dagokio.*

146 (147)

- ¹ Aleluia!
Goratu egizue Jauna, soiñua ona da-ta,
gure Jainkoari gorapen gozoa dagokio.
- ² Jerusalem Jaunak barrizten dau,
eta Israel'go erbestetuak batzen;
- ³ Berak osatzen dauz biotz ondatuak,
eta arein zauriak lotzen.
- ⁴ Berak zenbatzen dauz izarrak,
bakotxa bere izenez izentatzen dau.
- ⁵ Gure Jauna aundia ta altsua da,
Aren jakituriak ez dauko negurririk.
- ⁶ Jaunak eutsi egiten dautse apalai,
gaiztoak autseraiño beeratzen dauz.
- ⁷ Asi Jaunari esker-emotea,
jo zitara gure Jainkoarentzat:
- ⁸ Berak estaltzen dau laiñoz zerua,
lurrarentzat euria gertatuez;
Berak erne-azoten dau bedarra mendietan,
gizonaren morroitzen diarduenentzat;
- ⁹ Berak emoten dautse bere janaria abereai,
karraska diarden belakumeai.
- ¹⁰ Ez dau aintzat artzen zaldien indarra,
ezta gizonaren bernak be:
- ¹¹ Jaunak bere zintzoak maite dauz,
euren ustea Aren errukian ezarri dabenak.

Otseindu dagigun santutasunez Jauna, eta onik atarako
gaitu gure arerioakandik.

«Benedictus», 15 orri.

b) **Bigarren Gorapen-otoitzak (LAUDES II)**

1. Zeure kontra bakarrik egin dot pekatu.

50 (51)

Erruki, ene Jainko, 119 orri.

2. Biurtu zaitez, Jauna; erruki zakiez zure otseiñai.

89 (90)

Zeu izan zara, Jauna, 158 orri.

3. Zure errukia bai gain-gaiñekoa, Jainko!

35 (36)

Gaiztoak bere barruan, 159 orri.

4. Jauna da nire indar eta al-izate; Berak atara nenduan
onik.

Moises'en lenengo abestia

(Urteker, 15)

¹ Jaunari abestuko dautsai; bikaiña da Aren garaipena,
zaldi ta burdiak itxasoan amildu dauz.

² Jauna da nire indar eta al-izate,
Berak atara nenduan onik.

Bera da nire Jainko: goratu egingo dot;
Bera da nire gurasoen Jainko: ospatu egingo dot.

³ Jauna gudari da,

Jauna da Aren izena.

⁴ Faraon'en burdiak itxasora jaurti ebazan,
eta aren buruzagi onenak Itxas Gorrian ito;

⁵ olatuak estaldu ebezan,
arriak lez ondarrera jatsi ziran.

⁶ Zure eskuma, Jauna, indartsu ta ikaragarria da,
zure eskumak, Jauna, arerioa birrindu egiten dau;

⁷ zure garaipen aundiak arerioa ondatu egiten dau;
Zuk zure sua jaurti, eta lastoa lez iruntsiten dauz.

⁸ Zure surraren arnasaz urak batu egin ziran,
orma bat lez zutundu ziran ur biziaik,
olatuak itxasoan sendotu egin ziran.

⁹ Auxe iñoan arerioak:

«Atzetik joan eta eskua ezarriko dautset,
arein guda-ondakiñak banandu

ta asetuko da nire egarria,

ezpata artuko dot, neure eskuak oratuko dautse».

¹⁰ Baiña, zure arnasak putz egin

eta itxasoak estaldu egin ebazan,

beruna lez amildu ziran ur sakonetan.

¹¹ Nor Zu lakorik, Jauna, jainkoetan?

nor Zu lako ikaragarririk santuen artean,
zure arrigarrietan bildurgarririk, mirari-egillerik?

¹² Zeure eskua zabaldu zenduan,

eta lurra irunsi ebazan;

¹³ zure erri askatua errukiz zuzendu zenduan,
zeure al-izateaz eroan zenduzan zure bititoki santurari-

¹⁴ Erriak ori entzun eta dardaraka asi ziran, iño.
bildur-ikar(e)ak artu ebazan filistar nagusiak,

(10) Beruna = plomo.

- ¹⁵ Edom'go zezanak ikaraka asi ziran;
ikar(e)ak artu ebazan Moab'eko adariak,
kanaandar buruzagi guztiak kikildu egin ziran;
¹⁶ zeure bildur-ikarak artu ebazan,
arrituta itxi ebazan zure besoaren aunditasunak,
zeure erria igaroten zan artean, Jauna,
zeuretzat erosi izan zenduan erria igaroten zan artean,
¹⁷ Zeure soloko mendian sartu ta jarten dozu,
zeure aulki egin zenduan tokian, Jauna,
zeure eskuak egin eben jauretxean, Jauna.
¹⁸ Jauna beti-betiko da errege.

5. Goratu egizue Jauna, biotz ondatuak osatu ta arein zauriak lotu egiten dauz-ta.

146 (147)

Goratu egizue Jauna, 161 orri.

«Benedictus», 15 orri.

Goizeko otoitza (PRIMA)

Bedar bizia dagoan zelaietan etzun-azoten nau.

22 (23)

- ¹ Jainkoa da nire artzain,
ez dot ezeren bearriak;
² bedar bizia dagoan zelaietan etzun-azoten nau;
iturri geldietaruntz naroa,

- ³ eta bizkortu egiten dauz nire indarrak;
bide zuzenetik naroa,
bere izenaren maitasunarren.
⁴ Ibar illunetatik zear joanarren be,
ez dot bildurrik izango, Zu neugaz zoaz-ta:
zure zigorrak eta artzain-makillak baretu egiten nabe-ta.
⁵ Mai bat atontzen dozu nire aurean
nire arerioen kontra;
orioaz igurtziten daustazu burua,
eta gainezka dago nire edontzia.
⁶ Zeure ontasunak eta errukiak egiten dauste lagun
nire bizitzako egun guztietan;
eta Jaunaren etxea izango da nire bizitokia
amaibagako urteetan.

71 (72)

- ¹ Emoiozu zure auzia erregeari, ene Jainko orrek,
zure zuzentasuna errege-semeari:
² zure erriari zuzentasunez,
eta zure apalai artez agindu dagitsen.
³ Mendiak bakea ekarri dagien
eta muruak zuzentasuna.
⁴ Berak zaindu dagizala erriko apalak,
beartsuaren semeai laguntza egin
eta zapaltzaillea ausi dagiala.
⁵ Eguzkiak aiña iraun dagiala,
illargiak beste, gizaldiz gizaldi;
⁶ euria bedartzara lez jatsi daitela,
lurra busti-busti egiten dauan sirimiria lez;

(4) Zigor = vara.

(3) Muruak = collados.

- ⁷ aren egunetan, zuzentasuna loratu daitela,*
baita bakea be, illargia itzungi arte;
- ⁸ itxasotik itxasora nagusi izan daitela,
Ibai Aunditik legor-mugaraiño.
- ⁹ Aren kontra dagozanak aren aurrean makurtu daitezala,
aren arerioak autsa jan dagiela;
- ¹⁰ Tarsis'ko ta ugarteetako erregeak
ordain-sarià emon dagioela;
Saba'ko ta Arabia'ko erregeak
euren opariak eskiñi dagioezala;
- ¹¹ auspazu daitezala aren aurrean errege guztiak,
eta otseindu dagiela erri guztiak;
- ¹² deadarka ziarduan beartsua
berak atarako dau onik-eta,
baita laguntzaillerik ez cukan errukarria be;
- ¹³ bera izango yako erruki beartsu ta eskekoari,
berak zainduko dau beartsuen bizià;
- ¹⁴ berak atarako dauz indarkeritik arein biziak,
arein odola aren aurrean baliotsu izango da.
- ¹⁵ Bizi dadilla ta Saba'ko urrea ekarri dagioela,
egin dagiela otoiiz eten-bagarik aren alde
eta egun osoan bedeinkatu dagiela.
- ¹⁶ Garia ugari izan daitela soloetan,
ziri-zara egin dagiela mendi-tontorretan;
emon dagiela frutua Libano'k lez,
eta zelaiko bedarra lez erne daitezala galburuak;
- ¹⁷ aren izena betiko izan daitela,
eta aren izen onak eguzkiak beste iraun dagiela:
bera izan daitela erri guztien onespena,

(16) Ziri-zara egin: susurrar.

- eta lurreko enda guztiak zoriontsutat autortu dagiela.
- ¹⁸ Bedeinkatua izan daitela Jauna, Israel'go Jainkoa,
mirariak egiten bakarra dana;
- ¹⁹ bedeinkatua betiko Aren izen ospetsua;
bete dagiela lurra Aren aintzak.
Amen, amen!

Goizerdiko otoiiza (TERTIA)

Bai ona zintzoarentzat Jainkoa, biotz-garbientzat!

72 (73)

- ¹ «Bai ona zintzoarentzat Jainkoa,
biotz-garbientzat Jauna!».
- ² Ni, barriz, jausteko zorian egon naz,
nire oiñak ia-ia laban egin eben:
- ³ gaiztoak gora joaten ikustean,
biurriakanako leiaz nengoan-eta.
- ⁴ Areik ez dabe bape biotzmiñik,
osasuntsu ta gizen dagoz;
- ⁵ ez dabe giza-nekerik,
ezta gainetikoak lez samiñik eroaten be.
- ⁶ Orregaitik, arrokeria dabe samakotzat,
eta indarkeri-jantziak estaltzen dauz;
- ⁷ aragitik dongakeria darie,
asmakeri txarrez gainezka dabe biotza.
- ⁸ Iraiñak eta berba txarrak esaten dabez,
eta gainekaldetik indarkeri-eskinka datoz.
- ⁹ Agoaz zeruraino igoten dira,
eta miiñaz lurrean zear dabiz.

(17) Enda = raza.

- ¹⁰ Orregaitik, nire erria arekana biurtzen da
eta arein berbak edaten dauz.
- ¹ «Zelan jakin Jainkoak?», diñoe areik;
«jakitun egingo da, ba, Gorengoa?»
- ¹² Orrelakoxeak dira gaitztoak:
beti nasai, aberastasunak pillatzen diardue.
- ¹³ Beraz, zegaitik garbitu dot nik nire biotza,
baita nire eskuak be errubagetasunetan?
- ¹⁴ zegaitik eutsi ta eutsi egun osoan,
eta goiz guztietan neure burua zigortu?
- ¹⁵ «Areik lez egin bear dot berba» esan ba'negi,
zure semeen jatorria ukatuko neuke.
- ¹⁶ Ori ausnartzen niarduan nik,
bainā oso gaitz egiten yatan:
- ¹⁷ sartu nintzan noizbait Jainkoaren ezkutuan,
eta orduantxe ulertu neban arein ondorena.
- ¹⁸ Egia da: labanarrian jarten dozuz,
ondamendira jaurtiten dozuz:
- ¹⁹ zarrara itzela emoten dabe beingoan,
eta bildur-ikaraz itzungi ziran.
- ²⁰ Iratzartzean ames bat lez, Jauna,
Zu iratzartzean, arein gerizak bazartu egiten dozuz.
- ²¹ Nire biotza garrazten zanean
eta nire barruak mintzen nenduanean,
- ²² ni zoro ta tentel bat nintzan,
abere bat nintzan ni zure aurrean.

(18) Labanarri = resbaladero.

(19) Zarrara itzela = horror.

- ²³ Ni, barriz, zeugaz egongo naz beti,
zeuk eratzen daustazu nire eskumako eskutik,
- ²⁴ Zeu zaitut aurrelari zure burubideetan,
eta Zeuk naroazu zori argitsura.
- ²⁵ Ez zaitut Zeu zeruan?
eta zeugaz, zer daust lurrak?
- ²⁶ Nire betiko atal dan Jainkoaganako leiaz*
geroago ta itzungiago dodaz biotza ta aragia.
- ²⁷ Bai: Zugandik urruntzen diranak galdu egiten dira,
Zutzaz maltzur diranak ondatu egiten dozuz.
- ²⁸ Niri ondo datorkidana, Jainkoaren ondoan egotea da,
Jauna neure gordeleku egitea,
eta Sion'go ateetan
zure egintza guztiak azaltzea.

Egurdiko otoitza (SEXTA)

Gogoratu egizu, Jauna, antxiñatik zeureztat artu zenduan
lagunartea.

73 (74)

- ¹ Zegaitik gaukazuz, Jainko, beti bertan-bera itxita?
eta zure artaldeko ardien kontra zure asarrea erreten?
- ² Gogoratu egizu antxiñatik zeureztat artu zenduan lagun-
zeure ondoretzat erosi zenduan jatorria, [artea,
zeure bizitokia jarri zenduan Sion-mendia.
- ³ Zuzendu zure oiñak
zutik egon ezinda dagozan orma-zaar oncitara:
arerioak jauretzea guztiz ondatuta itxi dau.

(26) Itzungi = consumirse, apagar-se.

(2) Ondore = posesión, herencia.

- ⁴ Arerioak zure batzar-erdian orroka ziarduen,
euren ikurriñak zabaldu ebezan.
- ⁵ Sarrera-buruan orma-azurrak aizkoraka eratsi ebezan;
- ⁶ gero, maillu ta maillutzarrak az
murriztu ebezan irudi guztiak;
- ⁷ zure jauretxeari sua emon
eta zure izeneko bizitokia eratsi ta gerendu egin dabe,
- ⁸ «Jo ta ausi orreik», iñoen eurekautan,
eta errialdeko jauretxe guztiak sua emon eutseen.
- ⁹ Arrezkero ez dogu ezaugarririk ikusten,
ez dago profetarik:
gure artean iñok ez daki noiz arte.*

- ¹⁰ Noiz arte irainduko gaitu arerioak, ene Jainko?
Zure izenari biraoka
eten-bagarik jardungo ete-dautso zure arerioak?
- ¹¹ Zegaitik atzeratzen dozu zure ezkerreko esku ori?
Zegaitik daukazu kolkoan gordeta zure eskuma ori?
- ¹² Zu, ostera, ene Jainko, errege zara betidanik,
Zeuk irabazi zenduan garaipena lurraren erdian.
- ¹³ Zeuk erdibitu zenduan indarrez itxasoa,
Zeuk ausi zenduan itxas-piztitzarraren burua,
- ¹⁴ Zeuk zapaldu zenduan Lebiatan'en burua,*
eta itxas-piztia jateko emon.
- ¹⁵ Zeuk sortu zenduzan iturri ta errekek,
Zeuk agortu zenduzan ibai agortu-eziñak.*
- ¹⁶ Zeurea da eguna, zeurea gaba,
Zeuk jarri zenduzan illargia ta eguzkia;
- ¹⁷ Zeuk ipiñi zeutsazan lurrari mugak,
Zeuk eratu zenduzan uda ta negua.

(7) Gerendu = deshonar, profanar.

- ¹ Gogoan izan, Jauna, arerioak iraindu egiten zaitu-ta,
erri tentel batek zure izena ezetsi egiten dau-ta;
- ¹ ez emon saiai zure usokumearen bizia,*
ezta zure beartsuen biziaz betiko aztu be.
- ² Gogoratu egizu zure alkartasuna: lurraldeko baztarrak
indarkeriz beteta dagoz-ta.
- ² Ez daitela apala lotsatuta joan,
goratu dagiela zure izena beartsuak eta saminduak.
- ² Jagi zaitez, Jainko, zaindu zure auzia:
izan gogoan tentelaren betiko iraiñak;
- ² ez aztu zure arerioen deadarrak,
zure kontra geroago ta gorago doan biurrien zaratotsa.

Bezerdiko otoitza (NONA)

*Zeure izenari egiten dautsagu dei, Jauna, zure arrigarriak
azalduz.*

74 (75)

- ² Eskerrak emoten dautsuguz, Jainko,
eskerrak emoten dautsuguz,
zeure izena iragarriez,
zeure miragarriak azalduz.
- ³ «Unea aukeratu dagidanean,
zuzen ebatziko dot.
- ⁴ Lurra bere bizidun guztiakaz dardaraka asi daitenarren,
nik gogortu egin dodaz aren abeak».
- ⁵ Ez puztu, dirautset arroputjai;
eta gaiztoai: ez jaso burua,

- ⁶ ez jaso burua zeruaren kontra,
ez esan berba gorririk Arkatxaren kontra.
- ⁷ Ez sortzaldetik, ez sartzaldetik,
ez basamortutik, ez mendietatik,
- ⁸ Jainkoak bakarrik agintzen dau,
au beeratu egiten dau, a gora jaso.
- ⁹ Jaunak edontzi bat dauko eskuan,
ardao bisdunez beteriko edontzi bat:
edaten emoten dautse, ondarrak eta guzti,
lurreko gaizto guztiai.
- ¹⁰ Nik, barriz, beti iragarriko dot Aren aunditasuna
eta Jakob'en Jainkoarentzat joko dodaz eresiak:
- ¹¹ gaiztoen indarra eratsi egingo dot,
eta zintzoaren indarra gora jagiko da.

75 (76)

- ² Jainkoa Juda'n agertzen da,
Aren entzutea aundia da Israel'en;
- ³ Aren txabola Jerusalem'en dago,
Aren bizitokia Sion'en.
- ⁴ Antxe ausi ebazan uztaiaren tximistak,
babeskiña, ezpata eta guda.
- ⁵ Zu zoragarria zara, guztiz bikaiña,
guda-ondakin pilloak irabazitakoa.
- ⁶ Adoretsuak loak artuta dagoz,
eta gudadzailleai euren besoak ez dautsee erantzuten.
- ⁷ Oiu bataz, Jakob'en Jainko orrek,
gelditu zenduzan burdi ta zaldiak.
- ⁸ Zu ikaragarria zara: nok egin gogor zure aurrean
zure asarrearen indarrari?

- ⁹ Zerutik iragarten dozu erabagia:
lurra bildurrez ixil-ixilik gelditu da,
- ¹⁰ Jainkoa auzia egiteko zutuntzen danean,
lurreko apalak onik atarateko.
- ¹¹ Gizonaren asarreak goratu egin bear izango zaitu,
zigorretik bizirik urten daitezanak
inguratu egingo zaitue.
- ¹² Egin zin-eskintzak zuen Jainko Jaunari
eta bete egiozuez;
eta menpekoak Bildurgarriari
ordain-eskintza ekarri dagoela:
¹ arnasa bagarik izten dauz aundikiak,
eta bildurgarria da lurreko erregeentzat.

Arrats-otoitza (BEZPERAK)

1. *Gozo ta atsegingarria, benetan, anaiak alkartuta bi-
zi izatea!*

132 (133)

- ¹ Ikusi egizue: gozo ta atsegingarria, benetan,
anaiak alkartuta bizi izatea!
- ² Buruan orio bikaiña da ori,
bizarrean zear isurten dala,
Aaron'en bizarrean zear isurten dala,
aren soifneko-ertzeraiño.
- ³ Sion-mendira jatsiten dan
Ermon'go iruntza da.
Jaunak onespena araxe bialtzen dau-ta:
bizia betiko.

(12) Zin-eskintzak = votos. — Ordain-eskintza = tributo.

2. *Emoiozuez eskerrak Jaunari, Aren errukia betikoa da-ta.*

135 (136)

1. Emoiozuez eskerrak Jaunari, ona da-ta,
Aren errukia betikoa da-ta.
2. Emoiozuez eskerrak jainkoen Jainkoari:
Aren errukia betikoa da-ta.
3. Emoiozuez eskerrak jaunen Jaunari,
Aren errukia betikoa da-ta.
4. Berak bakarrik egin ebazan mirari aundiak:
Aren errukia betikoa da-ta.
5. Berak egin ebazan jakituriz zeruak:
Aren errukia betikoa da-ta.
6. Berak sendotu ebazan urak lur-gaiñean,
Aren errukia betikoa da-ta.
7. Berak egin ebazan argidun aundiak:
Aren errukia betikoa da-ta.
8. Eguna zaintzen dauan eguzkia:
Aren errukia betikoa da-ta.
9. Gaba zaintzen dauan illargia:
Aren errukia betikoa da-ta.
3. *Emoiozuez eskerrak Jaunari, gure beeraldian gogora ekarri genduzan-eta.*

135 (136)

10. Berak zauritu ebazan Ejipto'ko lensemeak:
Aren errukia betikoa da-ta.
11. Eta Israel lurralde aretatik atara egin eban:
Aren errukia betikoa da-ta.

(7) Argidun = lumbrera.

12. Esku altsuaz, beso zabalaz:
Aren errukia betikoa da-ta.
13. Berak erdibitu eban Itxaso Gorria:
Aren errukia betikoa da-ta.
14. Eta Israel aren erditik eroan eban:
Aren errukia betikoa da-ta.
15. Faraon Itxaso Gorrira jaurti eban:
Aren errukia betikoa da-ta.
16. Bere erria basamortuan zear eroan eban:
Aren errukia betikoa da-ta.
17. Berak zauritu ebazan errege entzutetsuak:
Aren errukia betikoa da-ta.
18. Errege altsuai eriotza emon eutsen:
Aren errukia betikoa da-ta.
19. Sijon'i, amortarren erregeari:
Aren errukia betikoa da-ta.
20. Eta Basan'i, Basan'go erregeari:
Aren errukia betikoa da-ta.
21. Arein lurra ondorentzat emon eutsen:
Aren errukia betikoa da-ta.
22. Israel'i, bere otseñari, ondorentzat:
Aren errukia betikoa da-ta.
23. Gogora ekarri genduzan gure beeraldian:
Aren errukia betikoa da-ta.
24. Eta gure zapaltzailleakandik onik atara genduzan:
Aren errukia betikoa da-ta.
25. Berak emoten dautse janaria bizidun guztiai:
Aren errukia betikoa da-ta.
26. Emoiozuez eskerrak zeruko Jainkoari:
Aren errukia betikoa da-ta.

(22) Ondoren = herencia.

4. *Lotu dakidala miin au ago-sabaian, zutzaz gomutatzen ez ba'naz, Jerusalem!*

136 (137)

- ¹ Babilonia'ko erreka-ertzetan negar egitera
jesarri gintzazan, Sion gogoan genduala;
² aren erreka-ertzetako saratsetan
esegiten genduzan gure zitarak.
³ Erbesteratu genduezanak, gure zapaltzaileak,
abestu gengiala ta poztu gengizala eskatzen euskuen an,
«Abestu eiguzue Sion'go kanta bat».
⁴ Zelan abestu atzerrian
Jaunaren kanta bat?
⁵ Zutzaz aztuten ba'naz, Jerusalem,
igartu dakidala eskumako esku au;
⁶ itsasi dakidala miin au ago-sabaian
zutzaz gomutatzen ez ba'naz,
nire pozen gaillurrean
Jerusalem jarten ez ba'dot.
⁷ Artu kontuak, Jauna, Idumeatarrai
Jerusalem'go egunari buruz,
«Austu, austu oiñarrietaraiño» esanez
alkar axatzen eben-eta.*
⁸ Babilonia'ko uri-nagusi gaizkille oril!
Zorionsu, guri egin dauskuzuzan kalteak
ordaindu al dagitzuzana!
⁹ Zorionsu, zure umeak artu
eta atxetan birrindu dagizana!

(2) Sarats = sauce.

5. *Eskerrak emongo dautsadaz zure izenari, zure erruki ta zintzotasunagaitik.*

137 (138)

- ¹ Biotz-biotzez emoten dautsudaz eskerrak, Jauna;
aingeruen aurrean joko dodaz eresiak Zureztat.
² Zeure jauretzerantz auspaztuko naz,
eskerrak emongo dautsadaz zure izenari;
zeure erruki ta zintzotasunagaitik,
zure agintzaria zure izen ona baiño gorago dago-ta.
³ Dei egin neutsunean, entzun egin zeustan,
geitu egin zenduan adorea nire ariman.
⁴ Lurreko errege guztiak
eskerrak emon dagitzuezala, Jauna,
zure agoko berbak entzutean;
⁵ ospatu begiez Jaunaren bideak,
Jaunaren aintza aundia da-ta.
⁶ Jauna garaitsua da, adi-adi egoten yako apalari,
eta urrundik ezagutzen dau arroa.
⁷ Arrisku-arteon nabillenean,
bizia emoten daustazu;
nire arerioaren asarerearen kontra
zeure ezkerra luzatu
eta zure eskumako eskum(e)ak onik ataraten nau.
⁸ Beteko dauz Jaunak bere mesedeak nigan:
betikoa da, Jauna, zure errukia,
ez itxi bertan bera zure eskuak egindakoa.

Jaunak arrigarriak egin dauz bere besoaz; biotz-arroak sakabanatu egiten dauz.

«Magnificat», 37 orri.

Illuntzeko otoitza (AD COMPLETORIUM)

Zeu zara, Jauna, nire laguntza ta osasun.

69 (70)

- ² Arren, ene Jainko, askatu nagizu;
etorri bizkor, Jauna, niri laguntza ekartera.
- ³ Ondamendi gorria eroan begie
bizia kendu nai daustenak;
atzeraka egin begie lotsaz gorri-gorri
nire gatxa gura dabenak;
- ⁴ lotsatuta biurtu daitezala
nire lepotik barreka diarduenak.
- ⁵ Poztu ta alaitu bediz Zugaz
zure billa dabizn guztiak;
zugandiko osasuna gura dabenak
esan begie beti: «Aundia da Jainkoa».
- ⁶ Ni, zoritxarreko gaiso bat naz;
lagun zakidaz, ene Jainko,
nire laguntza ta askatasun Zeu zara-ta:
ez luzatu, Jauna!

70 (71)

- ¹ Zeugana joten dot, Jauna:
ez nadilla betiko zapalduta gelditu;
- ² zuzena zaran ezker, askatu ta onik atara nagizu,
makurtu nigana zure belarria, eta salbau nagizu.
- ³ Izan zakidaz Zeu igesleku-arkatxa,
ni gordeteko gaztelua,
nire aitz eta gaztelu Zeu zara-ta.


- ⁴ Askatu nagizu, ene Jainko orrek, esku gaiztotik,
ikubil donga ta zapaltzailletik;
- ⁵ nire itxaropena Zeu izan zintzazan-eta, ene Jainko,
baita nire uste ona be, Jauna, nire gaztarotik.
- ⁶ Amaren sabelean ezker, Zeu zendudazan eusgarri,
sabelean, Zeuk eusten zeustan,
Zeugan izan dot beti nire ustea.
- ⁷ Askori miragarri izan nakie,
nire gordeleku gogorra Zeu zintzazan-eta.
- ⁸ Agoa beterik neukan, zure gorapenaz
eta zure aintzaz, egun osoan.
- ⁹ Orain, zartzaroan, ez nagizu baztartu;
indarrak uts egiten dauste, ez nagizu bertan-bera itxi;
- ¹⁰ nire arerioak neutzaz egiten dabe berba-ta,
bizia kendu nai daustenak batzarrean dagoz-ta:
- ¹¹ «Jainkoak bertan-bera itxi dau», diñoie;
«jarraitu orri, oratu orri,
bere aldekorik ez dauko-ta».
- ¹² Ez gelditu nigandik urrun, ene Jainko,
lagun zakidaz bizkor, ene Jainko!
- ¹³ Uts egin eta ondatu daitezala
bizia kendu nai daustenak,
izen txarrez eta lotsaz beterik gelditu beitez
kaltea opa daustenak.
- ¹⁴ Ni, barriz, beti egongo naz itxaroten,
eten-bagarik goratuko zaitut;
- ¹⁵ nire agoak zeure laguntza iragarriko dau,
eta zeure salbabidea egun osoan.
- ¹⁶ Zeure arrigarriak azalduko dodaz, ene Jauna,
zeure garaipena adierazoko dot, zeurea oso-osorik.

- ¹⁷ Gaztetarik irakatsi zeustan, ene Jainko orrek,
eta gaur arte iragarten dodaz zure miragarriak;
¹⁸ orain, zartzaroan eta ule-zuriz,
ez nagizu bertan-bera itxi, ene Jainko orrek,
zure besoa gizaldi barriari azaldu dagitsadan arte,
¹⁹ baita zure arrigarriak eta gurenda garaisuak,
eta egin zenduzan miragarriak be:
nor Zu lakorik, ene Jainko?
²⁰ Arrisku asko ta astunak leporatu zeustazan;
barriro emongo daustazu bizia,
lurpe sakonetik gora jasoko nozu;
²¹ nire izen ona gora jasoko dozu,
poztu egingo nozu barriro;
²² eta nik eskerrak emongo dautsudaz, ene Jainko,
arpaz, zure zintzotasunagaitik;
zitara joko dot zuretzat,
Israel'go Deun orrentzat;
²³ goraka ekingo dautsue nire ezpanak, Jauna,
baita Zuk askatu zenduan nire arim(e)ak be;
²⁴ nire miiñak be egun osoan
zeure laguntza esango dau,
kaltea opa eustenak
ondatuta eta lotsaz beterik gelditu ziran-eta.

Onik atara gagizuz... (domeketan lez): 41 orri.



(19) Gurenda = victoria.



BARIKUETAN

Goizaldeko oioitzak (MAITIÑAK)

1. *Jaunak Jakob'entzat agindua erabagi eban, Israel'i legea emon eutsan.*

77 (78)

- ¹ Entzun, nire erri orrek, nire irakaspena,
makurtu belarria nire agoko berbetara;
- ² esakera zaarrai ekingo dautse nire agoak-eta,
antxiñako ezkutuak agertu daitezcan.
- ³ Guk entzun eta ikasi genduana,
gure gurasoak azaldu euskuena,
⁴ ez dautsegu gordeko arein semeai,
datorren gizaldiari azalduko dautsagu:
Jaunaren gorapenak, Aren al-zatea,
egin ebazan mirariak.
- ⁵ Jakob'entzat agindua erabagi eban-eta,
Israel'i legea emon eutsan:
semeai irakatsi egieela
agindu eutsen gure gurasoai,

- ⁶ urrengo gizaldiak jakin egian,
baita gero jaio zeitezan semeak be.
Jagi ta euren semeai azaldu dagitseea,
⁷ euren uste ona Jainkoagan jarri dagien
eta Jainkoaren egiñak aztu ez dagiezan,
Aren aginduak bete dagiezan baiño;
⁸ euren gurasoen antzera jardun ez dagien,
gizaldi biurri ta setatia;
gizaldi biotz-aldakorra,
Jainkoari buruz gogo zintzo bagea.

2. *Arein gurasoen aurrean miragarriak egin ebazan.*

77 (78)

- ⁹ Efrain'darren gezilariak
gudaketan atzeraka egin eben.
¹⁰ Ez eben bete Jainkoagazko alkartasuna,
ukatu egin eben Aren legeari jarraitzea,
¹¹ Aren egintzak eta
erakutsi izan eutsezan mirariak azturik,*
¹² arein gurasoen aurrean mirariak egin ebazanean,
Ejipto-lurraldean, Soan'go zelaian;
¹³ itxasoa urratu eban arei bidea zabaltzeko,
urak orma lez bihurturik;
¹⁴ egunez odei bataz eroiazan,
eta gabez suaren argiaz;
¹⁵ basamortuan arkatxa zulatu
eta ura emon eutsen edaten eurrez;
¹⁶ atxetik errekek atara ebazan,
eta urak ibai antzera eratsi-azo.

3. *Jaunak zeruko ateak zabaldu ebazan; euri-antzera
mana bialdu eutsen.*

77 (78)

- ¹⁷ Alan be, areik pekatu egin eben bariro Aren kontra,
eta Gorengoaren kontra jagi ziran basamortuan;
¹⁸ zirikatu egin eben Jainkoa euren biotzetan,
euren gogoko janaria eskaturik;
¹⁹ «Al izango ete-dau Jainkoak basamortuan
mairik gertatu? – esan eben Jainkoaren kontra –.
²⁰ Arek atxa jo, ura erion
eta errekek urten ziran gaiñezka;
baiña, ogia be emongo al ete-dausku,
eta bere erria okelaz orniduko?»
²¹ Ori entzunda, Jauna asarratu egin zan,
sua biztu zan Jakob'en kontra,
irakin egin eban Aren sumiñak Israel'en kontra;
²² euren Jainkoagan sinismenik ez ebelako,
ezta Aren laguntzan itxaropenik be.
²³ Alan be, goiko odeiai agindua emon eutsen,
zeruko ateak zabaldu ebazan;
²⁴ euri antzera mana bialdu eutsen,
zeruko garia emon eutsen;
²⁵ eta gizonak aingeruen ogia jan eban,
ok egiteko aiña janari bialdu eutsen.
²⁶ Zerutik Ipar-aizea atara eban,
eta bere indarraz Ego-aizea zuzendu:
²⁷ auts-moltzoa lez isuri eban okel(e)a euri-antzera,
baita egaztiak be itxasoko ondarra lez;
²⁸ txabolategi-ondora jausi yakezan,
arein txabolen ingurura.

- ²⁹ Jan eta asetu egin ziran;
alantxe bete eban arein guraria.
- ³⁰ Guraria bete ordukoxe, barriz,
janaria tartean agoan eukela,
- ³¹ Jainkoaren asarrea irakiten asi zan arein kontra:
errimeenai bizia kendu eutsen,
Israel'go aukeratuenai lur jo-eragin eutsen.

4. *Jainkoa da arein arkaitz, Gorengoa da arein askatzaile.*

77 (78)

- ³² Alan be, pekatu egin eben barriro
eta ez ebezan Aren mirariak sinistu:
- ³³ orduan, putz bataz amatau ebazan arein egunak,
bat-batean arein urteak;
- ³⁴ eta il-zorian eukazanean, Aren billa asten ziran,
eta Jainkoagana biurtzeko arduratzen ziran;
- ³⁵ Jainkoa euren aitz zala ekarri eben gogora,
Jainko Gorengoa, euren askatzailea.
- ³⁶ Agoz berba labanak esaten eutsoezan,
baiña arein miñiak guzurra esaten eben:
- ³⁷ arein biotzak ez eben Areganako zintzotasunik,
ezta Aren alkartasuna sinisten be.
- ³⁸ Arek, ostera, erruki yaken,
errua parkatu ta ez ebazan ondutzen:
takian-takian atzeratu eban bere asarrea,
eta ez eban bere sumin guztia biztuten;
- ³⁹ aragi zirala gogoraturik,
barriro etorten ez dan arnasa ariña zirala gogoraturik.

5. *Jaunak atara ebazan zapaltzailleakandik.*

77 (78)

- ⁴⁰ Areik bai izan zirala biurriak basamortuan,
bakartadean Jainkoari gogait eragiñik!
- ⁴¹ Barriro be Jainkoa zirikatu egiten eben,
Israel'go Santua axatu!,
- ⁴² azpiratzaileakandik atara ebazaneko eskua
gogora ekarri bagarik:
- ⁴³ Ejipto'n mirariak egin ebazanean,*
Soan'go zelaian arrigarriak;
- ⁴⁴ ibaiak eta errekek odol biurtu ebazanean,
edan ez egien;
- ⁴⁵ ezparak bialdu eutsezanean, arei eltzeko,
baita ugarioak be, arei gogait eragiteko;
- ⁴⁶ arein solo-frutuak matxingorrigoari emon eutsazanean,
eta arein lan-saria saltamatxiñoari;
- ⁴⁷ arein maastiak txingorraz zapaldu ebazanean,
eta arein pikondoak zurdaiaz;
- ⁴⁸ arein abereak arriaz ondatu ebazanean,
eta arein artaldeak oiñaztarriaz;
- ⁴⁹ arein kontra bere asarre-sugarra bialdu ebanean,
bere sumiña, bere amorrua, bere asarrea;
- ⁵⁰ eta mandatari okerrak bialdurik,
bere asarrea erabilli eban:
ez ebazan eriotzatik askatu,
arein biziak izurri-pean itxi ebazan;
- ⁵¹ Ejipto'n len-semeak zauritu ebazanean,
Kam'en txaboletan lenen jaiotakoak;

(45) Ezpara = tábano.

(50) Izurri = peste.

⁵² artaldea lez atara eban bere erria,
⁵³ zorro bat lez eroan ebazan basamortuan zear;*
⁵⁴ ziur-ziur eroan ebazan, iñungo bildur bagarik,
 arein arerioak itxasoak estaltzen ebazala;
⁵⁵ muga santuetatik sartu ebazan
 bere eskumak irabazi izan eban mendiraño;
 euren aurrean baztatu ebazan atzerriak,
 arlo bana emon eutsen bereai:
 arein txabolak Israel'en odolekoai
 emon eutsezan bizilekutzat.

6. *Jainkoak bere jauretxea lurlean egin eban.*

77 (78)

⁵⁶ Areik, ostera, zirikatu egin eben Jainko Gorengoa,
 eta kontra jagi,
 Aren aginduak ukatuez;
⁵⁷ euren gurasoak lez, ospa ta saldukeria egin eben,
 uztai okertua lez egin eben uts;
⁵⁸ euren mendi-bizkarrakaz asarrerazo egiten eben *Jainkoa*,
 euren jainkotxoakaz biztu egiten eben Aren garra.
⁵⁹ Jainkoak ori entzun eta sumindu egin zan,
 eta Israel zearo baztatu eban;
⁶⁰ bertan-bera itxi eban Silo'ko bere bizilekua,
 gizonakaz batera bizi zan txabola;
⁶¹ bere *gizon* adoretuak joputzan itxi ebazan,
 eta arein aintza* arerioen eskuetan;
⁶² bere erria ezpatapean itxi eban,
 bere arloaren kontra suminduta;

(57) Ospa egin = desertar.

(61) Joputzan = en cautiverio.

⁶³ mutillak suak erre ebazan,
 eta andrageiak ez eben kantarik abesten;
⁶⁴ abadeak ezpataz ilten ziran,
 eta arein alargunak ez eutseen negarrik egiten.
⁶⁵ Baiña, Jauna iratzartu egin zan, amesetatik lez,
 ardaoak menperatutako gudaria lez:
⁶⁶ jo egin eban arerioa atzetik,
 luzaroko ausi-abarra emonik.
⁶⁷ Iguindu egin ebazan Jose'ren txabolak,
 ez ebazan aukeratu Efrain'en odolekoak:
⁶⁸ Juda'ren jatorrikoak aukeratu ebazan,
 baita Sion-mendia be, bere begikoa.
⁶⁹ Zerua besteko jauretxea jaso eban,
 lurra lez sendotu eban betiko.
⁷⁰ Dabid eukeratu eban bere morroitzat,
 atara egin eban artaldearen arditegietatik;
⁷¹ ardien atzean ebillena,
 bere erri zan Jakob larratzera eroan eban,
 baita bere solo zan Israel larratzera be.
⁷² Biotz zintzoz larratu ebazan,
 esku bizkorrez eroaten ebazan.

7. *Lagun zakiguz, Jainko gure salbatzaille, eta parkatu gure pekatuak.*

78 (79)

¹ Ene Jainko, atzeritarrak zeure soloan sartu dira,
 zeure jauretxe santua gerendu dabe,
 lur-jota itxi dabe Jerusalem;
² zure morroien gorpuak
 ortziko egaztiai jaurti dautseez janaritzat,

(2) Ortzi = cielo atmosférico.

- eta zure zintzoen aragia
lurreko piztiaí.
- ³ Ura lez isuri eben arein odola
Jerusalen-inguruan,
eta iñor ez ari lur-emoteko.
- ⁴ Gure auzokoen lotsagarri izan gintzazan,
gure ingurukoen barregarri ta olgetagarri.
- ⁵ Noiz arte, Jauna?
Beti egongo ete-zara asarre?
Sua lez biztuko ete-da zure sumiña?
- ⁶ Isuri egizu asarre ori
Zu ezagutzen ez zaituen errien gaiñera,
zure izenari dei egiten ez dautsoen erregeen gaiñera.
- ⁷ Jakob iruntsi egin dabe-ta,
aren etxeak ustu egin dabez.
- ⁸ Ez gogoratu gure kontra
gure gurasoen erruak,
etorri dakigula laster zure errukia,
indar bagarik gagoz-ta.
- ⁹ Lagun zakiguz, Jainko gure salbatzaille,
zure izenari dagokion aintzagaitik,
askatu gagizuz eta parkatu gure pekatuak,
zure izenagaitik.
- ¹⁰ Zegaitik esan daikee jentillak:
«Nun dago euren Jainkoa?»
Ezagutu dagiela atzerritarrak gure aurrean,
zure morroien odol isuriaren zigorra.
- ¹¹ Eldu bedi zure aurrera lotutakoaren antzia:
askatu zure beso indartsuaz eriotzarako galduak;
- ¹² gure auzokoak egin eutsuen iraiña, barriz,
biurtu egiezu zazpi aldiz alakoa, Jauna.

- ¹³ Bitartean, guk, zeure erri
eta zeure artaldeko ardi garanok,
eskerrak emongo dautsuguz beti,
zeure gorapenak iragarriko doguz gizaldiz-gizaldi.
8. *Neu naz zure Jainko Jauna, Ejipto'ko lurraldetik atara zendudazana.*
- 80 (81)
- ² Goratu gure indar dan Jainkoa,
jo txaloak Jakob'en Jainkoari:
- ³ lagundu, jo atanborak,
zitara gozoak eta arpak;
- ⁴ jo turuta ilbarrian,
ilbetean, geure jaia da-ta.*
- ⁵ Israel'en lege bat da-ta,
Jakob'en Jainkoaren agindu bat,
- ⁶ Jose'ri ezarri eutsan lege bat,
Ejipto'ko lurretik urtetean.
Berbakera ez-ezagun bat entzuten dot:
- ⁷ Kendu egin neutsan sorta lepotik,
eta aren eskuak itxi egin eben otzar(e)a.*
- ⁸ Samiñaldian deadar egin zenduan,
eta askatu egin zendudazan,
trumoi-artean gordeta erantzun neutsun,
Meriba'ko iturri-ondoan negurto zendudazan.
- ⁹ Entzun, ene erri orrek, zeure kontra egiten dot autor,
entzungo al nozu, Israel!:
- ¹⁰ «Ez dozu izango jainko arrotzik,
ez dozu gurtuko erbesteko jainkorik,

- ¹¹ neu naz zure Jainko Jauna,
Ejipto'ko lurraldetik atara zendudazana.
Zabaldu egizu agoa, bete dagitsudan».
- ¹² Baiña, nire erriak ez eban nire abotsik entzun,
Israel'ek ez eban esanik egin nai izan:
- ¹³ euren biotz setatiaren naitara itxi nebazan,
euren naikerien eraz ibilli zeitezan.
- ¹⁴ Entzungo al nau nire erriak,
ibilliko al da Israel nire bidean zear!:
- ¹⁵ beingoan beeratuko neukez nire arerioak
eta nire eskua arein arerioen kontra biurtuko litzake;
- ¹⁶ Jauna iguintzen dabenak,
laban-laban egingo leuskizue berba,
eta arein zoria erabagita geldituko litzake;
- ¹⁷ gari-mamiña emongo neuskizu janaritzat,
baso-eztiaz asetuko zendukedaz.

9. Jauna, ez egon ixillik, zure arerioak burua jasoten dabe-ta.

82 (83)

- ² Jauna, ez egon mutututa,
ixillik eta geldi, ene Jainko;
- ³ begira: arerioak artega dabiz
eta gorroto dautsuenak burua jasoten dabe;
- ⁴ asmakeriak gertatzen diardue zure erriaren kontra,
zeure aukeratuen kontra alkartu dira.
- ⁵ «Ondatu dagiguzan — diñoce —, erri be izan ez daitezan,
Israel'en izenik be ez daitela geiago aittatu».
- ⁶ Kalte egiteko asmo bat dabe,
eta zure kontra alkartuta dagoz:

- ⁷ Edom'go beduinuak, Ismael'darrak,
Moab'tar eta Agar'tarrak,
- ⁸ Biblos, Amon, Amalek,
Pilis'tarrak Tiro'tarrakaz;
- ⁹ Asiria'tarrak be batu yakeezan
eta Lot'en semeai laguntza emon eutseen.
- ¹⁰ Erabilli egizuz Madian lez, Sisara lez,
Jabin Kison-errekan lez:
- ¹¹ areik Endor'en izan ziran ondatuak,
eta lurrarentzat simaur izateko izan ziran gauza.
- ¹² Arein nagusiak erabilli egizuz Okilla ta Otsoa lez,
arein buruzagiak Zeba ta Salmana lez;
- ¹³ areik auxe iñoen deadarka:
«Artu daiguzan guretzat Jainkoaren lurraldeak».
- ¹⁴ Orbela lez biurtu egizuz, ene Jainko orrek,
mendebalaren aurrean agotza lez.
- ¹⁵ Sasia suak artzen dauan antzera,
garrak mendia kiskaltzen dauan antzera,
- ¹⁶ artu egizuz aurrean zure oreiaz,
ikaratu egizuz zure ekatxaz.
- ¹⁷ Bete egiezu lotsaz arpegia,
zeure izena billatu dagien, Jauna;
- ¹⁸ lotsaz beterik betiko,
galdu beitez ondatuta;
- ¹⁹ eta ezagutu dagiela, Zeu bakarrik zarala, Jauna,
lur osoan Goren.

(14) Mendebal = vendabal. — Agotz = cascabillo.

(16) Orei = tormenta. — Ekaitz = huracán.

a) **Gorapen-otoitzak (LAUDES I)**1. *Goratu egizue Jainko gure Jauna, auspaztu zaitetze Aren mendi santuan.*

98 (99)

- ¹ Jauna da errege, egin begie dardar atzerriak;
kerubiñen gaiñetik jesarrita dago; ikaratu bedi lurra.
- ² Aundia da Jainkoa Sion'en,
erri guztien gaiñetik garai.
- ³ Goratu begie zure izen aundia ta ikaragarria:
«Santua da Bera».
- ⁴ Indartsu zara errege, eta zuzentasuna maite dozu;
bidezko dana sendotu egin dozu;
zuzentasuna ta eskubidea zaindu egiten dozuz,
Zeuk eragiten dautsazu Jakob'i.
- ⁵ Goratu egizue gure Jainko Jauna,
auspaztu zaitetze Aren oiñazpi-aurrean;
«Santua da Bera».
- ⁶ Moises'ek eta Aaron'ek euren abadeakaz,*
eta Aren izenari dei egiten eutsoenakaz Samuel'ek,
Jaunari egiten eutsen dei,
eta Arek erantzun egiten eban.
- ⁷ Odei-abetik egiten eutsen dei Jainkoak,
entzun ebezan Aren aginduak,
baita Arek emon eutsen legea be.
- ⁸ Zuk, gure Jainko Jaun orrek, erantzun egiten zeutsen,
Jainko parkatzaille zintzakiezan,
baita arein gaiztakerien Jainko zigortzaille be.

(7) Abe = columna.

- ⁹ Goratu egizue gure Jainko Jauna,
auspaztu zaitetze Aren mendi santu aurrean:
«Santua da gure Jainko Jauna».

2. *Askatu nagizu, Jauna, arerioakandik, Zeugan gorde-ten naz-ta.*

142 (143)

- ¹ Entzun, Jauna, nire otoitza;
zintzoa zaran ezkerero, egin jaramon nire eskariari;
zuzena zaran ezkerero, entzun nagizu.
- ² Ez egin dei auzitara zure otsein oni,
errubage dan gizon bizirik zure aurrean ez dago-ta.
- ³ Arerioa atzetik dabilkit eriotza emon nairik,
nire biziari illobira eragiten dautso,
illunpetara baztartzan nau
aspaldian aztuta dagozan ildakoen antzera.
- ⁴ Makaltzen daukat arnasa,
biotza nire barruan gogortuta dago.
- ⁵ Beiñolako egunak dodaz gogoan,
zure egintza guztiak gogoan darabildaz,
zeure esku-lanak ausnartzen dodaz
- ⁶ eta nire besoak Zeugana zabalitzen:
Zeure egarri naz, lur errea lez.
- ⁷ Entzun nagizu arin, Jauna,
ez daukat arnasarik-eta.
Ez egidazu zure arpegia ezkutatu,
illobira jatsiten diranai lez.
- ⁸ Goizean entzun-azo egidazu zure grazia,
Zeugan dot ustea-ta.
Erakutsi egidazu artu bear dodan bidea,
Zeugana jasoten dot nire arima-ta.

- ⁹ Askatu nagizu, Jauna, arerioagandik,
Zeugan gordeten naz-ta.
- ¹⁰ Irakatsi egidazu zure naia beteten,
nire Jainkoa Zeu zara-ta.
Zure arnasa ona da-ta,
berak eroan nagiala lur lauan zear.
- ¹¹ Zeure izenarren, Jauna, bizirik iraun nagizu,
zure biotz-bigunagaitik, atara nagizu larrialditik;
- ¹² zure graziagaitik, ondatu egizuz nire arerioak,
ezereztu egizuz ni inguratzen nabek guztiak,
ni Zeure otsein naz-ta.
3. *Ona izan zara, Jauna, zure erriari buruz, zure erriaren errua parkatu egin dozu.*

84 (85)

- ² Ona izan zara, Jauna, zure erriari buruz,
barriztu egin dozu Jakob'en zoria,
- ³ zure erriaren errua parkatu,
aren pekatu guztiak lurpean sartu,
- ⁴ atzeraka eragin zure asarreak,
zure sumin-garrari eutsi.
- ⁵ Barriztu gagizuz, gure Jainko salbatzaille orek,
gelditu gure kontra dozun asarrea.
- ⁶ Beti egongo ete-zara, ba, asarre?
edo-ta, gizaldiz-gizaldi
luzatuko ete-dozu, ba, zure sumiña?
- ⁷ Ez ete-dauskuzu, ba, bizia biurtuko,
zure erria Zeugaz poztu daiten?
- ⁸ Erakutsi eiguzu, Jauna, zure errukia
eta emon zure osasuna.

- ⁹ Jaunak diñoana entzungo dot:
«Bere erriari eta bere adiskideari
eta biotzez biurtzen diranari
Jaunak bakea iragarten dautse».
- ¹⁰ Onezkerok, ur dauke Aren zintzoak osasuna,
eta aintza geure lurrean bizi izango da;*
- ¹¹ errukia ta zintzotasuna alkarregaz datoz,
zuzentasunak eta bakeak mun egiten dautsoe alkarri;
- ¹² zintzotasuna erneten da lurretik,
eta zerutik zuzentasuna dago begira.
- ¹³ Jaunak euria emongo dausku,
eta lurra bere frutua ekarriko dau.
- ¹⁴ Zuzentasuna ibiliko da Aren aurrean,
osasunak jarraituko dautse Aren lorratzai.

4. *Jaunagaz irabaziko dabe ta goratuko dira Israel'en jatorrikoak.*

Isaias'en bigarren abestia

(Isaias, 45)

- ¹⁵ Egia da: Jainko ezkutua zara Zu,
Israel'en Jainkoa, Salbatzaillea.
- ¹⁶ Guztiak batera lotsaz gorri-gorri eginda gelditzen dira,
lotsatuta doaz jainko-irudi-egileak;
- ¹⁷ bitartean, Jaunak bein betiko ataraten dau onik Israel,
iñoiz be lotsaz gorritu ez daitezkan.
- ¹⁸ Auxe diño Jaunak, zeru-egileak,
— Bera da Jainko —,
Berak eratu, egin eta sendotu eban lurra;
ez eban utsik egoteko egin,
bizidunak bizi zeitezkan baiño:
«Neu naz Jauna ta ez da besterik».

- ¹⁹ Ez neutsun ezkutuan berba egin,
lurralde illunean;
ez neutsen Jakob'en jatorrikoai esan:
«Billatu nagizue utsunean».
Neu naz epaia emoten
eta zuzena dana autortzen dodana.
- ²⁰ Batu, etorri, urreratu zaitzeze batera,
atzerrietan bizi zareenok;
ez dabe bururik zurezko jainko-irudia daroenak
eta ezin onik atara daiken jainkoari
erregutzen dautsoenak.
- ²¹ Autortu egizue, ekarri agerbideak,
erabagi dagiela alkarregaz batera:
nok iragarri eban antxiñatik au?
nok esan eban ordutik ori?
Ez nintzan izan Neu, Jaun au?
— ez da beste Jainkorik Neu ezik —.
- (²²) Neu naz Jainko zuzena ta salbatzaillea,
eta ez da besterik.
- ²² Biurtu zaitzeze nigana onik urten zaitzezen,
lurreko muga-baztarrok,
neu naz Jainko ta ez dago besterik-eta.
- ²³ Neure izenagaitik egiten dot zin,
erabagia urtetzen yat agotik,
atzeraka egiten ez dauan itza:
«Belaun guztiak neure aurrean makurtuko dira,
neugaitik egingo dabe zin miin guztiak»;
- ²⁴ auxe esango dabe: «Jaunak bakarrik
izango dauz zuzentasuna ta al-izatea».
Aregana etorriko dira lotsatuta
Aren kontra berotzen ziranak;

- ²⁵ Jaunagaz irabaziko dabe ta goratuko dira
Israel'en jatorrikoak.

5. *Jerusalen, goratu egizu Jauna.*

147 (147 B)

- ¹² Jerusalem, goratu egizu Jauna;
Sion, goratu egizu zure Jainkoa:
- ¹³ zure ateetako morroilloak indartu
eta zure semeak zeure barruan beindeinkatu dauz-ta;
- ¹⁴ zure mugetan bakea ezarri dau,
urun-mamiñez asetzen zaitu;
- ¹⁵ Berak bialtzen dau bere deia lurrera,
eta Aren itza arin doa;
- ¹⁶ Berak bialtzen dau edurra artulea lez,
zurdaia autsa lez zabaltzen dau;
- ¹⁷ Berak jaurtiten dau izotza ogi-apurren antzera,
eta otzaz urak gogortzen dauz;
- ¹⁸ agindu bat bialtzen dau, eta urtu egiten dira,
bere arnasari eragiten dautso, eta ba-doaz arin;
- ¹⁹ Berak iragarten dautso bere itza Jakob'i,
bere erabagiak eta aginduak Israel'i;
- ²⁰ ez eutsan egin olakorik beste erriri,
ezta arei bere aginduak jakifierazo be.
Aleluia!

*Gure Jainkoaren erruki maitatsuagaitik, goitik jaioten dan
eguzkiak egingo dausku ikustaldi bat.*

Benedictus», 15 orri.

b) **Bigarren Gorapen-otoitzak (LAUDES II)**1. *Biotz damutua ta apala ez dozu baztartzen Zuk.*

50 (51)

Erruki, ene Jainko, 119 orri.

2. *Zure izenagaitik, Jauna, zeure bioz bigunagaitik, bizirik irauñ nagizu.*

142 (143)

Entzun, Jauna, nire otoitza: 193 orri.

3. *Biurtu eiguzu bizitza, Jauna, zure erria zeugaz batera poztu daiten.*

84 (85)

Ona izan zara, Jauna, 194 orri.

4. *Asarrealdian, gomuta zaitetz errukiaz, Jauna.*

Abakuk'en abestia

(Abakuk, 3)

² Entzun dot, Jauna, zure izen ospatsua, ikaratuta itxi nau zure lanak!

Egizu lan ori urterik-urte, erakutsi egizu ori urterik-urte, ekarri gogora errukia asarre-aldian.

³ Jauna Teman'dik dator, Santua Faran-menditik:Aren diztirak zerua estaltzen dau,
lurra Aren gorapenaz beterik dago;⁴ eguna lakoa da Aren dirdiza,
Aren eskuak dizdiz egiten dau al-izatea zaintzen.⁵ Izurria doa Aren aurretik,
Sukarrak jarraitzen dautse Aren lorratai.⁶ Gelditzen danean, lurra dardaraka asten da;
begiratu Arek, eta sakabanatu egiten dauz erriak;
mendi zaarrak ezereztu egiten dira,
muru zaarrak auspaztu egiten dira,
baita bide zaarrak be, Aren aurrean.⁷ Lur-jota dagozala ikusten dodaz Kusan'go txabolak,
astinduta Madian'go estalkiak.⁸ Ibaiei kontra sutzen ete-da ba, Jauna,
zure sumiña, ibaien kontra?
itxasoaren kontra zure asarrea,
zure zaldi ta burdi gaiñean
garaille jesarten zaranean?⁹ Iratzartu ta zeure uztai artzen dozu;
zure gezi-ontzia geziz beterik dago.¹⁰ Ur-biziz brintzitzen dozu lurra,
mendiak biurtu egiten dira Zu ikustean,
ur-bolad(e)a igaroten da,
itxasoa durrunbadaka asten da,
gorantz jasoten dauz bere eskuak.¹¹ Eguzki-illargiak euren bizitokian gelditzen dira,
batetik bestera doazan zure gezi argitan,
zure aztamakillaren oiñaztarri-dizdizetan.¹² Asarre-bitsetan zoaz lurean,
sumiñez zapaltzen dozuz atzerriak.¹³ Zure erria onik ataratera urteten zara,
zure igurtzitakoa onik ataratera.¹⁴ Zapaldu egiten dozu gaiztoen buruzagia,
murritu egiten dozu goitik beera;

(6) Muru = collado.

arein geziakaz eurakaz zulatzen dautsezu
alderik-alde burua arein jarraitzailleai,
gaiso bat ixillean iruntsiteko baizen pozik
ni zatitzeko datozanean.

¹⁵ Zeure zaldiakaz zapaltzen dozu itxasoa,
itxas-zabaleko urai eragiñez.

¹⁶ Ori entzun eta nire erraiak dardaraka asi ziran,
ikaratu egin ziran nire ezpanok ori entzutean;
otz-ikara sartu yatan azurretan zear,
alboraka egiten eben ibiltean nire bernak.
Negarrez nago gu estuzten gaituan
erriari datorkion larrialdi-egunaren aurrean.

¹⁷ Pikondoak aien-begirik ekarri ezarren
eta maastiak fruturik emon ezarren,
oriondoak bere orio-arana aztuarren
eta landak fruturik emon ezarren,
arditegia ardi bagarik geldituarren
eta kortan beirik gelditu ezarren,

¹⁸ ni Jaunagaz poztuko naz,
nire salbatzaille dan Jainkoagan poztuko naz.

¹⁹ Jaun nagusia da nire indarra,
Berak emoten daust basauntz-bernak,
eta Berak ibilli-azoten nau goietan zear.

5. *Sion, goratu egizu zure Jainkoa, bere aginduak Israel'i iragarten dautsaz-ta.*

147 (147 B)

Jerusalen, goratu egizu Jauna: 197 orri.

«Benedictus», 15 orri.

(14) Murrutu = despojar.

(17) Orio-arana = aceituna.

Goizeko otoitza (PRIMA)

Ez urrun gelditu, Jauna, arriskua ur dago-ta; ez dago niretzat laguntzarik.

21 (22)

² Ene Jainko, ene Jainko!,

zegaitik itxi nozu bertan-bera?

³ Ene Jainko!, ni zuri egunez deika,

eta Zuk erantzun ez;

baita gabez be, eta ez daustazu jaramonik egiten:

⁴ Zu jauretxean bizi zaranarren,

Israel'en itxaropen ori!

⁵ Gure gurasoak Zeugan izan eben ustea,

itxaropena izan eben, eta Zuk onik atara zenduzan;

⁶ Zeuri egiten eutsuen dei, eta askatu egiten ziran;

Zeugan izan eben ustea,

eta ez ziran inoiz be lotsatuta gelditu.

⁷ Ni, barriz, ar bat naz, ez gizon,

gizonen lotsagarri, erriaren iguingarri;

⁸ ni ikustean, barre egiten dabe nire lepotik,

ezpanak okertu, buruai eragin:

⁹ «Jaunagana jo eban; Berak askatu dagiala, ba;

onik atara dagiala, ba, ainbeste maite ba'dau».

¹⁰ Zeu zara sabeletik atara nenduzuna,

nire amaren bularren zainpean jarri nenduzun,

¹¹ nire amaren sabeletik

zeure eskuetara izan nintzan eroana,

amaren sabeletik Zeu zara nire Jainko.

- ¹² Ez urrun gelditu, arriskua ur dago-ta;
ez dago nireztat laguntzarik!
- ¹³ Edozenbat idigeik inguratzen nabe,
Basan'go zezenak neure inguruan dabiz;
¹⁴ gosez beterik zabaltzen dabez euren agoak nire kontra,
urratu ta orro egiten daben leoiak.
- ¹⁵ Isurten dan ura lez nago,
erasota daukadaz azurrak;
nire biotza, argizaria lez,
urtu egiten da nire erraietan;
¹⁶ ago-sabaia, teilla bat baizen legor daukat,
eta miiña iztarriari itsasita;
eriotz-autsetan estutzen nozu.
- ¹⁷ Edozenbat txakurrek inguratzen nabe,
gaizto-talde bat neure inguruan dabil;
esku-oiñak lotu egiten daustez,
¹⁸ zenbatu egin daikedaz nire azurrak.
Neuri begira dagoz, burua tente;
¹⁹ euren artean banatzen dabez nire jantziak,
nire soingaiñekoa zotzetara egiten dabe.
- ²⁰ Baiña Zu, Jauna, ez zaitez urrun gelditu;
zatoz arin niri laguntza ekartera, nire indar ori!
- ²¹ Askatu nagizu ezpatatik,
eta nire bizi bakarra ardi-txakurraren erpeetatik;
²² onik atara nagizu leoiaren agotik,
eta gaiso au baso-idien adarretatik.

- ²³ Zeure izen ona iragarriko dautset nire anaiai,
batzar-erdian goratuko zaitut.
- ²⁴ Jaunaren zintzook, goratu egizue A;
Jakob'en jatorrikook, ospatu egizue A,
bildur zakioze, Israel'en jatorrikook.
- ²⁵ Gaisoaren zoritxarra
ez dau bazartu ez iguindu-ta,
ez dautso Bere arpegia estaldu:
Ari laguntza eskatu eutsanean, entzun egin eban.
- ²⁶ Bera da nire gorapena batzar-erdian,
Aren zintzoen artean beteko dodaz nire zin-eskintzak.
- ²⁷ Txiroak, beteta gelditu arte jango dabe;
Jaunaren billa diarduenak, goratu egingo dabe A.
Bizi bedi arein biotza beti-betiko!*
- ²⁸ Ori gogora ekarri ta Jaunagana biurtuko dira
lurreko azken-mugetatik be;
Aren aurrean askatuko dira*
errien sendiak.
- ²⁹ Erregetza Jaunarena da-ta,
Bera da errien agintari.
- ³⁰ Aren aurrean auspaztuko dira illobiko autsak,
Aren aurrean makurtuko dira autsetara jatsiten diranak.
- ³¹ Eta nire arima Arentzat bizi izango da,
nire ondorengoak otseindu egingo dabe,
Jaunari buruz egingo dautsoe berba datorren gizaldiari;
³² jaioko dan erriari Aren zuzentasuna iragarriko dautsoe:
Jaunak egin eban guztia.

Goizerdiko otoitza (TERTIA)

Eragiozu zure indarrari, Jauna, eta zatoz gu salbatzera.

79 (80)

- ² Entzun, Israel'en Artzain,
Jose artaldea lez eroaten dozun orrek;
- ³ kerubiñen gaiñetik jesarten zearan orrek,
egizu dirdira Efrain'en, Benjamin'en
eta Manases'en aurrean.*
- ⁴ Eragiozu zure indarrari ta zatoz gu salbatzera:
biztu gagizuz barriro, Jainko,
egin dagiala dirdira zure arpegiak eta onik atara gaizala.
- ⁵ Gudarozteen Jainko Jauna,
noiz arte izango zara asarre,
zure erriak otoitz egiten diarduala?
- ⁶ Negar-malkoa emon zeutsen janaritzat,
negar-unpuluak eurrez edaritzat;
- ⁷ gure auzokoen eztabaidetan itxi genduzuzan,
gure arerioak barre egiten dabe gure lepotik.
- ⁸ Gudarozteen Jainko Jauna, biztu gagizuz barriro,
egin dagiala dirdira zure arpegiak
eta onik atara gaizala.
- ⁹ Ejipto'tik matsondo bat atara,
jentillak kanpora jaurti, eta barriro landatu zenduan;
- ¹⁰ ari lurra atondu,
eta lurraldea bete arteko zusterak egin ebazan;
- ¹¹ mendiak estaldu egiten ziran aren gerizaz,
baita zedrорik aundienak be aren mats-aienez;

- ¹² bere adarrak itxasoraño zabaldu ebazan,
eta bere muskillak Ibai Aundiraño.*
- ¹³ Zegaitik eratsi dozu bere inguruko orm(e)a
bidez doazanak ustu dagien?
- ¹⁴ basurdak zapaldu dagien
eta piztiak jan dagien?
- ¹⁵ Biurtu zaitetz, Gudarozteen Jainko ori:
begira zerutik, ezarri begiok,
zatoz zure maastia ikustera,
- ¹⁶ zeure eskumak landatu eban matsondoa
eta Zuk indarra emon zeutsana.
- ¹⁷ Ebagi ta erre egin dabe:
ondatu egizuz oi u bataz.
- ¹⁸ Gorde dagiala zure eskuak zure aukeratua,
Zuk indartu zenduan gizona.
- ¹⁹ Ez gara zugandik urrunduko;
emoiguzu bizia, zure izenari dei egin dagiogun.
- ²⁰ Gudarozteen Jainko Jauna, biztu gagizuz barriro,
egin dagiala dirdira zure arpegiak
eta onik atara gaizala.

81 (82)

- ¹ Jainkoa zutik dago zeruko batzarrean,
aingeruz inguratuta diardu auzia egiten;
- ² «Noiz arte ebatziko dozue ozia,
errudunaren alde egiñik?
- ³ Zaindu egizue baztartua ta umezurtza,
zuzen egiozue auzia apalari ta beartsuari,
- ⁴ egin txiroaren eta eskekoaren alde,
errudunaren eskuetatik areik askaturik».
- ⁵ Areik, tentel eta burubageak, illunetan dabiz,
lurreko oiñarriak kili-koloka diarduen artean.

- ⁶ Ona emen nik agertzen dautsuedana:
«Zuek jainko izanarren be,
eta guztiok Gorengoaren seme,
⁷ edozein gizon lez ilgo zaree,
edonor lez jausiko zaree, aundiokiok».
⁸ Jagi zaitetz, Jainko, eta ebatzi egizu lurra,
erri guztien jabe zeu zara-ta.

Egurdiko otoitza (SEXTA)

Bai zorientsu, Jauna, zure etxean bizi diranak!

83 (84)

- ² Zure bizitokiak bai maitagarri,
Gudarozteen Jauna!
³ Arima makalduta daukat
eta Jaunaren aterpeak gura dodaz gartsu,
nire biotza ta aragia
saltoka diardue Jainko biziaganako leiaz.
⁴ Kurloiak be etxea aurkitu dau,
elaiak be bai bere umeak ipinteko apia:
zeure altarak, Gudarozteen Jauna,
nire errege ta Jainko orrenak!
⁵ Bai zorientsu zure etxean bizi diranak,
beti Zeu goratzen diardenak!
⁶ Zorientsuak benetan, euren ibiltaldia gertatzean,
euren indarra Zeugan aurkitzen dabenak!:
⁷ ibar legorrak igarotean,
atseden-toki biurtzen dabez,
goiz-euriak onespenez jantzi bai legiz;

- ⁸ geroago ta adoretuago doaz
Jainkoa Sion'en ikusi arte.
⁹ Entzun nire eskaria, Gudarozteen Jaun orrek,
jarri adi-adi nigana, Jakob'en Jainko ori!
¹⁰ Begira, Jainko, gure Ikurdia,
begira zure Igurtzitakoaren arpegia.*
¹¹ Nire etxean milla egun baiño
zure aterpeetan egun bat obe da,
eta gaiztoakaz bizi baiño
Jainkoaren etxeko atartea naiago dot.
¹² Jauna eguzki ta babeskin da-ta;
Berak emoten dau grazia ta aintza.
Jaunak ez dautsez bere ondasunak ukatzen
errugabe dabizanaí.
¹³ Gudarozteen Jauna, bai zorientsu
ustea Zeugan dauan gizona!

86 (87)

- ² Berak ezarri dautsaz oiñarriak mendi santuan *uriari*:
eta Jaunak Jakob'en bizitoki guztiak baiño
naiago dauz Sion'go atek.
³ Zutaz diñoena bai ospatsu,
Jainkoaren uri!
⁴ «Ejipto ta Babilonia
neure zintzoen artean zenbatuko dodaz;
filistarrak, tiroarrak eta etiopiarrak
antxe jαιο dira».
⁵ Sion'i buruz auxe esango da: «Bakotxean bad

antxe jaio dira guztiak:
Gorengoak Berak sortu dau».

⁶ «Au antxe jaio da»,

idatziko dau Jaunak errien liburuan.*

⁷ Eta, «Nire iturri guztiak zeugan dagoz»,
abestuko dabe dantzan diarduen artean.

Bezerdiko otoiiza (NONA)

Errukia ta zuzentasuna doaz zure aurrean, Jauna.

88 (89)

- ² Beti abestuko dodaz Jaunaren errukiak,
gizaldiz-gizaldi zeure zintzotasuna iragarriko dot.
- ³ Auxe esan neban-eta: «Zure errukia beti-betiko etxea da,
zerua baiño geiago sendotu dozu zure zintzotasuna».
- ⁴ Nire aukeratuagaz alkartasuna egin neban,
Dabid nire otseñari zin au egiñik:
- ⁵ «Azi bat sortuko dautsut betiko,
gizaldi guztietarako ezarriko dot zure aulkia».
- ⁶ Zeruak zeure mirariak iragarten dauz, Jauna,
eta zeure zintzotasuna aingeruen batzarrean.
- ⁷ Nor da, odeien gaiñetik, Jainkoagaz bardintzekorik?
Nor jaungoikozko izakien artean Jauna lakorik?
- ⁸ Bildurgarria da Jainkoa aingeruen batzarrean,
aundi ta ikaragarria da Aren inguruko guztientzat.
- ⁹ Gudarozteen Jauna, nor Zu lakorik?
Indarrak eta zintzotasunak inguratzen zaitue.
- ¹⁰ Zeure menpean dago itxasoaren arrokeria,
Zeuk baretzen dozuz olatu arrotuak;

- ¹¹ Zeuk zulatu ta zatitu zenduan Rahab,*
zeure beso indartsuak birrindu eban arerioa;
- ¹² zeurea da zerua, zeurea lurra,
Zeuk oiñarritu zenduan lurra
ta beronek artzen dauan guztia;
- ¹³ Zeuk egin dozuz Iparra ta Egoaldea,
Tabor'ek eta Ermon'ek zure izena
deadarka iragarten diardue.
- ¹⁴ Beso altsua daukazu;
indartsua dozu ezkerra, eta eskum(e)a goi.
- ¹⁵ Zuzentasunak eta bidezko danak
eusten dautsoe zure aulkiari.
Errukia ta Zintzotasuna doaz zure aurrean.
- ¹⁶ Bai zoriontsu, Zu goratzen dakian erri!:
zeure arpegiaren argitan ibiliko da, Jauna;
- ¹⁷ zeure izenaz poztuten dira egunero,
zeure zuzentasunaz arrotzen dira.
- ¹⁸ Aren dedu ta indarra Zeu zara-ta,
eta zeure laguntzaz, gora jasoten dozu gure indarra.
- ¹⁹ Gure babeskiña Jauna da-ta,
gure erregea, barriz, Israel'en Santua.
- ²⁰ Egun baten auxe egin zeutsen berba zure adiskideai:
«Adoretzu bati ezarri dautsat koroia,
gudari bat jaso dot erriaren gaiñera:
- ²¹ Dabid nire otseña aurkitu dot
eta orio santuz igurtzi dot;
- ²² nire eskua beti aregaz egon daiten
eta nire besoak adoretu dagian;
- ²³ arerioak ez dautso iruzurrik egingo,
gaiztoak be ez dabe beeratuko;

- ²⁴ aren aurrean aren arerioak ezereztu
eta ari gorroto dautsenak zauritu egingo dodaz.
- ²⁵ Nire zintzotasunak eta errukiak lagun egingo dautsoe,
aundi egingo da nire izenaz aren indarra;
- ²⁶ aren ezkerra itxasoraiño zabalduko dot,
eta aren eskuma Ibai Aundiraiño.
- ²⁷ «Zeu zara nire aita», egingo daust dei,
«nire Jainko, nire Arkaitz salbatzaillea»;
- ²⁸ eta nik len-semetzat jarriko dot,
lurreko erregeen artean goren.
- ²⁹ Neure laguntza gordeko dautsat beti,
eta zintzo iraungo dau aregaz egin neban alkartasunak;
- ³⁰ ondorengoak emongo dautsadaz beti,
baita zerua lako aulki iraunkorra be.
- ³¹ Aren semeak nire legea bertan-bera izten ba'dabe,
naiz neure aginduai jarraitu ez,
- ³² nire arauak zapaltzen ba'dabez,
naiz nire erabagiak bete ez,
- ³³ zigorrez joko dodaz arein pekatuak
eta zardaiaz arein erruak;
- ³⁴ baiña, ez dautset nire laguntasuna kenduko,
ezta nire zintzotasuna ukatuko be;
- ³⁵ ez dot nire alkartasuna ausiko,
ezta nire agintariak aldatuko be.
- ³⁶ Bein egin neban zin nire santutasunarren:
ez neutsala Dabid'i nire itza jango;
- ³⁷ aren ondorengoak betiko izango dira
eta aren aulkia eguzkia lez nire aurrean,
- ³⁸ beti irauten dauan illargia lez:
aren errege-aulkia zerua baiño sendoagoa izango da».

- ³⁹ Baiña Zuk, zure Aukeratuaz biziro asarratuta,
ezetsi ta baztartu egin dozu;
- ⁴⁰ zure otseiñagandiko alkartasuna ausi
ta aren koroia lurrean gerendu dozu;
- ⁴¹ aren uri-ormak eratsi
eta aren gazteluai lurra jo eragin dautsezu;
- ⁴² bidez doazanak lapurretan egiten dabe an,
eta auzokoai barregarri egin yake;
- ⁴³ zure arerioen eskumari eutsi
eta aren kontra dagozanai emon dautsezu garaipena;
- ⁴⁴ ari, ostera, moztu egin dautsazu ezpata
eta burrukaldian ez dozu adoretu;
- ⁴⁵ aren errege-makilla ausi egin dozu
eta aren aulkia cratsi;
- ⁴⁶ aren gaztaroko egunak laburtu egin dozuz
eta lotsakizunez bete.
- ⁴⁷ Noiz arte egongo zara, Jauna, ezkutuan,
eta zure asarrea sua lez gar baten?
- ⁴⁸ Izan gogoan, Jauna, nire bitzta dan laburra,
eta Zuk egindako gizakiak diran iragorkorrek.
- ⁴⁹ Nor bizi izango da eriotza ikusi bagarik?
Nok kendu bere bizia lurpeko erpearri?
- ⁵⁰ Nun dago, Jauna, zure antxiñako errukia?,
zintzo zaranez Dabid'i zin egin zeutsana?
- ⁵¹ Gogoratu, Jauna, zure morroiai egindako iraiña:
atzerriakandik jaso bear dodazan nekeak,
- ⁵² zure arerioak egiten daben irainkera, Jauna,
zure Igurtzitakoaren lorratzai egiten dautseen irainkera.
Bedeinkatua Jauna beti: amen, amen.

Arrats-otoitza (BEZPERAK)

1. Zeuk aztertzen eta ezagutzen nozu, Jauna.

138 (139)

- ¹ Zeuk aztertzen eta ezagutzen nozu, Jauna:
² ba-dakizu noiz jesarten eta zutuntzen nazan,
 urrundik ulertzen dozuz nire bururakizunak;
³ ezagutzen dozuz nire bidea ta atsedena,
 nire bide guztiak ezagunak dozuz;
⁴ nire itza miññera eldu baiño len
 ba-dakizu Zuk, Jauna.
⁵ Atze ta aurre estutzen nozu,
 zeure eskuaz estaltzen nozu.
⁶ Orrelako jakintza arrigarri yat,
 garaitsu da, eta ezin dot buruz artu.
⁷ Nora joango naz zure asarretik urrun?
 nora iges egin zure begirakunetik?
⁸ Zerura igoten ba'naz, antxe zagoz Zu;
 lurpean etzuten ba'naz, antxe aurkitzen zaitut;
⁹ egusentiaren ertzeraiño egaz egiten ba'dot,
 bizi izatera itxas-ertzeraiño joaten ba'naz,
¹⁰ antxe artuko nau zure ezkerrek,
 antxe oratuko daust zure eskumak.
¹¹ «Illunak, beiñepein, estaldu nagiala,
 nire inguruan argia gau biurtu daitela» esaten ba'dot,
 illuna be ez da zuretzat illun,
 eta gaba eguna baiizen argitsu da.

2. Igsugarriak dira zure lanak; nire arima-barrua be eza-gutu egiten dozu.

138 (139)

- ¹³ Zeuk egin dozuz nire erraiak,
 Zeuk eio nozu amaren sabelean.
¹⁴ Eskerrak emoten dautsudaz,
 miragarriro aukeratu nozu-ta,
 zure egiñak miragarriak dira-ta;
¹⁵ nire arima-barrua be ezagutu egiten zenduan,
 nire azurrak ez yatzuzan ezkutuak.
 Ezkutuan eratzen nintzala
 eta lur-barruan eiotzen,
¹⁶ ikusten ebezan zure begiak nire egitadak,
 guztiak idazten ziran zure liburuan;
 zenbatuta egozan nire egunak,
 lenengoa eldu baiño len.
¹⁷ Zure asmoak bai bardinbageak niretzat,
 ene Jainko, areik guztiak bai sorta aundia!;
¹⁸ areik zenbatzen asten ba'naz, area baiño geiago dira;
 azkenera elduta be, oraindiño Zeu gelditzen zaiataz.
¹⁹ Ene Jainko, ilgo al dozu gaitoa,
 urrunduko al dira nigandik iltzailleak,
²⁰ Zutaz maltzur berba egiten dabenak,
 eta zure kontra alperrik jagiten diranak!
²¹ Ez dautset gorrotorik izango, ba,
 Zuri gorroto dautsuenai?
 ez dodaz iguinduko, ba, kontra jagiten yatzuzanak?
²² Ezin-esanalako gorrotoa dautset,
 areriotzat daukadaz.
²³ Aztertu nagizu, Jauna, eta ezagutu egizu nire biotza,
 aztertu nagizu ta ezagutu egizuz nire asmoak;

²⁴ ikusi, nire bidea okertzen dan;
eroan nagizu betiko bidetik.

3. *Ez nagizu bertan-beera itxi, Jauna, nire salbatzaille indartsu!*

139 (140)

² Atara nagizu, Jauna, gaiztoagandik,
gorde nagizu gizon odol-beroagandik:

³ biotzean dongakeriak asmatzen
eta egun osoan eztabaidak sortzen dabez-ta;

⁴ euren miiñak sugeak lez zorrozten dabez,
ezpanetan larrasuge-edena dabela.

⁵ Zaindu nagizu, Jauna, esku gaiztotik,
gorde nagizu gizon odol-beroakandik:

bidean jauspideak gertatzen daustez-ta.

⁶ Arroak jauspideak jarten daustez ezkutuan;
gaiztoak sarea zabaltzen dauste,
eta bidean lakioak ipinten daustez.

⁷ Nik, barriz, auxe dirautsat Jaunari:
«Zeu zara nire Jainkoa»;

entzun, Jauna, nire laguntza-deadarrak;

⁸ Jainko Jaun, nire salbatzaille indartsu,
burruka-egunean nire burua estaltzen dozun or!

⁹ Ez itxi gaiztoari bere asmoak beteten, Jauna,
ez emon azken onik aren asmoai:

¹⁰ ez begie bururik jaso ni inguratzen nabena,
estaldu dagizala euren ezpanen maltzurkeriak;

¹¹ txingar iziotuak gaiñera jausi dakiezala,
zuloetan jausi daitezala ta ezin zutundu daitezala.

¹² Miin-tzarrekorik ez daitela lurrean sendotu,
odol-berokoa zoritxarrak artu dagiala.

¹³ Ba-dakit nik Jaunak saminduari zuzenbidea egiten dau-
eta beartsuaren auzia zaintzen dauana. [tsana

¹⁴ Zintzoak goratuko dabe zure izena,
zuzenak zeure aurrean bizi izango dira.

4. *Deika nagokizu, Jauna; entzun nire abotsa.*

140 (141)

¹ Deika nagokizu, Jauna, zatorkidaz arin,
entzun nire abotsa dei egiten dautsudanean.

² Igo bedi nire otoitza intzentsua lez zure aurrean,
nire esku-jasotea arratsaldeko opari lez.

³ Ipiñi egizu, Jauna, zaintzaille bat nire agoan,
jagole bat nire ezpanetako atean;

⁴ ez itxi makurtzen nire biotza txarkerira,
dongakeriak eta gaiztakeriak egitera;

ezta gizon gaiztoakaz batera
janaldi ederrik egiten be.

⁵ Jo nagiala zintzoak, onak asarre egin daistala,
baiña gaiztoaren miritzak
ez dagiala nire burua usaindu;

nik arein zoritxarretan jarraitu egingo dautsat otoitzari.

⁶ Arein buruzagiak etxetik beera jausi ziran,
nire berba maitagarriak entzun ebezanarren;

⁷ errotarria lez, lurrean zear ausita,
gure azurrak illobi-agoan dagoz sakabanatuta.

⁸ Zeugana biurtuta dagoz, Jauna, nire begiok;
Zeugana egiten dot iges, ez nagizu bertan-bera itxi;

⁹ gorde nagizu ezarri dausten lakiotik,
gaizkiñen jauspidetik.

¹⁰ Jausi beitez dongak euren sareetan,
nik onik iges egiten dodan bitartean.

5. *Atara nagizu giltzapetik, Jauna, eta eskerrak emongo dautsadaz zure izenari.*

141 (142)

- ² Deadarka baten nago Jaunari,
deadarka baten eskatzen dautsat Jaunari;
³ Aren aurrean isurten dodaz nire ardurak,
Aren aurrean zabaltzen dot nire samiña,
⁴ arnasa gutxiagotzen yatan artean.
Baiña, ba-dakizuz Zuk nire bidezidorrak,
eta ni nabillen bidean
jauspide bat gorde daustena.
⁵ Begira eskumatarara, ikusi egizu:*
ez daust iñok jaramonik egiten;
ez daukat iñora iges egiterik,
iñok ez dauko nire biziaren ardurarrik.
⁶ Zeuri egiten dautsut deadar, Jauna,
eta esaten: «Zeu zara nire gordeleku
ta arloa bizidunen lurraldean».
⁷ Entzun nire deadarrak,
etenda nago-ta;
askatu nagizu nire erasotzailleakandik,
ni baiño gogorrakoak dira-ta;
⁸ atara nagizu giltzapetik,
eta eskerrak emongo dautsadaz zure izenari:
zintzoak inguratuko nabe,
zure ederra biurtu daistazunean.

Jaunak altsua aulkitik bota ta apalak jaso egiten dauz.
«Magnificat», 37 orri.

||luntzeko otoitza (AD COMPLETORIUM)

Nire abotza Jaunari jasoten dautsat deadarka; Jainkoak ez dau bere ontasuna aztuten.

76 (77)

- ² Nire abotsa Jainkoari jasoten dautsat deadarka,
entzun daistan jasoten dautsat nire abotsa Jainkoari.
³ Nire larrialdian Zeu billatu zaitut, Jauna,
gabez eten-bagarik zabaltzen dodaz eskuak,
eta nire arimak ez dau pozbiderik nai.
⁴ Jainkoa gogora ekartean, antzi egiten dot,
eta arnasa galtzen yat ausnartzean.
⁵ Nire begietako betazalari eutsi egiten dautsezu,
eta dardarak ez daust berbarik egiten izten.
⁶ Antxiñako egunak dakadaz gogora,
gogoratzen dodaz lengo urteak;
⁷ gabez neure barruan aurnartzen dot,
eta gogoan erabilliez,
itaun au egiten dautsat nire buruari:
⁸ Baztartu egin ete-nau, ba, Jaunak betiko
eta ez ete-nau aurrerantzean lagunduko?
⁹ errukia agortu egin ete-yako, ba, onezkero?
amaitu egin ete-da bere agintzaria betiko?
¹⁰ Aztu egin ete-dau, ba, Jainkoak bere ontasuna,
edo-ta asarreak isten ete-dautsaz erraiak?

- ¹ Eta, «au nire miña! — diñot nik — ;
aldatu egin da Gorengoaren eskuma!».
- ² Gogoan dodaz Jaunak egin ebazanak,
bai, gogoan dodaz zure antxiñako mirariak,
³ ausnartzen dodaz zure egintza guztiak
eta gogoan darabildaz zure arrigarriak.
- ⁴ Santuak dira, ene Jainko, zure bideak;
zein jainko da gure Jainkoa lako aundirik?
- ⁵ Zuk, Jainko orrek, mirariak egiñez
erakutsi zeutsen erriai zure indarra;
⁶ zeure besoaz askatu zenduan zure erria,
Jakob'en eta Jose'ren semeak.
- ⁷ Itxasoak ikusi egin zenduzan, Jainko,
itxasoak Zu ikusi ta dardaraka asi zan,
olatuak ikaratu egin ziran.
- ⁸ Odeiak euren ura eurrez isurten ehen,
trumoi-laiñoak danbarradaka ziarduen,
zure geziak zearka-mearka ziarduen;
⁹ zure trumoiaren danbarrada inguruan ebillen,
tximistak lurra argitzen,
lurrak dar-dar egin eban ikaratuta;
¹⁰ uretan zear egin zenduan zure bidea,
ur ugarietan bide-zidor bat,
eta ez zan zure lorratzik geratzen;
- ¹¹ zure erria artaldea lez eroaten zenduan artean,
Moises'en eta Aaron'en eskuz.


85 (86)

- ¹ Makurtu, Jauna, zure belarria, entzun nagizu,
laguntza bagarik nagoan txiroa naz-ta;

- ² gorde egizu nire bizia, zure zintzo bat naz-ta;
onik atara egizu Zeugan itxaroten dauan morroi au;
- ³ Zeu zara nire Jainko, erruki zakidaz, Jauna,
egun osoan Zeuri deika diardut-eta;
- ⁴ poztu egizu zure morroi onen arima,
nire arima Zeugana jasoten dot-eta;
- ⁵ izan be, Zu, Jauna, ona ta biotz-biguna zara,
Zuri deitzen dautsuenentzat errukiz aberatsa.
- ⁶ Entzun, Jauna, nire otoitza,
egon adi-adi nire eskariaren abotsera;
- ⁷ arrisku-agunean deika nagokizu,
Zuk entzun egiten nozu-ta.
- ⁸ Zure antzekorik ez da, Jauna, jainkoen artean,
ezta zureak lako egintzarik be.
- ⁹ Erri guztiak etorriko dira, Jauna,
zure aurrean auspaztera,
eta zeure izena goratuko dabe.
- ¹⁰ «Aundia zara Zu, eta arrigarriak egiten dozuz,
Zeu zara Jainko bakarra».
- ¹¹ Erakutsi egidazu, Jauna, zure bidea,
zure egiari jarraitu dagitsadan;
lotu nire biotza osorik
zure izenaren bildurrari.
- ¹² Biotz-biotzez goratuko zaitut, ene Jainko,
beti ospatuko dot zure izena,
- ¹³ niganako zure erruki aundiagaitik,
lurpe sakonetik onik atara nenduzun-eta.
- ¹⁴ Arroputz batzuk jagiten dira nire kontra, ene Jainko,
lotsagabe-talde batek neure biziaren kontra diardu,
begien aurrean Zu ez zaukoezala.
- ¹⁵ Zuk, ostera, Jauna, Jainko biotz-bigun eta errukior orrek,
asarrerako geldia,
eta errukiz eta zintzotasunez aberats orrek,

- ¹⁶ begiratu nagizu, erruki zakidaz,
 emon egiozu indarra zure morroi oni,
 onik atara egizu zure mirabearen seme au.
- ¹⁷ Emoidazu ezaugarri egoki bat,
 nire arerioak ori ikusi ta lotsaz bete daitezcan,
 Zeuk, Jaun orrek, laguntzen eta poztuten nozu-ta.

Onik atara gagizuz, Jauna, (domeketan lez): 41 orri.



ZAPATUETAN

Goizaldeko otoitzak (MAITINAK)

1. Gure Jainko Jaunak beti dau gogoan bere alkartasuna.

104 (105)

- ¹ Emon egiozuez eskerrak Jaunari, egin dei Aren izenari, jakifierazo erriai Aren egintzak;
- ² abestu egiozue ereskin-otsez, zabaldu egizuez Aren mirariak;
- ³ arrotu zaiteze Aren izen santuaz, poztu daitezela Jaunaren billa dabizanak.
- ⁴ Jo Jaunagana ta Aren indarrera, ibili beti Aren arpegi-billa.
- ⁵ Erabili gogoan Arek egin ebazan mirariak, Aren arrigarriak, Aren agoko erabagiak,
- ⁶ Aren morroi Abraham'en jatorrikoak, Aren aukeratu Jakob'en semeak!
- ⁷ Jauna da gure Jainkoa, Bera da lur guztian nagusi.
- ⁸ Gogoan dau beti bere alkartasuna, milla gizaldirentzat emon eban itza;

- ⁹ Abraham'egaz egin eban alkartasuna,
Isaak'i egin eutsan ziña,
¹⁰ Jakob'i lege sendotzat
eta Israel'i betiko alkartasuntzat jarri eutsana:
¹¹ «Zeuri emongo dautsut Kanaan-lurraldea,
zuen soloko arlotzat».
¹² Lurralde aretan gutxi,
banakak eta arrotz ziranean,
¹³ erririk-erri
eta erreñu batetik bestera ebizanean,
¹⁴ ez eutsan iñori itxi areik zapaltzen,
arekaitik errege batzuk zigortu egin ebazan:
¹⁵ «Ez ikutu nire igurtzitakoak,
ez kalterik egin nire profetai».

2. *Jainkoak bere erria zearo ugaritu eban, aren arerioak
baiño gogorragoa egin eban.*

104 (105)

- ¹⁶ Gosea bialdu eban lurralde aretara:
ogi bagarik itxi ebazan;
¹⁷ aurretik gizon bat bialdu izan eban,
Jose, morroitzat saldua,
¹⁸ oiñak burdin-estunez lotu eutsoezan,
sam(e)a txirindolan sartu eutsoen,
¹⁹ arek iragarritakoa bete zan arte,
eta Jainkoaren itzak egin eban autor aren alde.
²⁰ Askatu egiela agindu eban erregeak,
errien Jaunak atara egin eban giltzapetik,
²¹ bere etxeko ethezain izentatu eban,
bere ondasun guztien buru,

- ²² aundikiak bere erara irakaspena emon
eta zaarrai jakituria irakatsi egitsen.
²³ Orduan, Israel Ejipto'n sartu zan,
Jakob Kam'en lurra artu eban ostatutzat.
²⁴ Jainkoak bere erria zearo ugaritu eban,
aren arerioak baiño gogorragoa egin eban.
²⁵ Onei biotza aldatu eutsoen
Bere erriari gorroto izateko
eta Bere morroiak maltzurkeriz erabilli egizan.
²⁶ Baiña, Bere morroi Moises bialdu eban,
eta Aaron bere aukeratua:
²⁷ oneik arein kontra mirariak egin ebezan,
ikusgarriak Kam'en lurrean.

3. *Jainkoak bere erria pozetan atara eban, bere auke-
ratuak irrintzika baten.*

104 (105)

- ²⁸ Illuna bialdu, eta illundu egin zan;
baiña, areik Aren itzai gogor egin eutseen;
²⁹ arein urak odol biurtu ebazan,
eta arein arraiñak il egin ebazan;
³⁰ arein lurra ugarioz bete zan,
baita erregearen lo-gela be.
³¹ Aren aginduz ezparak eta eltxoak
zabaldu ziran lurralde guztian zear;
³² euri ordez txingorra emon eutsen,
su-garra arein lurrean;
³³ eta pikondo ta maastiak zauritu egin ebazan,
eta lurraldeko zugatzak ebagi;
³⁴ Aren aginduz, matxingorriak etorri ziran,
matxin-saltariak ugari:

(31) Ezpara = tábano.


- ³⁵ oneik, arein lurreko bedarra marraskatu egiten eben eta arein landetako frutuak iruntsi egin ebezan.
- ³⁶ Lurraldeko seme-nagusiak eriotzaz zigortu ebazan, arein indarren asikiñak.
- ³⁷ Bere erria urrez eta zidarrez beterik atara eban, eta arein odolekoen artean ez zan inor geisorik jausten;
- ³⁸ areik urtetea, ejiptarrak poztu egin ziran, bildur-ikarak artu izan ebazan-eta.
- ³⁹ Odei bat zabaldu eban, areik estaltzeko, eta sua, gabez arei argi egiteko.
- ⁴⁰ Areik eskatuta, galeperrak bialdu ebazan, zeruko ogiz asetu ebazan;
- ⁴¹ atxa zulatu eban eta urak urten ziran, basamortuan zear ibaika yoiazala.
- ⁴² Bere morroi Abraham'i emon izan eutsan berba santua gogoraten eban-eta:
- ⁴³ Bere erria pozetan atara eban, Bere aukeratuak irrintzika baten.
- ⁴⁴ Jentillen lurak izentatu eutsezan, eta atzerrien ondasunen jabe egin ziran;
- ⁴⁵ Aren aginduak gorde egiezan, eta Aren legea bete egien.
Aleluia!

4. Bere izenaren maitasunagaitik, Jaunak onik atara ebazan.

105 (106)

¹ Aleluia!

Emon egiozuez eskerrak Jaunari, ona da-ta,
Aren errukia beti-betikoa da-ta.

- ² Nok azaldu al izango dauz Jainkoaren egintza arrigarriak? nok iragarri Aren gorapen guztia?
- ³ Bai zoriontsu zuzenbidea bete ta bidezko dana egiten dabenak!
- ⁴ Izan nagizu gogoan zure erriaganako maitasunarren, zatoz ni ikustera zure osasunaz:
- ⁵ zure aukeratuen poza ikusi dagidan, zure erriaren pozaz poztu naiten, eta zeure soloaz arrotu naiten.
- ⁶ Geure gurasoen antzera egin dogu pekatu, gaiztakeriak eta dongakeriak egin doguz.
- ⁷ Gure gurasoak Ejipto'n ez ebezan zure miragarriak ulertu; ez eben gogoan izan zure erruki ugaria, Itxaso Gorrian Gorengoaren kontra jagi ziran.
- ⁸ Bere izenaren maitasunagaitik, ostera,  Jainkoak onik atara ebazan, Bere al-izatea agertzeko.
- ⁹ Itxas Gorriari oiur egin eutsan, eta *itxasoa* legortu egin zan; itxas-lezan zear legorreen lez eroan ebazan;
- ¹⁰ onik atara ebazan kontrakoaren eskutik, askatu egin ebazan arerioaren ikubilletik;
- ¹¹ erasotzailleak urak estaldu ebazan, eta bat bera be ez zan bizirik gelditu.
- ¹² Orduan, sinistu egin ebezan Aren berbak, eta Aren gorapena abestu.
- ¹³ Laster aztu ebezan Aren egintzak, eta ez eben Aren asmoetan usterik izan:
- ¹⁴ basamortuan sabelkeriz erreten ziran eta bakartadean Jainkoa zirikatu egin eben;

- ¹⁵ eskatzen ebena emon eutsen,
 baiña, arein sabelkeriagaitik,
 gora-beerakoa bialdu eutsen.
- ¹⁶ Txabolategian Moises'i ikusi-eziña izan eutsoen,
 baita Aaron'i be, Jaunaren santuari:
- ¹⁷ lurra edegi zan eta Datan iruntsi eban,
 Abiron eta onen lagunak barruan artuez itxi zan;
- ¹⁸ arein taldea suak kiskaldu eban,
 garrak erre ebazan gaiztoak.

5. *Aztu egin eben salbatzaille zan Jainkoa.*

105 (106)

- ¹⁹ Horeb'en txal bat egin eben,
 burdin-urtuaz egindako irudi bat gurtu eben;
- ²⁰ euren Aintza, bedarra jaten dauan
 zezenaren irudiagaitik aldatu eben;
- ²¹ aztu egin eben euren salbatzaille zan Jainkoa,
 Ejipto'n miragarriak egin izan ebazana,
- ²² Kam-lurraldean arrigarriak,
 Itxaso Gorri ondoan egintza ikaragarriak.
- ²³ Areik ondatzeko be ba-egoala esan eban Jainkoak;
 baiña, Moises, Aren aukeratuá,
 jarri zan bitarteko Aren aurrean,
 Aren asarrea ondamenditik aldentzeko.
- ²⁴ Lur opagarria ezetsi egin eben,
 ez eben sinistu Aren itza;
- ²⁵ txaboletan mormoxetan ziarduen,
 ez eben entzun Jaunaren abotsa.
- ²⁶ Arek eskua jaso ta zin egin eban:
 il egingo ebazala basamortuan,

(15) Gora-beerakoa = cólico.

- ²⁷ arein ondorengoak atzerrien artean sakabanatuko
 eta lurraldeetan zear uxatuko ebazala.
- ²⁸ Areik Baal Fegor'egaz batu ziran,
 jainko illai eskiñitako opariak jan ebezan;
- ²⁹ asarratu egin eben Jainkoa euren zantarkeriz,
 eta gaitz batek artu ebazan;
- ³⁰ baiña, Fines jagi ta zuzenbidea egin eban,
 eta gatxa atertu egin zan;
- ³¹ ori, bere aintzarako ezarri yako
 gizaldiz-gizaldi beti.
- ³² Meriba'ko ur-ondoan asarrerazo eben barriro Jauna;
 Moises'ek nekeak eroan bear izan ebazan, arein erruz:
- ³³ arima mingostu egin izan eutsoen,
 eta aren ezpanak berba zoroak esan ebazan.

6. *Ikusi eban Jaunak arein estualdia, eta entzun ebazan
 arein deadarrak.*

105 (106)

- ³⁴ Ez ebezan erriak ondatu,
 Jainkoak esan izan eutsenez;
 jentillen senitarteko egin ziran,
 arein oiturak ikasi ebezan;
- ³⁵ arein jainko-irudiak gurtu ebezan
 eta arein sarectan jausi ziran;
- ³⁶ euren seme-alabak oparizat
 txerrenai emon eutsezan,
 odol errubagea isuri eben,
 eta lurra gerendu, odolez bustirik;
- ³⁷ euren egitadakaz loitu
 eta euren gaiztakeriakaz zikindu ziran.

- ⁴⁰ Jaunaren asarrea bere erriaren kontra iziotu zan,
eta bere soloa iguindu egin eban;
- ⁴¹ jentillen eskuetan itxi ebazan,
eta euren arerioen azpian gelditu ziran;
- ⁴² arerioak gogor erabillezan,
arein azpian makurtuta gelditu ziran.
- ⁴³ Amaikatxo aldiz askatu ebazan:
areik, ostera, euren jardukeran buru-gogor,
euren erruakaitik galtzen ziran.
- ⁴⁴ Baiña, ikusi eban Arek arein estualdia
eta entzun ebazan arein deadarrak;
- ⁴⁵ arekaz egin eban bere alkartasuna gogoraturik,
erruki aundiaz garbatu zan;
arekana biurrerazo eban
azpiratzaillen errukia.
- ⁴⁶ Onik atara gazizuz, gure Jainko Jaun orrek,
batu gazizuz jentilletarik;
- ⁴⁷ eskerrak emongo dautsaguz zure izen santuari,
eta Zeu goratzea izango da gure aintza.
- ⁴⁸ Bedeinkatua Israel'go Jainko Jauna,
betidanik eta beti.
Eta erri osoak esan begi:
Amen, aleluia!

7. *Jaunari egin eutsoen dei, eta larrialditik atara egin ebazan.*

106 (107)

- ¹ Emon egiozuez eskerrak Jaunari, ona da-ta,
Aren errukia betikoa da-ta.
- ² Autortu dagiela Jaunak askatuak,
arerioaren eskutik askatu ebazanak,

- ³ errialde guztietatik batu ebazanak:
iparraldetik eta egoaldetik, sortzaldetik eta sartzaldetik.
- ⁴ Arantz-onantz ebizan basamortuko bakartadean,
ez eben giza-urirako biderik aurkitzen;
- ⁵ gose ta egarri ziran,
arein bizia geroago ta makalago;
- ⁶ baiña, euren estualdian Jaunari egin eutsoen dei,
eta larrialditik atara egin ebazan.
- ⁷ Bide zuzenetik eroan ebazan,
giza-urira eldu zeitezan.
- ⁸ Eskerrak emon begioez Jaunari, Beronen errukiagaitik,
gizakien alde egiten dauzan mirariakaitik.
- ⁹ Egarrri ziranak asetu
eta gose ziranak ondasunez bete ebazan.
- ¹⁰ Illunetan eta illunpetan egozanak,
burdiñaz eta zoritxarrez lotuta;
- ¹¹ aginduen kontra jagi ziralako,
Gorengoaren erabagia ezetsirik.
- ¹² Arein biotza lanakaz beeratu eban,
jausi egiten ziran
eta iñok euz eutsen laguntzarik emoten.
- ¹³ Baiña, euren estualdian Jaunari egin eutsoen dei,
eta larrialditik atara egin ebazan.
- ¹⁴ Illunpetatik atara
eta arein lokarriak kendu egin ebazan.
- ¹⁵ Eskerrak emon begioez Jaunari, Beronen errukiagaitik,
gizakien alde egiten dauzan mirariakaitik.
- ¹⁶ Burdiñorizko atepak apurtu
eta burdiñazko morroilloak ausi egin ebazan.

8. *Ikusi ebezan Jainkoaren lanak eta Aren miragarriak.*

106 (107)

- ¹⁷ Euren gaiztakeriakaitik saminduta egozan;
¹⁸ janari guztiak iguindu egiten ebezan,
 eta eriotz-ateak ikutzeko zorian egozan.
¹⁹ Baiña, euren estualdian Jaunari egin eutsoen dei,
 eta larrialditik atara egin ebazan.
²⁰ Bere itza bialdu eutsen, osatu egizan,
 ondamentitik atara egizan.
²¹ Eskerrak emon begioez Jaunari, Beronen errukiagaitik,
 gizakien alde egiten dauzan mirariakaitik.
²² Eskiñi begioez gorapen-opariak
 eta azaldu begiez gartsu Aren egintzak.
²³ Ontzietan itxasoan zear sartu ziran,
 ur aundietan zear merkataritzan.
²⁴ Ikusi ebezan Jainkoaren lanak,
 Aren miragarriak itxaso zabalean.
²⁵ Arek berba egin eta ekaitz-aizea sortu eban,
 olatuak gora jasoez:
²⁶ zeruraino igoten ziran, sakonera jatsiten,
 urdailla zorabioaz naastuta,
²⁷ lurean zear, mozkorren antzera alboraka egiten eban,
 eta arein trebetasunak uts egiten eutsen.
²⁸ Baiña, euren estualdian Jaunari egin eutsoen dei,
 eta larrialditik atara egin ebazan.
²⁹ Ekatxa aize leunez baretu eban,
 eta itxasoko olatuak mututu egin ziran.
³⁰ Barealdi aretzaz poztu egin ziran,
 eta opa izan eban kaira eroan ebazan.
³¹ Eskerrak emon begioez Jaunari, Beronen errukiagaitik,
 gizakien alde egiten dauzan mirariakaitik.

- ³² Ospatu begie erriaren batzarrean,
 goratu begie zaarren batzarrean.

9. *Ikusten dabe ori zuzenak eta poztu egiten dira, eta ulertu egiten dabe Jaunaren errukia.*

106 (107)

- ³³ Ibaiak basamortu biurtzen dauz,
 iturburuak lur legor,
³⁴ lur gozoa madura,
 an bizi diranen gaiztakeriakaitik.
³⁵ Basamortua urtegi biurtzen dau,
 eta legorra urtegi.
³⁶ Gose diranak antxe jarri dauz,
 eta uri bat jaso eban, bizi izateko.
³⁷ Soloak erein, ortuak landu,
 frutuak artzen dabez.
³⁸ Bedeinkatu egiten dauz, eta ugaritu egiten dira,
 eta abereak eurrez emon eutsezan.
³⁹ Ezbearren eta zoritxarren sortapean
 gutxira ba'datoz,
⁴⁰ aundikien gaiñera destaiña jáurtiten dauanak,
 bidebagako bakartadean
 areik okerreko bidetik darabizanak Berak
⁴¹ jasoten dauz zoritxarretik beartsuak,
 eta ugaritzen, artaldeak lez, arein sendiak.
⁴² Ikusten dabe ori zuzenak, eta poztu egiten dira,
 dongakeriari agoa itxi-azoten dautsoe.

(34) Madura = marisma.

(40) Destaiña = desprecio.

⁴⁰ Jakintsu izan daitenak,
artu dagizala gogoan jazopen oneik
eta ulertu dagiala Jaunaren errukia.

a) **Gorapen-otoitzak (LAUDES I)**

1. *Poztu bediz Sion'go semeak euren Erregeagaitik.*

149

¹ Aleluia!

Abestu egiozue Jaunari kanta barri bat,
entzun bedi gorapena Arentzat zintzoen batzarrean;

² poztu bedi Israel bere Egilleagaitik,

eta Sion'go semeak euren Erregeagaitik.

³ Goratu egizue Aren izena dantzaketaz,
abestu egiozue tanborrez ta zitaraz;

⁴ Jaunak bere erria maite dau-ta,
eta apalak garaipenaz apaintzen dauz.

⁵ Ospatu dagiela zintzoak Aren aintza
eta abestu dagiela pozik erreskadan;

⁶ Jainkoari goraka agoaz,
eta ago-biko ezpataz eskuetan;

⁷ erriakandik ordaintza artzeko

eta atzerriai zigorra emoteko,

⁸ erregeak txirindolaz lotzeko,
aundikiak burdiñazko estunez.

⁹ Idatzita dagoan epaia burutzea
gorapide yake Aren zintzo guztiai.

Aleluia!

(8) Txirindola = argolla.

2. *Zure lanak bai aundi, Jauna!*

91 (92)

² Ona da Jaunari eskerrak emotea
eta zure izenari cresiak jotea, Gorengo!;

³ goizean zeure errukia iragartea
eta gabez zeure zintzotasuna,

⁴ amar ariko arpaz eta laudez,
zitarra-otsez:

⁵ zure egintzak, Jauna, neure poz dira-ta,
zure esku-lanak, barriz, nire pozgarri.

⁶ Zure egiñak bai aundi, Jauna,
sakonak, benetan, zure asmoak!

⁷ Tentelak ez dauz ulertzen,
zentzunik ez daukana ez da konturatzen.

⁸ Gaiztoak bedarra lez erne ba'daitez be,
eta gaizkilleak loratu,
betiko ondatuak izango dira.

⁹ Zu, ostera, Jauna,
beti ta beti gorengo zara.

¹⁰ Zure arerioak, Jauna, galdu egingo dira,
gaizkilleak sakabanatuak izango dira;

¹¹ niri, ostera, basa-idiaren indarra emoten daustazu
eta orio barriaz igurtziten nozu.

¹² Baztatu egingo dabe nire begiak arerioa,
nire belarriak aren ondamendia entzungo dabe.

¹³ Zintzoa palmondoa lez aziko da,
Libano'ko zedrua lez egingo dau gorantz;

¹⁴ Jaunaren etxean jarrita,
geure Jainkoaren aterpectan aziko da;

¹⁵ zartzaroan be frutua emongo dau,
eta mardul eta gordin egongo da;

¹ Jauna zuzena dala
eta nire Arkaitz danagan
gaiztakeririk ez dagoala iragarteko.

3. *Zintzoa Jaunagan poztuten da, Aregan dau bere gordelekua.*

63 (64)

- ² Entzun, Jainko, nire negar-deia;
zaindu nire bizia arerio ikaragarriagandik;
³ gorde nagizu gaiztoen alkartzetik
eta gaizkilleen matxiñadatik.
⁴ Euren miiña ezpata lez zorrozten dabe,
eta geziak lez jaurtiten dabez berba edendunak,
⁵ zintzoa ezkutuan zauritzeko,
bat-batean eta nasai-nasai zauritzeko.
⁶ Adoretu egiten dira dongakerirako,
ondo asmatzen dabe sare ezkutuak ipintea,
eta auxe diñoce: «Nor dago begira?».
⁷ Gaiztakeriak asmatzen dabez
eta euren asmakeriak ezkututzen,
arein adimena ta biotza leza dira-fa.
⁸ Baiña, Jainkoak geziz josten dauz,
zauriz beteten dauz bat-batean;
⁹ euren miiñak eroaten dauz ondamendira,
eta areik ikusten dabezanak
buruari eragiten dabusoe.
¹⁰ Bildurrak artuta gelditzen dira gizaki guztiak,
Jainkoak egindakoa iragarten dabe,
eta Aren egintzak ausnartzen dabez.
¹¹ Zintzoa Jaunagan poztuten da,
Aregan dau bere gordelekua,
eta poztu egiten dira biotz-zuzenak.

4. *Erakutsi eiguzu, Jauna, zure errukiaren argia.*

Ikastuna'ren abestia

(Ikastuna, Eccli, 36)

- ¹ Onik atara gagizuz, izadiaren Jainko orrek!
² zabaldu egiezue atzerri guztiari
zugandiko bildur ikaragarria;
³ jaso zure eskua arrotz-erriari,
zure al-izatea ezagutu dagien.
⁴ Areik zigortzean, zeure santutasuna agertu zeutsenez,
agertu eiguzu geuri be zure aintza areik zigortuez:
⁵ geuk dakigunez, Zeu ezik beste Jainkorik
ez dagoana jakin dagien.
⁶ Barriztu egizuz ezaugarriak, egin barriro mirariak,
⁷ jaso gora zure eskua, sendotu zure besoa,
⁸ biztu zure asarrea, isuri sumiña,
⁹ makurtu erasotzaillea, sakabanatu arerioa;
¹⁰ aurreratu ordua, izan aurrean epea:
¹¹ nok esan al izango dautsu, ba, «zer egiten dozu?»
Su zigortzailleak irunsti dagizala iges egiten dabenak.
joan daitezala ondamendira zure erriaren zapaltzailleak.
¹² «Iñor be ez gu baiño geiago» diñoen arerioen buruzagiai
burua zapaldu egiezu.
¹³ Batu egizuz Jakob'en odoleko guztiak,
¹⁴ eta emoiezu arein soloa antxiña lez.
¹⁵ Erruki zakioz zure izena daroan erriari,
zeure len- seme izentatu zenduan Israel'i;
¹⁶ erruki zakioz zure uri santuari,
zure bizitoki dan Jerusalem'i.
¹⁷ Bete egizu Sion zure aunditasunaz,
eta jauretzea zure aintzaz.

5. *Arnasa dauken guztiak, Jauna goratu begie.*

150

1 Aleluia!

Goratu egizue Jauna Aren jauretxean,
goratu egizue Aren izartegi sendoan.

2 Goratu egizue Aren egintza arrigarriakaitik,
goratu egizue Aren aunditasun zabalagaitik.

3 Goratu egizue turuta-otsez,
goratu egizue arpaz eta zitaraz,

4 goratu egizue tanborrez ta dantzaketaz,
goratu egizue turuta-biurrez ta txilibituz,

5 goratu egizue txilin zoliz,
goratu egizue txilin dardaratsuz.

Arnasa dauken guztiak, Jauna goratu begie.

Aleluia!

*«Benedictus», 15 orri.*b) **Bigarren gorapen otoitzak (LAUDES II)**1. *Lagun zakioz Sion'i, Jauna, zure ontasunagaitik.*

Erruki, ene Jainko, 119 orri.

2. *Gure Jainko Jauna zuzena da; ez da gaiztakeririk Aregan.*

91 (92)

Ona da Jaunari eskerrak emotea: 233 orri.

(4) Turuta-biur = trompa.

3. *Zaindu nire bizia, Jauna, arerio ikaragarriagandik.*

63 (64)

Entzun, Jainko, nire negar-deia: 234 orri.

4. *Jauna erruki izango yake bere otseiñai, parkatu egingo dautse bere lurraldeari ta erriari.*

Moises'en bigarren abestia

(Itzaldiak, Deut., 32)

1 Entzun, zeruok, eta berba egingo dot;

entzun, lur orrek, nire egoko berbak;

2 jatsi bedi euria lez nire irakaspena,

isuri beite iruntza lez nire itza;

euri-lanbroa lez bedar-gaiñera,

sirimiria lez zelai-gaiñera;

3 Jaunaren izena iragarri bear dot:

goratu egizue gure Jainkoa.

4 Bera da gure Arkaitz, Aren lanak bikain-bikaiñak dira,

Aren bideak zuzenak dira,

Jainko zintzo da, gaiztakeririk bagea;

zuzena ta arteza da.

5 Seme ustelak, txarto jokatu eben Aretzaz,

gizaldi gaizto ta zantarra.

6 Olan emoten dautsazu ordaiña Jaunari,

erri tentel eta burubage orrek?

Ez da, ba, Bera zure aita ta egillea,

zu egin eta eratu zenduzana?

7 Ekarki egizuz gogora antxiñako egunak,

ausnartu lengo aldiak,

itandu zure aitari ta berak azalduko dautsu,

itandu zure agurai ta eurak esango dautsue:

- ⁸ Gorengoak erri bakotxari bere soloa emoten eutsanean,
eta Adan'en semeai banantzen eutsenean,
atzerrien mugak erabagiez,
Jainkoaren semeak ziran negurriz,
⁹ Jaunaren arloa Aren erria izan zan,
Jakob izan zan Aren soloko zatia.
¹⁰ Iñor bizi ez zan lurrean aurkitu eban,
ausiz beteriko bakartadean:
inguratu ta zaindu egin eban,
bere betseña lez gorde eban.
¹¹ Arranoak, bere umeen gaiñean egaz egiñez,
bere apiakoai eragiten dautsenez,
alantxe zabaldu ebazan bere egoak,
areik beragaz artu ta bere egoen gaiñean eroan ebazan.
¹² Jaunak bakarrik eroan ebazan,
ez zan Aregaz jainko arrotzik izan.
¹³ Bere mendien gaiñean ipiñi ebazan,
eta bere landetako frutuakaz janaritu ebazan;
baso-eztiaz azi ebazan,
suarrizko arkaitz-orioaz;
¹⁴ bei-gaztanberaz eta ardi-esneaz,
bildots eta adari-koipeaz,
Basan'go abere ta artxumeakaz,
gari-urun bikaiñenaz;
eta edaritzat, matsaren odol irakiña.
Asetu arte jan eban Jakob'ek,
¹⁵ Nire Kutuna gizendu egin zan, eta ostikoka asi zan
— lodi, gizen eta errime zengozan —,
eta baztatu egin eban bere egille zan Jainkoa,
gerendu egin eban bere Arkaitz salbatzaillea.
¹⁶ Jainko arrotzez zirikatu egin eben,
euren zantarkeriakaz asarrerazo egin eben,

(10) Ausi = aullido.

- ¹⁷ jainko ez diran deabruai,
jainko ez-ezagunai,
barriai, urretik ekarritakoai,
zuen gurasoak gurtzen ez ebezana,
opariak eskiñi eutsezan:
¹⁸ zu sortu zenduzan Arkatxa baztatu zenduan,
eta argitara ekarri zenduzan Jainkoa aztu dozul!
¹⁹ Jaunak ori ikusi ta asarratuta,
bere seme-alabak baztatu egin ebazan,
²⁰ buruan auxe erabilliez:
«Gorde egingo dautset nire arpegia,
eta ikusiko dot orrein azkena nun dan,
gizaldi zitala da-ta,
seme maltzur batzuk;
²¹ jainko ez danaz zirikatu nabe,
jainko-irudi utsez asarrerazo nabe:
nik be, erri ez dan bataz zirikatuko dodaz,
erri ez dan bataz asarrerazoko dodaz.
²² Sutan dago nire sumiña,
eta Leza sakoneraiño kiskalduko dau,
lurra ta ango frutuak ondatu egingo dauz
eta mendien oiñarriak erre.
²³ Ondamendiak ondamendien gaiñean pillatuko dautse-
nire geziak euren kontra amaituko dodaz; Idaz,
²⁴ goseak zimelduta ibiliko dira,
sukarrez eta gaitz txarrez janda;
pisti-agiñak eta narras dabizanen
suge-edena bialduko dautsedaz;
²⁵ guztiak, mutil eta neska,
bularretako ta agurak,
kaleetan ezpatak joko dauz,
eta etxeetan bildur-ikar(e)ak».
²⁶ Auxe esaten neban nirekautan:

- «Sakabanatu egingo dodaz
eta kendu egingo dot arein gomutapena gizartetik».
- ²⁷ Baiña, ez; arerioaren arrokeriaren bildur naz-ta,
arerioak okerretara adituko leuskit,
eta, «Geure eskuak irabazi dau,
ori egin dauana ez da izan Jauna»
esango leukee, onenean.
- ²⁸ Izan be, zentzuna galdu dauan erria da
eta ez dabe adimenik.
- ²⁹ Zentzuneko ba'litzaz, ulertuko leukee,
aituko leukee euren etorkizuna:
- ³⁰ Gizon batek zelan erabilli aurrean milla,
eta bik zelan iges eragin amar millari?
Ez ete-da euren Arkatzak saldu dauzalako
eta Jaunak itxi dauzalako?
- ³¹ Izan be, arein arkatxa ez da gure Arkatxa lakoa:
gure arerioak eurak jakin daikee ori.
- ³² Sodomako maastietariko aien bat dira,
Gomorra'ko landetarikoa:
arein maatsak maats edendunak dira
eta arein maats-mordoak mingotsak;
- ³³ arein ardaoa pistitzar-edena da,
larrasuge-eden ilgarria.
- ³⁴ Ez ete-daukat guzti ori batuta
eta neure idazkitegietan ezaugarritz gordeta?
- ³⁵ Neurea izango da asperkundera ta ordainbidea
arein oiñak laban egin dagien orduan;
izan be, ur dago arein ondamendi-eguna
eta laster dator arein zoria.
- ³⁶ Izan be, Jauna bere erriaren alde jarriko da,
eta erruki izango yake bere otseñai.
Arein eskuak makalduta
eta ugazabak eta morroiak

- jausiak dagozala ikusi dagianean,
- ³⁷ Auxe esango dau: «Nun dira orrein jainkoak
eta igeslekutzat eben arkatxa?»
- ³⁸ Ez eben jaten, ba, euren oparietako koipea?
ez eben edaten, ba, euren isurketetako ardaoa?
Jagi daitezala zuei laguntza ekartera,
izan daitezala zuen igesieku».
- ³⁹ Baiña orain, begira: Neu, neu naz,
eta ez da iñor neu ezik:
neuk emoten dodaz eriotza ta bizia,
neuk urratzen eta osatzen dot,
eta ez da iñor nire eskutik atara al dagianik.
- ⁴⁰ Nire eskua zerurantz jaso ta auxe egiten dot zin:
«Bene-benetan, ni beti bizi nazanez,
- ⁴¹ nire ezpataren oiñaztarria zorroztu dagidanean
eta eskuan zuzenbidea artu dagidanean,
zigorra emongo dausat arerioari
eta ordaiña nire kontra dagoanari;
- ⁴² odoletan moskortuko dodaz nire geziak,
nire ezpatak aragia iruntsiko dau:
illen eta atxillotuen odola,
arerio-buruzagien buruak».
- ⁴³ Goratu egizue *Jauna*, atzerriok, Aren erriagaz batera,
Berak zigortzen dau bere otseñen odola-ta,
Berak emoten dautso zigorra arerioari,
Berak parkatzen dautso bere lurrari ta erriari.

5. *Goratu egizue Jauna, Aren aunditasun zabalagaitik.*

150

Goratu egizue Jauna Aren jauretxean: 236 orri.

«Benedictus», 15 orri.

Goizeko otoitza (PRIMA)

Jagi zaitetz, Jauna, ebatzi lurra, emoeizu arroai dagokien ordaiña.

93 (94)

- ¹ Jainko ta Jaun zigortzaille,
Jainko zigortzaille, argi egizu.
- ² Jagi zaitetz, ebatzi lurra,
emoiezu arroai, dagokien ordaiña.
- ³ Noiz arte, Jauna, errudunak,
noiz arte irabaziko dabe errudunak?
- ⁴ Berba ta berba, lotsabagakeriak esanez,
arrokerietan diardue gaizkilleak;
- ⁵ birrindu egiten dabe, Jauna, zure erria,
samindu zure soloa;
- ⁶ bizia kentzen dautse alargunai ta arrotzai,
sam(e)a moztu umezurtzai;
- ⁷ «Jainkoak ez dau ikusten — diñoē —,
Jakob'en Jainkoa ez da konturatzten».
- ⁸ Jakin egizue, erriko zentzunbagok,
tentelok, noiz adituko dozue?
- ⁹ Belarria ezarri ebanak, ez dau, ba, entzungo?
Begia eratu ebanak, ez dau, ba, ikusiko?
- ¹⁰ Erriai aziera emoten dautsenak, ez al dau zigortuko?
Gizonari irakatsia emoten dautsanak,
ez dau, ba, jakingo?
- ¹¹ Ba-daki Jaunak gizonaren bururakizunak
utsezkoak dirana.
- ¹² Zoriontsua, benetan, aziera emoten dautsazun gizona,
zure legea irakasten dautsazuna,

- ¹³ urte baltzak ondoren ari atsedena emonik,
gaiztoari zuloa egiten dautsoen artean;
- ¹⁴ izan be, Jaunak ez dau bere erria bartzartzen,
ezta bere soloa bertan-bera izten be
- ¹⁵ Zintzoak bere eskubidea lortuko dau,
eta biotz-zuzenak etorkizuna.
- ¹⁶ Nor dago nire alde gaiztoen kontra?
Nor jarten da nire ondoan gaizkilleen kontra?
- ¹⁷ Jaunak laguntzarik emon ez ba'leust,
onezkero ixil-tokian nengokean.*
- ¹⁸ Laban egiteko zorian nagoala uste dodanean,
zeure errukiak eusten daust, Jauna;
- ¹⁹ buruausteak ugaritzen yatazanean,
zeure pozaldiak asetzen dauste gogoa.
- ²⁰ Zugaz alkartu al daiteke gaiztoa auzi-batzarrean,
lege-antzean okerra erabagiteko?
- ²¹ Zintzoaren biziaren kontra jardunarren
eta errubagea eriotzara galdu ba'dagie be,
- ²² Jauna izango da nire gaztelu,
Jainkoa izango da nire gorde-arkaitz.
- ²³ Berak ordainduko dautse arein gaiztakeria,
ondatu egingo dauz arein dongakeriakaitik,
ondatu egingo dauz gure Jainko Jaunak.

107 (108)

- ² Gertu daukat biotza, ene Jainko,
Zeuretzat abestuko ta joko dot, ene aintza!
- ³ Iratzartu zaitetze, zitara ta arpa oril,
egunsentia iratzartuko dot;
- ⁴ eskerrak emongo dautsudaz, Jauna, errien artean,
zeuretzat joko dot atzerrien aurrean:
- ⁵ zeure ontasunagaitik, zeruak baiño aundiagoa da-ta,
zeure zintzotasunagaitik, odeiai oratzen dautse-ta.

- ⁶ Igo, ene Jainko, zeru-gaiñera,
eta bete begi lurra zure aintzak;
⁷ zure maiteak onik urten daitezun,
zure esku salbatzailleak erantzun daikun.
⁸ Olanitze egin eban berba Jainkoak bere jauretzean:
«Garaitsu artuko dot Sikem,
Sukot'eko ibarra negurtu egingo dot;
⁹ neurea da Galaad, neurea Manases,
neure buru-babesa Efram,
neure aginpide-makilla Juda;
¹¹ Moab, neure burua garbitzen dodan ontzia,
Edom'en gaiñera jaurtiten dot nire oiñetakoa,
Filistea'ren lepotik nire garaipen-abestia».
¹¹ Baiña, nok eroango nau arresidun-urira?,
nok zuzenduko nau Edom'era,
¹² Zuk, Jainko orrek, gu bazartu
eta orain ez zara urteten gure gudarozteakaz-ta?
¹³ Emoiguzu laguntza arerioaren kontra,
giza-laguntza alperreko da-ta;
¹⁴ Jainkoagaz arrigarriak egingo doguz,
Berak zapalduko dauz gure arerioak.

Goizerdiko otoitza (TERTIA)

*Eldu bedi Zuganaíño nire deadarra, Jauna; ez egidazu
ezkutatu zure arpegia.*

101 (102)

- ² Entzun, Jauna, nire otoitza,
eldu daitela Zuganaíño nire deadarra;
³ ez egidazu ezkutatu zure arpegia
larrialdi-egunean.

- Makurtu zure belarri ori nigana;
dei egin dagitsudanean, entzun egidazu bereala.
⁴ Nire egunak kea lez ezerezten dira-ta,
nire azurrak txingarrak lez erreten dabe;
⁵ nire biotza bedarra lez dago igartuta,
aztu egiten yat nire ogia jatea;
⁶ antziren-antziz,
azurrok narruari itsasita daukadaz.
⁷ Basoan ontza lez nago,
etxe-jausietan gautxoria lez;
⁸ lorik egin eziñik nago, negarrez,
txori bakartia teillatuan lez.
⁹ Nire arerioak eten-bagarik iraintzen nabe,
asarre-bitsetan nire kontra, madarikatu egiten nabe.
¹⁰ Ogi orde, su-autsa jaten dot,
nire edaria negar-malkoz naasten dot;
¹¹ zeure asarre ta sumiñagaitik,
gora jaso ta jaurti egin nenduzun-eta;
¹² luzatzen dan geriza lakoa dira nire egunak,
bedarra lez noa ni zimeltzen.
¹³ Zuk, ostera, betiko irauten dozu,
eta zure izenak gizaldiz-gizaldi.
¹⁴ Jagi zaitetz eta Sion'i erruki zakioz,
erruki-aldia ta ordua ba-da-ta.
¹⁵ Ango arriak zure otseiñentzat maitagarri dira,
eta ango orma-ondarrak samingarri.
¹⁶ Bildur izango dautsoe jentillak zure izenari,
lurreko erregeak zure aintzari.

- 17 Jaunak Sion barriztu dagianean
eta bere aintza erakutsi,
18 eta gaisoen erreguetara biurtu daitenean,
eta arein eskariak baztatu ez dagizanean,
19 idatzita gelditu bedi au urrengo gizaldiarentzat,
eta sortua izango dan erriak Jauna goratuko dau:
20 Jaunak bere goiko jauretaketik begiratu egin dau-ta,
zerutik lurrera begiratu dau,
21 lotuta dagozanen antziak entzuteko
eta eriotzarako galduak askatzeko;
22 Jaunaren izena Sion'en iragarteko,
eta Jerusalem'en Aren gorapena;
23 erriak eta erregeak batera alkartu daitezanean,
Jaunari gurtza emoteko.
24 Ausi egin ebazan nire indarrak bidean
eta nire egunak laburtu;
25 eta nik auxe esan neban: Ene Jainko,
ez nagizu eroan nire egunen erdian.
Zure urteak gizaldien-gizaldietan irauten dabe;
26 asieran lurra sendotu zenduan,
eta zerua zeure eskuen lana da;
27 areik galdu egingo dira, zuk irauin,
jantzia lez zaartuko dira,
aldatzen dan jantzia lez izango dira.
28 Zu, ostera, beti bat zara,
eta zure urteak ez dabe amairik izango.
29 Zure morroien semeak nasai-nasai bizi izango dira,
iraungo dabe arein jatorrikoak zure aurrean.

Egurdiko otoitza (SEXTA)

Zu bai aundia, gure Jainko Jaun ori!

103 (104)

- 1 Bedeinkatu egizu Jauna, ene arima!
Zu bai aundia, ene Jainko ori!
Eder eta aundi zagoz jantzita,
2 soingaiñekoaz lez inguratzen zaitu argiak.
Txabola bat lez zabaltzen dozuz zeruak,
3 uren gaiñean jasoten dozu zure bizitokia;
burditzat odeiak dituzu,
aizearen egoetan zoaz;
4 aizeak dituzu aurretik Zu iragarteko,
su-garra zure menpeko.
5 Lurra bere oiñarrietan sendotu zenduan,
eta ez dau egundo alboraka egingo;
6 itxas-soiñekoa ezarri zeutsan gaiñean,
eta urak mendi-gaiñetan gelditu ziran;
7 baiña zure deadarraz iges joan ziran,
zure trumoi-danbarradaz amildu egin ziran,
8 mendiak gora ta ibarrak beera egiten eben artean;
bakotxari izentatu yakon tokira.
9 Muga ipiñi zenduan, eta ez dira andik igaroko,
eta ez dabe bariro lurra estalduko.
10 Iturburuetatik errekek ataraten dituzu,
mendi-artetik txirristaka joan daitezana;
11 ur areitan edaten dabe basoetako piztiak,
antxe kentzen dau bere egarria baso-astoak;
12 ur-ondoetan bizi dira zeruko egaztiak,
eta orri-artean ekiten dautsoe txorrotxioari.

- ¹³ Zeure bizitokitik bustiten dozuz mendiak,
 eta lurra zeure ekintza eginkorrez beteten da;
¹⁴ abereentzat bedarra erneten dozu,
 eta landarea gizonaren morroientzat;
 berak ataraten dau soloetatik ogia,
¹⁵ eta biotza poztan dautsan ardaoa,
 eta arpegiari diz-diz eragiten dautsan orioa,
 eta indarrak emoten dautsazan janaria.
¹⁶ Izerdiz beteten dira Jaunaren zugatzak,
 Berak jarri ebazan Libano'ko zedruak.
¹⁷ Antxe egiten dabez txoriak euren apiak,
 antxe gañean egiten dau etxea amiamokok.
¹⁸ Aitz-zorrotzak auntzentzat dira,
 atxak kirikio-gordeleku.
¹⁹ Illargia egin zenduan bere goraberakaz,
 ezagutzen dau eguzkiak bere sartzaldea.
²⁰ Zuk illunpeak bialdu ta ba-dator gaba,
 eta basoko piztiak dabiz inguruan;
²¹ leoikumeak orroka arrapakin-guraz,
 Jainkoari euren jatekoa eskatzen.
²² Eguzkia sortzen danean, iges egiten dabe,
 eta euren gordeleketan etzuten dira;
²³ gizona bere lanetara urtetzen da,
 bere solora arratsalderaiño.
²⁴ Bai ugari dirala zure lanak, Jauna!,
 eta guztiak jakituriz egin zenduzan,
 lurra zeure izakiz beterik dago.

(17) Amiamoko: Laburdi ta Benaparroa'ko itza = cigüeña.

- ²⁵ Or dago itxasoa: aundi ta luzea,
 an dabiz bizidunak ugari,
 txiki ta aundi;
²⁶ an dabiz itxasontziak ortik ara,
 baita jolas egiteko eratu zenduan Lebiatan be.
²⁷ Guzti orreik, aldi egokian
 jana emon dagitsezun begira dagoz;
²⁸ Zuk arei emon, eta areik artu egiten dabe;
 Zuk eskua zabaldu, eta areik ondasunez beteten dira;
²⁹ Zuk arpegia gorde, eta areik ikaraz jarten dira;
 Zuk arei arnasa kendu, eta il egiten dira,
 euren autsera biurtzen dira;
³⁰ Zuk arei arnasa bialdu, eta biztu egiten dozuz,
 eta lur-azala bizidunez beteten dozu.*
³¹ Aintza Jainkoari betiko,
 poztu bedi Jauna bere egintzakaz.
³² Arek lurra begiratzen dauanean, lurra ikaraz jarten da;
 Arek mendiak ikutzen dauzanean, mendiak ketan.
³³ Bizi nazan artean, Jauna ospatuko dot;
 ni nazan artean, neure Jainkoarentzat joko dot:
³⁴ izan dakiola atsegingarri nire olerkia,
 eta ni Jaunagaz poztuko naz.
³⁵ Atzamatu daitezala lurreko pekatariak,
 ez bedi aurreratzean gaiztorik izan.
 Bedeinkatu egizu Jauna, ene arima!
 Aleluia!

Bezerdiko otoitza (NONA)

Ez zaitez ixillik egon, ene Jainko, gorroto-berbaz inguraz-
tzen nabe-ta.

108 (109)

- ¹ Ez egon isilik, nire gorapenen Jainko oril,
- ² ago gaizto ta maltzur bat zabaltzen da nire kontra-ta; miin guzurtiaz egiten dauste berba,
- ³ gorroto-berbaz inguratzen nabe, bidebagez diardue burrukan nire kontra;
- ⁴ nire maitasunaren orde, salatu egiten nabe, nik otoitzean diardudan artean;
- ⁵ on-egñaren orde, gaxta ordaintzen dauste, maitasun-ordez gorrotoa.
- ⁶ Izentatu egizu gaizto bat aren kontra, salatari bat, aren eskuman egon daiten;
- ⁷ auzitik errudun urten beite, aren aldekoak uts egin dagiela;
- ⁸ izan daitezala gutxi aren egunak, eta artu dagiala beste batek aren eginkizuna;
- ⁹ aren semeak umezurtz gelditu daitezala, eta aren emaztea alargun;
- ¹⁰ aren semeak eskean ibili daitezala, arantz-onantz, ogi-billa, euren etxe jausietatik bialduta;
- ¹¹ lukurra egin daitela aren ondasunen jabe, aren lan-saria arrotzak kendu dagiela;

(11) Lukur = usurero.

- ¹² iñor ez daitela aretzaz errukitu, eta iñok ez dagitsela aren umezurtzai errukirik izan;
- ¹³ aren ondorengoak garbituak izan daitezala, eta aren abizena urrengo gizaldirako amaitu daitela;
- ¹⁴ gogoratu dagizala Jaunak aren aitaren erruak, eta ez dagizala kendu aren amaren pekatuak;
- ¹⁵ egon daitezala beti Jaunaren aurrean, eta atara dagiala lurretik aren gomutapena.
- ¹⁶ Erruki egitea ez eban gogoan izan-eta, txiroa, beartsua ta larritua aurrean erabilli eban-eta, ari eriotza emoteko;
- ¹⁷ biraoa izan eban maite-ta: berari jausi bekio; ez eban onespenik billatu: bego aregandik urrun;
- ¹⁸ soiñekoz lez biraoaz jazten zan: urak lez busti-busti egin dagiozala erraiak, orioak lez, gunak;
- ¹⁹ soiña estaltzeko jantzia izan dakiola, beti lotuta daukan gerriko.
- ²⁰ Olantxe emon dagitsela saria Jaunak ni salatzen nabena, nire kontra guzur baltza diñoenai.
- ²¹ Zuk, ostera, Jauna, ondo artu nagizu, zure izenagaitik, onik atara nagizu zure erruki samurragaitik;
- ²² ni txiro beartsu bat naz-ta, biotza barruan zaurituta daroat-eta;
- ²³ luzatzen dan geriza lez noa igaroten, matxingorrigoa lez astintzen nabe;
- ²⁴ barauaren-barauz belaunak makurtu egiten yataz, argal eta azur eta azal gelditu naz;
- ²⁵ areik nire leptok barre egiten dabe, ni ikustean, buruari eragiten dautsoe.

6 Lagun zakidaz, nire Jainko Jaun ori,
zure errukiagaitik onik atara nagizu.
7 Jakin begie, zure eskua ementxe dagoana,
Zeu zarana, Jauna, au egin dozuna.
8 Areik birao egin dagiela: bedeinkatu nagizu Zuk;
uts egin dagiela nire arerioak,
zure morroi au poztuten dan artean;
9 gerenez bete daitezala ni salatzen nabena,
estalkiak lez lots(e)ak batu dagizala.
Abots indartsuaz emongo dautsadaz nik eskerrak Jau-
gizataldearen erdian goratuko dot. [ri,
1 ebazleakandik aren biziā onik atarateko,
gaisoaren eskuman jarri zan-eta.

143-otoitza (BEZPERAK)

1. *Bedeinkatua Jauna, nire gartzelu ta salbatzaillea.*

143 (144)

Bedeinkatua nire Arkaitz dan Jauna,
nire eskuok gudarako
ta nire atzamarrok burrukarako gertatzen dauzana;
2 nire ongille, nire gartzelu,
nire biziā gordeten dodan igesleku,
nire aterpe ta gordeleku,
erriak menperatzen daustazana.
Jauna, zer da gizona Zu aretzaz arduratu zaitezan?
zer dira Adan'en semeak
Zuk areik buruan erabili dagizuzan?

4 Gizona putzaren antzekoa da,
aren egunak, igesi doan gerizaren antzeko.
5 Jauna, makurtu egizu zure zerua ta jatsi zaitez,
ikutu egizuz mendiak, eta ketan asiko dira,
6 jo egizu oiñaztarria, eta sakabanatu egizuz,
jaurti zure geziak eta birrindu egizuz.
7 Luzatu egizu eskua goitik:
gorde nagizu, atara nagizu ur aundietatik,
arrotzen eskutik.
8 arein agoa guzurra,
eta arein eskuma guzurrezko ziña da-ta.

2. *Zoriontsu Jainkotzat Jauna daukan erria!*

143 (144)

9 Kanta barri bat abestuko dautsut, ene Jainko,
amar ariko arpa joko dot Zuretzat:
10 erregeai garaipena emon
eta zure morroi Dabid onik ataraten dozun Orrentzat.
Gorde nagizu ezpata gaiztotik,
11 onik atara nagizu arrotzen eskuetatik:
arein agoa guzurra,
eta arein eskuma guzurrezko ziña da-ta.
12 Gure semeak landara-arloa izan daitezala,
jauretxe-egitama;u,
13 gure garautegiak guztitariko frutuz
beterik egon daitezala;
gure artaldeak millaka ugaritu daitezala
gure zelaietan,

(12) Egitamu = estructura.

- ¹⁴ eta gure idiak sortaz beterik etorri daitezala;
ez bedi izan brintzarik, ez zulorik,
ez guda-otsik gure plazetan.
- ¹⁵ Zoriontsua ori daukan errial,
zoriontsua Jainkotzat Jauna daukan errial

3. *Jauna Aundia da, gorapen guztia dagokio, ulertu-ezi-
ña da Aren Aunditasuna.*

144 (145)

- ¹ Goratuko zaitut, nire Jainko ta Erregè ori,
zeure izena bedeinkatuko dot beti ta beti.
- ² Egunero bedeinkatuko zaitut,
eta beti ta beti goratuko dot zure izena.
- ³ Aundia da Jauna, eta gorapen guztia dagokio,
ulertu-eziña da Aren aunditasuna.
- ⁴ Gizaldiak gizaldiari Zeure lanak goratzen dautsaz,
Zeure arrigarriak azaltzen dautsaz;
- ⁵ areik zeure aunditasunaren aintza goratzen dabe,
eta nik zeure miragarriak aitatzen dodaz;
- ⁶ areik zure egintza bildurgarriak goratzen dabez,
eta nik zeure egintza aundiak azaltzen dodaz;
- ⁷ zeure ontasun aundiaren gomutapena zabaltzen dabe,
eta zeure garaipenak iragarten dabez.

4. *Jauna ona da guztientzat, maitekorra da bere izaki
guztientzat.*

144 (145)

- ⁸ Jauna biotz-bigun eta errukiorra da,
asarrerako geldia ta errukiz aberatsa;

- ⁹ Jauna ona da guztientzat,
maitekorra da bere izaki guztientzat.
- ¹³ Emon dagitzuezala eskerrak, Jauna, zure izaki guztiak.
bedeinkatu zagiezala zure zintzoak;
- ¹¹ iragarri dagiela zure erregetzaren aintza,
esan dagiezala zure arrigarriak;
- ¹² gizonai zure arrigarriak
eta zure erregetzaren aintza ta aunditasuna azalduetz.
- ¹⁴ Zure erregetza beti-betiko erregetza da,
zure agintaritzak gizaldiz-gizaldi irauten dau.
Jaunak zintzo eusten dautse bere berbai,
biotz-onekoa da bere egitada guztietan.

5. *Jaunak zintzo eusten dautse bere berbai, biotz-one-
koa da bere egitada guztietan.*

144 (145)

- ¹⁴ Jaunak eutsi egiten dautse jausi-zorian dagozan guztiai,
zuzen jarten dauz makurtu-zorian dagozanak.
- ¹⁵ Guztien begiak Zeuri begira dagoz,
janaria emoten dautsezu aldi egokian;
- ¹⁶ Zuk eskua zabaldu,
eta bizidun guztiak mesedez beteten dozuz.
- ¹⁷ Jauna zuzena da bere bide guztietan,
biotz-onekoa da bere egitada guztietan;
- ¹⁸ dei egiten dautsoenakandik ur dago Jauna,
benetan dei egiten dautsoenakandik.
- ¹⁹ Bere zintzoen gurariak bete egiten dauz,
arein deadarrak entzun, eta onik ataraten dauz.
- ²⁰ Maite daben guztiak, Jaunak gorde egiten dauz,
gaiztoak, barriz, ondatu egiten dauz.

²¹ Nire agoak esan begi Jaunaren gorapena,
bedeinkatu begie bizidun guztiak Aren izen santua,
beti ta beti.

«Magnificat», 37 orri.

Illuntzeko otoitza (AD COMPLETORIUM)

Eldu bedi Zuganaïño nire eskaria, Jauna.

87 (88)

- ² Ene Jainko Jauna, ni Zuri egunez laguntza-eske,
gabez Zure aurrean deadarka;
- ³ eldu bedi Zuganaïño nire eskaria,
makurtu zure belarria nire deadarrera.
- ⁴ Nire arima ezbearrez beterik dago-ta,
nire bizia, barriz, lurpetik ur dago;
- ⁵ illobira jatsiten diranen artean zenbatzen nabe,
elbarri baten antzeko naz,
- ⁶ ildakoen artean daukat nire ogea,
illobian dagozan jausitakoak lez:
areik ez dozuz onezkero gogoan,
zure eskutik kenduak izan ziran-eta.
- ⁷ Zulo-ondarreen ipiñi nozu,
ondarreko illunpetan.
- ⁸ Zure asarrea neure gaiñean dago,
gaiñera jaurtiten daustazuz zure olatu guztiak;
- ⁹ nire ezagunak urrundu egin daustazuz nigandik,
areintzat iguingarri egin nozu:
itxita nago, eta ezin urten;

- ¹⁰ begiok samiñez illunduta daukadaz.
Egun osoan Zeuri deika diardut,
eskuok Zeugana luzatzen.
 - ¹¹ Illen alde mirariak egingo ete-dozuz?
gerizak jagiko ete-dira Zuri eskerrak emotera?
 - ¹² Iragarten ete-da illobian zure errukia?
edo-ta, eriotz-erreñuan zure zintzotasuna?
 - ¹³ Ezagutzen ete-dira zure mirariak illunpean,
edo-ta, zure zuzentasuna aztutakoen lurraldean?
 - ¹⁴ Nik, ostera, laguntza eskatzen dautsut,
Zeure billa joango da goizean nire eskaria.
 - ¹⁵ Jauna, zegaitik baztarten nozu?
eta zegaitik ezkutatzen daustazu zure arpegia?
 - ¹⁶ Zoritxarreko ta geisoa izan naz umetarik,
makurtuta nago Zuganako bildur-ikaraz,
 - ¹⁷ zure asarrealdia neure gaiñetik igaro da,
Zugandiko bildur-ikarak galduta nauke:
 - ¹⁸ urak lez beti inguruan nauke,
guztiak batera inguratzen nabe.
 - ¹⁹ Urrundu zenduzan nigandik adiskide ta lagunak:
illunpeak dira nire arteko.
- 102 (103)
- ¹ Onetsi egizu Jauna, ene arima,
eta nazan guzti onek Aren izen santua.
 - ² Onetsi egizu Jauna, ene arima,
eta ez aztu Aren on-egiñak.
 - ³ Berak parkatzen dauz zure erru guztiak,
eta osatzen zure geiso guztiak;
 - ⁴ Berak askatzen dau illobitik zure bizia,
eta graziz eta errukiz beteten zaitu;
 - ⁵ Berak asetzen dauz ondasunez zure gurariak,
eta arranoaren antzera barrizten da zure gaztaroa.

- ⁶ Jaunak zuzenbidea egiten dau
eta zapalduta dagozan guztien alde egiten dau;
- ⁷ Bere bideak Moises'i erakutsi eutsazan,
eta bere egiñak Israel'go semeai.
- ⁸ Jauna biozpera ta errukiorra da,
asarrerako geldia eta parkamenerako aberatsa;
- ⁹ ez diardu beti salatzen,
ez da betiko asarratzen.
- ¹⁰ Ez garabiz gure pekatuen negurirra,
ezta ordaindu be gure erruai dagokienez;
- ¹¹ zerua lurretik goi dagoanez,
alantxe jagiten da Bere ontasuna be
Bere zintzoen gainean;
- ¹² sartzaldetik sortzaldea urrun dagoanez,
alantxe urruntzen dauz gugandik gure dongakeriak;
- ¹³ aita bere semeai buruz samurra denez,
Jauna be samurra da bere zintzoai buruz;
- ¹⁴ ezagutzen dau gure ora-ta,
gogoan dauko lokatza garana.
- ¹⁵ Bedarrak lez irauten dabe gizonaren egunak,
landako lorea lez loratzen dira:
- ¹⁶ aizeak ari ikututxo bat egin orduko, ezereztu egin da,
egoan tokiak ez dau barriro ikusiko.
- ¹⁷ Jaunaren errukiak, barriz, beti irauten dau,
Aren zuzentasuna semeakandik illobakana igaroten da:
- ¹⁸ alkartasuna gordeten
eta Aren aginduak esan eta beteten dabezanakana.
- ¹⁹ Jaunak zeruan ipiñi eban bere aulkia,
Bere erregetzak zaintzen dau izadia.
- ²⁰ Bedeinkatu egizue Jauna, Aren aingeruok:
Aren aginduak beteteko altsuak,
Aren esanera bizkorrak zareenok.
- (14) Ora, ore = masa.

- ²¹ Bedeinkatu egizue Jauna, Aren gudarozteok,
Aren gurariak beteten dozuezan morroiok.
- ²² Bedeinkatu egizue Jauna, Arek egindako guztiok,
Aren menpeko toki guztietan.
Bedeinkatu egizu Jauna, ene arima!

Onik atara gagizuz... (domeketan lez): 41 orri.



(Invitatorium)

- 1 Etorri zaitetze, goratu daigun Jauna,
txalo egin daiogun gu onik ataraten gaituan Arkatxari;
- 2 sartu gaitzean Aren aurrera eskerrak emonez,
ospatu dagigun ereskin-otsez.
- 3 Jauna Jainko aundia da-ta,
jainko guztien errege:
- 4 bere eskuan daukaz lurraren lezak,
bereak dira mendien gaillurrak;
- 5 berea da itxaso, Berak egin eban-eta;
baita bere eskuak eratu eben legorra be.
- 6 Sartu zaitetze, auspaztu gaitzean,
gure egille dan Jauna bedeinkatuez.
- 7 Bera da gure Jainkoa-ta;
gu, barriz, Aren erria,
Berak zaintzen dauan artaldea.
Entzungo al dozue gaur Aren abots au!:
- 8 «Ez egizue gogortu biotza Meriba'n lez,*
Masa-egunean basamortuan lez:
- 9 an, nire egintzak ikusi izanarren,
zure gurasoak arakatu ta zirikatu egin nenduen.
- 10 Berrogei urtean iguiña emon eustan gizaldi arek,
eta, «erri biotz-okar da au -esan neban - ,
ez dau nire bidea ezagutzen;
- 11 orregaitik, zin au egin neban nire asarrean:
Ez dira nire atsedenean sartuko».

«T E D E U M»

Ze u goratzen zaitugu, Jainko; Ze u autortzen zaitugu, Jauna!
Ze u gurtzen zaitu, Aita betiko ori, lur osoak!
Aingeru guztiak, zeru guztiak eta Aldun guztiak,
Kerubin eta Serapin guztiak
eten-bagarik dirautsue deadarka:
Santu, Santu, Santua, Gudarozteen Jainko Jauna!
Zeru-lurrak zure ederrak beterik daukaz.
Ze u goratzen zaitu Apostoluen talde goragarriak,
Igarleen talde aundiak,
Martirien gudarozte zuriak.
Ze u goratzen zaitu lur zabalean dagoan Eliza Santuak:
Ze u, negurri bagarik aundi zarean Aita ori,
baita zure Seme gurgarri, egiazko ta bakarra be,
baita Espiritu Santu ta Poz-emoillea be.
Zu, Kristo, zeruko Errege,
Zu, Aitaren Seme betikorra.
Zu, gizona salbau naiez,
ez zaitu ikaratu Neska garbi baten sabelak.
Zuk, eriotzari eztena ausirik,
fededunai zeruetako erreinua edegi dautsezu.
Zu, Aitaren eskumaldean zagoz jesarrita, Aitaren argitan.
Etorteko dan ebazlea zareala sinisten dogu.
Beraz, izan egizuz gogoan, arren,
zure Odol baliotsuaz erosi zenduzan otseiñak.

Aurkitu daitezala zure Santuakaz betiko zeruan.
 Onik atara egizu, Jauna, zure erria,
 eta bedeinkatu egizu zure soloa.
 Zuzen eroan eta jaso egizuz betiko bizitzara.
 Egunero bedeinkatzen zaitugu.
 Zeure izena goratzen dogu beti ta gizaldien gizaldietan.
 Arren, Jauna, zaindu gagizuz egun onetan pekatu bagarik.
 Erruki zakiguz, Jauna, erruki zakiguz.
 Betorkigu, Jauna, zure errukia,
 Zeugan itxaron dogunez.
 Zeugan itxaron dot, Jauna; ez nadilla betiko galdu.



O A R R A K

- 1 1 Bide bi azaltzen dauz: bide zuzena, zintzoena, eta bide okerra, gaiztoena.
 2 1 Salmu au, Mesias'i buruzko salmua da. Gabonetako elizkizunetarako erabilten da.
 2 7 Jainkoak Mesias'i "bere Seme" dirautso.
 2 12 Eberkeraz: "eta ikaratu dar-dar; mun egin semeari".
 4 3 Gerkeraz: "biotz-motelok"; eberkeraz: "nire aintza baztartua da".
 4 7 Gerkeraz eta Vulgata'k: "Zure arpegiko argia geugan dago ezarrita". Kristaua bateoaz "argiaren seme" egiten da (Luk. 18, 8; Yon, 8, 12; Tes. 1.^a, 5, 5; Ef. 5, 8).
 6 5 "Nire arima: "ni" adierazoten dau sarri be sarri, naiz "nire bizia", "nire aintza", "nire arpegia".
 6 8 Gerkeraz: "zaartu egin naz".
 7 6 Itzez itz: "nire arima". —Autsetan: illobiko autsetan.
 7 12 Gerkeraz: "asarrerako geldia".
 7 18 Izenarentzat jo: ereskiñen bat jo, arizkoa (arpa, zitarra) naiz aizezkoa (turuta, adarra, txistua); edo-ta, zerbait abestu, ereskiñez lagunduta (emen, eresi edo salmuak).
 8 3 Kristo'k erabili ebazan berba oneik (Mat. 2, 16); eta Elizak Ume Errubageen egunean.
 8 9 Gizona izadiaren errege da, eta arentzat egin eban Jainkoak abere, arrain eta gaiñetiko dana.
 9 14 Ebeskeraz: "niri gorroto daustenakaitik" dakar gaiñera.
 10 1 Txoria zintzoaren irudi (55, 7; 91, 3; 124, 7). Mendia gordeleku da (Mat. 24, 16).
 10 7 Gizonak ezin daike Jainkoaren arpegia ikusi; eta "Jainkoaren aurrean egon" adierazoten dau, morroiak biotz-oneko ugazabaren aurrean elz.

- 7 Lur azaleko zidarrak ez dau garbitu bearrik, zida
utsa da-ta. Orrelaxe Jainkoaren itza be.
- 6 Eberkerazkoak eta Vulgata'k auxe dakarre gainera:
abestu dagidan nik Jainko Gorengoaren izena".
- 5 Gerkeraz: "ikaragarri danik ez dagoan tokian".
- 15 Coiza: Jainkoak bere graziak emoten dauzaneko aldi
egokia. —*Egunsentiak* eta *argiak* onik urtetea adie-
razoten dabe; *gabak* eta *illunak*, barriz, larrialdi ta
estualdia emen.
- 3 Jainkoa "arkaitz" esaten yako sarritan Salmuetan,
bere zintzoen gaztelu gogorra adierazorik. —"Ada-
rrak" indarra adierazoten dau.
- 5 Olatuak: eberkeraz "sareak". —Urak, arrisku ilga-
rria adierazoten dabe.
- 7 Igurtzitakoa: "mesias" eberkeraz, "kristo" gerkeraz:
Israel'go erregea da.
- 10 Auzia egitera etorri zaitzanean.
- 27 "Arein biotza" gerkeraz; "zuen biotza" eberkeraz.
- 28 "Aren aurrean": "zure aurrean" eberkeraz.
- 5 "Txabola": Jerusalem'go jauretzea.
- 1 Jainkoaren semeak: aingeru onak. —Gerkeraz eta
Vulgata'k jarraian: "Ekarri egiozuez Jainkoari ada-
rikumeak".
- 6 Saron: Libano'ren izena sidoneraz.
- 11 "Aberatsak" gerkeraz; "leoiak" eberkeraz.
- 21 Egin ez dauan gaiztakeriren bat ezarten dautsoe.
- 10 "Iturri bizia": jakituria ta Jainkoaganako bildurra.
- 8 Geisosa pekatuaren zigortzat artzen da (ikusi 37, 4;
106, 17).
- 10 Judas'i buruz esan eban ori Jesus'ek.
- 3 Jainkoaren arpegia ikusi: emen, Jerusalem'go jaure-
txeari ikustaldia egin.
- 5 Jerusalem'go jauretsera joaten ziran urtero israeldar
zintzoak.
- 4 Gerkeraz: "nire gaztetasuna poztuten dauan Jainkoa-
gana".
- 20 "Txakurtzegira": edo-ta, basamortura: judarrak era-
soaldietan iges egiten eben tokia.
- 3 Mendi Santua: Sion-mendia; antxe egoan Israel'go
erregearen bizitokia, baita Jauretzea be.

- 8 Tarsis'ko itxasontziak: Tarsis'erañño joaten ziran
itxasontzi aundiak.
- 12 Juda'ko uriak: inguruko uriak.
- 16 Bat-bateko eriotza gaiztoaren zigorra da (ikusi 73,
19; 102, 25; Is. 38, 10; Jer. 17, 11; Job 15, 32).
- 18 Otoitz-orduak dira.
- 5 Jainkoaren itza bere agintzaria da; zintzoak agintza
orretan dauko ustea (106, 12; 119, 42, 65; 130, 5).
- 6 Zintzoak Jainkoaren erreñuaren agertzea gura dau,
zapaltzailleakandik askatua izateko.
- 7 Sartzaldeko urietan txakur-pilloak ibiltzen ziran aruntz-
onuntz.
- 9 Ate erreik urrunetako lurraldeak dira.
- 6 Itxaso Gorritik eta Jordan'dik igarotea.
- 4 Lurtar guztiai egin dautse dei Jainkoak Bera ba-
karrik gurtzeko, baita zeruratzeko be.
- 15 Mendi Gerizatsua: Sikem-ondoko mendia, zugatzez
betea.
- 16 Sion-mendia, Jainkoak lurrean bizitokizat aukeratua.
- 18 Erregeen aldiko garaipenak.
- 31 Ejipto'ri buruz diño ori.
- 7 Mesias'en aldiak betiko iraungo dau.
- 26 Jainkoa gura-ta.
- 9 70 urterako erbestaldia iragarri eban aurretiaz Je-
remias'ek; 70 urteok erbestaldi luzea adierazoten
dabe.
- 14 Itxaso Gorritik igarotea, eta ejiptarren ondamendia.
- 15 Urtekerako mirariak (Ex. 17, 1-7; Num. 20, 2-3);
eta Jordan igarotea.
- 19 Usua, Israel'en irudia.
- 11 Urtekerako mirariak.
- 43 Ejipto'ko zigorrak.
- 43 Ejipto'tik urtekerata eta Kanaan'en sartzea.
- 61 Alkartasun-kutxa.
- 3 Efraim eta Manases dira Iparraldeko jatorririk na-
gusienak.
- 12 Ibai Aundia: Eufrates ibaia.
- 4 Urtearen lenengo ibiltean ospatzen zan Txabola-jai,
jaiarik pozgarriena.
- 7 Ejipto'ko lan ilgarriak.

- 83 10 "Igurtzitakoa": emen, abadeburua.
 84 10 Jainkoaren antza Jauretjera etorriko da barriro erbestaldi-ondoren.
 86 6 Israel'go bizilagunen zerrenda, antza. Izena emoten daben jentillak Israel'go bizilagun egiten dira.
 88 11 Rahab: itxas-piztitzar baten izena.
 89 12 Giza-makaltasuna ezagutzetik dator jakituria, Jainkoaganako bildurra.
 92 2 Zerua da Jainkoaren jauregia.
 93 17 Ixil-tokian: *seol*'en, lezan, inperuan.
 94 8 Meriba'k "eztabaida" adierazoten dau; Masa'k "zirikaldia".
 96 8 Lurralde aretako uriak.
 98 6 Moises eta Aaron: bitarteko aundiak (Ex. 32, 11; Num. 17, 11; Sal. 106, 23).
 100 2 Mesias'en etorrerari buruz, aurrean.
 100 8 Goiza da Jainkoaren grazien aldi egokia, baita zuzentasunarena be.
 103 30 Jainkoaren espirituak eskuartzen dau izatean eta bizitzan.
 106 7 Kanaan da, antza, aurrelari ori.
 108 1 Zintzoa guzur-baltzez izan da salatua, eta Jainkoagana jotzen dau zuzentasun-eske.
 108 6 "Gaizto" ori "txerrena" da, deabrua.
 109 1 Kristo Aitaren eskumaldean dago jesarrita (Errom. 8, 34; Ebert. 10, 42; Pedro'ren 1.^a, 3, 22).
 109 7 Kristo'ri dagokio (Filip. 2, 7-11).
 110 5 Manaren miraria.
 115 13 Eskerrak emotea (Kor. 1.^a, 10, 16).
 117 23 Jauretxea barriztua izan da.
 117 24 Pazko-egunez esaten da ori elizkizunetan.
 117 26 Sanctus-aldian esaten da, Mezatan.
 119 5 Masak, Kaukaso'ko erria; Kedar'tarrak Siria'ko basamortuan bizi ziran; basatiak ziran erri biok.
 125 4 Negeb'eko errekek legorrak ziran; baiña, neguan bat-batean beteten dira eta bustiten dabe lurra.
 128 1 Gaztetarik: Ejipto'ko egonalditik.
 131 6 *Kutxa* Efrata'n egoala entzun genduan.
 131 7 Jainkoaren bizitokian.
 131 10 Jainkoaren Igurtzitakoa: Kristo, Mesias.

- 131 17 Mesias da errien argi-ontzia.
 136 7 Jerusalem Kaldeatarrak artu ebenean (587'garren urtean Jesukristo baiño lenago), edomitarrak israeldarren arerioakaz alkartu ziran.
 141 5 Eskumaldea zaintzaillearen tokia da.

